

# 25 ANTZERKI LABUR



# 25 ANTZERKI LABUR

*Bilduma:*

AITA ONAINDIAK

EUSKERAZAINNTZA 'ren ARGITALPENA

Bear diran baimenakin

Depósito Legal: BI - 602 - 1985

IGARRI. S. C. L. - Rafaela de Ybarra, 1 - Deusto - Bilbao

## AURKEZTU

*Antzerkia ez da edozer gauza, olerki-saiets bat baiño. Olerkia, poesia gizasemeak naiz emakumeak, bere buru-biotzai eragiñik erutzen dauan lana ba'dogu, antzerkia be orren pareko, buruak eta biotzak sortutako zerbait.*

*Bere bereiz-gaia euki oi dau gauza bakotzak. Zein ete da antzerkiaren bereiz-ari ori? Olerki-maillakoa dan lez, ederra adierazo bear dausku, interesgarri dan alako giza-egintza baten bitartez.*

*Antzerki baten, beraz, gai garrantzizkoa bear da, gizartekoa, ederrez jantzia. Berba antzezlagunak dagie, bakarka naiz askorren artean; mintzalari geiagoz, bakarka baiño.*

*Arte-lan guztiak lez, ba-dau onek be bere elburua. Zein ete? Gizona nabarmen jarri, bere oiturak eta ekanduak, edertzen dabon gaitasun onak goretsiz, eta aski-bedarra lez ditun griña ta makurrak txibitaz astin-azorik. Onek poza dakarsku aldiz, eta aldiz lotsa gorriaz gaindika bete.*

*Ederrak ez dau egundo elburutik urññegi ibilli bear. Giza-bizitzaren edertasuna nabarmentzen alegiñak egin bear dauz antzerkigilleak. Ederrak ostera ona dau izarbel, aizta maitati bi lez dirala, sarri gara entzunak-eta. Begi erraiñu onaren argiak. Ekanduen ezle —onena— ei da antzerkia; ortik, ba, erriari gaitza erakusten jardutea pekatu larria litzateke. Erriko jentetza, egia, danetarikoa da; ona ta txarra naste daukagu. Albora lagarik txarra, gora daigun onaren ederra.*

*Agirian eta jente aurrean esaten dana dozu antzerkia. Orixegaitik, antza danez, eragin ikaragarria dau gizartean; laster gaiñera igarten jako zer dauan atsegin, au oni ta bestea ari. Atzo ikusi ta enzuna telebistan: teatru zantarra ikusi*

*ebala iñoan batek, gizonak praka motz barik, andrak ugatz eskerga beteaki erakusten, eta neska.-mutillak lotsa-izpirik bage. Ederto txalotu eben batzuk au, beste batzuk ostera arpegi-illun gelditu ziran. Eta nik neure kolkorako: «Or bai dakusgula nor nor dan!».*

*Gauzak diran lez agertu bear ditula antzerkiak? Bai, motel, ederto. Egia beti egi; ogia ogi ta ardaoa ardao. Dana, beti eder, noberak daukana naiz izadian dagusguna. «Errealitatea» ondo da. Haiña antzerkigilleak ori, izana, dana, berez zatar samarra ba'da be, ez dau zatarrago ta gordiñago biurtu bear; beste era batean, dotore jantzia, edertua eskiñi bear dautso erriari. Ori baita akatsak eurak be, apain ta jakin-garri emotea.*

\* \* \*

*Orixe izan da gizaldiak zear antzerkia Grezia'n naiz Erroma'n, sortaldean naiz sarkaldean. Gure erria be aspal-ditik —ba'leiteke guk uste baiño lenagotik— antzerki-soloan jarduna da. Gogora Zuberoa'ko ta iguruetako Pastoralak eta gaiñerako komeri-joanetorriak. Gaur be, mugaz andik zein emendik daukaguzan antzerki-taldeen lana ez da ezeztutekoa. Erria poztu ta alaituz, denpora pasa, erastuna atzamarrera lez jatorkuz bakar-izketa, alkar-izketa, jostailu labur, komeri barregarri ta drama negar-antzekoak.*

*Gaur-egun, baita, euskera ikas-arazoan guztiok darabilgun leiaketa onetan be, tresna polita dozu antzerkia. Begira, noiz sortu eban R. M. Azkue zanak, an Bilbo'ko Jardines kalean, «Sasi-Eskola» bere antzerki-taldea; eurak euskeraz ikasteko bide lez eta erriz erri ibilliaz, beste askori be ortarako gogoia piztu-azteko.*

*Gure erria komerizale izan da beti. Leenago ta gaur. 1936'garreneko gudu aurretik ainbat talde ebiltzan Euskal-erri zear teatru lanetan. Ordukoak dira, gaiñera, euskal antzerkigille trebe, giartsu ta errimeenak. Gizonaren irrika bizi bati erantzunik, antzeztu ezkeru, premiñak berak bultz-eraginda sarri, antzerki-idazleak be agertu egin oi dira.*

*Erriari zerbait emon bear jaki, biotz asegarri. Aspaldi or gabiltz esaten erriak —gazteak alan be— ez daukala nun aldia erre, igande ta jai-egunetan ain zuzen. Ortarako, besteak beste, nun-nai ta beti sustraizkoak izan dira antzez-ekiñaldiak. Ezin ukatua dogu au be, oneik eta zinema mundu guztian ankar-gora bota ditula gaur indartsu dabilkigun telebistak.*

*Tramankulu biok, orraitino, zinemak naiz irratiak, antzerkia tarteratu oi dabe euren saio ta ekiñaldiak apaindu ta interesgarriago egin nairik. Oraingo be antzerkiak, gauza bakotxari berea emoteko, ba-dau bere arrakasta.*

\* \* \*

*Ba al dakizu antzerki-txorta au noiz eta zelan egiña dan? Lanak sarri askotan eskabidez osotu oi ditugu, nik beintzat askotxo ditut olan burutuak. Amabost urte ta geiago dira onezkero, eske asi jatazala eskoletako maisu, maistra ta andereñoak, antzerki-eske ta eske; komeri batzuk egin nai ebezan auren ikasleen artean, eskolan edo ikastolan edo-ta erriaren aurrean.*

*Baiña ez eukien ortarako gai egokirik, antzerkitxorik, neska-mutikoak antzeztuteko lakorik; eta nigana joten eben. Nik, koplak aterateko-ta, neuk neukazanetatik izten neutsezan batzuk.*

*Geroago beste eskari bat: antzerki-bilduma bat osotu bear nebala, baiña lantxo labur errezakaz, errez ikasi, esan eta antzeztutekoakaz, bakarka, alkar-izketan eta olan esatekoakaz.*

*Niretzat eskaria, euskal lanerako danean, beti izan da betebearrekoa. Lotu nintzakon, ba, lanari... Eta emen biribilduta nire antzerki-txorta, mutiko mardula, naskato matrailgorria. Idazleok beti diru-premiñan ibiltzen bait gara, emon neutsan dalako txorta Bilbo'ko Retana ainbat liburu eder argitara atera dituan etxeari, nire lana be liburu biurtu egistala eskatuz. Baietz esan eustan. Baiña nai dan guztia ezin askotan aurrera eroan-, urteak egazka ta, au edo bestea zala-*

*ta, ezer egiteke. Azkenez, eskuratu neban barrero, be neuk argitaratzeko asmotan.*

*Eta emen daukazue, irakasleok, zuek eskatua egi biurtua. Zuentzat osorik. Esan zuek, nai ba'dozue, ba-dirala obeak, gaur beste aize batzuk —Eolo aurrelari— dabiltzala puzka. Ta orrelaxe da izan be. Bilduna ontan datozenak be, baiña, politikak dira, zenbait ederrak, maisu-garrez egiñak, eta dan-danak euskera gozo-bikaiñean.*

*Au be esan bear dautzuet. Zuek eskatu bezela, ez dozue luzeak, laburxeak baiño; amar, amabost minutukoak geienak; ordu erdikoak gitxi, eta banakaren bat ortik gorakoak. Eroso, errez ta egokiak, nik uste, gaur ikastetxeetan somatzen dogun utsunea beteteko. Ni amaika urteotan noan eskola- ikastoletan, noizik bein, komeditxoak polito antzetzu daroez. Lora-sail onetan ba-dozue, irakasle ta ikasleok, nun aukera.*

Larrea, 1985-II-25

AITA ONAINDIA

## 1 NOE'REN ONTZIA

### (Bakarrizketa)

*(Kale bat iruditegian. Kale ontako etxe batian, ardote-gia. Oíala jasotakoan, itz oek esango ditu ardote-gi barruan, emakuma batek, edo mutil batek emakumaren boza atereaz).*

Adi zan, Josepa; atzo gizon au emendik biali genduen, erretira egindakuan, eta ostera emen den; noiz sartu ote den? Ni sukaldían nintzala eta i baratzen, sartuko unan. Ba! Orrentzat erremerio errexa, eskoba makillarekin bizkarrara bero-bero egin eta atia itxi; orduan berak jakingo din zer egin. Bai, orixe egin bear degu. Jozan ik makillarekin eta nik kalera botako diñat.

*(Garraxi ta makil-otsak entzuten dira, ta zarrapastaka sartzen da egin-zalea iruditegira, lurrera eroriaz; nekez altxako da, moskortuta balego bezela).*

—Neri moskorra nagoala esan didate, bañan ez nago ni moskorra. Nik burua sano daukat; anak okertzen zaizkit. Bañan anak okertzia naiko eztala, bizkarra berotuta, emen, kalian utzi naute. Orain zer egin bear det? Nora jungo naiz? Neri zer gerta zait?

Ai! Orain gogoratzen naiz. Atzo astuarekin etxetik atara nintzan, eta bidian nijuala, gizon bat oso arlote jantzita, billatu nuen. Elkartu giñanian, esan zidan:

—*Qué hay, compañero; ¿quieres vender burrico?*

Eta erantzun nion:

—*Ese no ser burrico; yo ser burrico.*

Ordun esan zidan:

—*Buen presio haser ese burrico; yo pagar a ti muy bien el burrico.*



Eta ala konbidatu ninduan. Baso erdi batzuek eran giñituen, eta nik eztakit zer gertatu zitzaidan; ausen batzuek ote zituen arduak edo... eztakit nik; ni gogoratu ordurako astua ostu zidaten beintzat.

Eta nik ordun, zer egin bear nuan? Txanpon batzuek banituen, eta sustua pasatzeko tabernara sartu nintzan; gero, txanpon guztiak an utzita, ta propinatzat bizkarra epel-epel jarrita, utzi naute kalian. Au dek istilluba! Au dek egarria! ez al da iñor emen, baso erdi bat emango didanik? Egarriz itotzen nago; erruki zaitezte nizaz. Ezta ba gauza aundirik nik eskatzen dedana. Baxo erdi bat! Ez al dute bada emen ematen? Emen denak biotz txarrekuak dira.

Ba, ba! Tabakua izen biar det, bai, eta au erre bitartian, norbait billatuko ez ote det? *{Tabakua ateratzeko sartzen ditu eskuak sakelean, eta tabakua dalakuan, patata-azalak ateratzen ditu}*. Oi! Nun egon naiz ni? Ixo, ixo, iñork ez dezala jakin. Esango dizutet nere *pasaisu* guzia.

Esan dizuetet nola astuarekin etxetik atera nintzan, eta ijito bat bidian billatuta, nere astoren jabe egin zala, eta nola ni bakarrik gelditu nintzan. Nere etxea urruti zan, eta gaba nunbaiten pasa biar nuen; sartu nintzan ukullu batian. Ni sartu nintzan bezin laister, ganadu guziak arrotu ziran; bañan ni bapo negoalako, ez nintzan ikaratzen.

Biar nuen bada etzateko lekua, eta belar baten gañera nijuala, asi zan idi bat... *{Idiarena egin beza}*. Ura ikara! Jotzera egin zidan; atzera egin nuen nik, eta aldamenian zegoen mando bat, belarriak tente zituala, asi zan istilluka, nik eztakit negarrez edo pozez; zalaparta bazan beintzat. Orrelako orru sentitzen nuen *{Munduaren arrantza egin beza}*. Arekin batera asi zan biorra, eta aretxek ere ala egin zuan *{Emen, biorrarena}*.

Nere ikarakin, bazter batera asi nintzan juaten, eta ura izan zan gogorrena. Astua egoki ta libre zegoan, eta ni ikusitakuan «nere poza!» esango zuen bere artian. «Bestiak eztute ezertxore egin; nik emango dizkiot bada guztien partia». Eta artan asi zan onla eginda *{Emen astuaren arran-*

tza). Eta marruakin batera, ostiko bat eman zidan. Begi onduan uste det; emen miñ artzen det beintzat.

Esnatu nintzarian txarrien askan, iru txerri aundi nere aldamenian zeuden. Zer zuten aiek? Ni jan bearra? Edo nik aien jana jango biar ote nuen? Batek orla egiten zuen (*Txerriarena egiñaz*). Bestiak orla (*Beste txerri batena*). Eta bes--ak orla (*Berriz*).

Zalaparta ugari bazuten beintzat. Apustu egiña egongo ziran, zeñek lenago ni jan; ni askatik atera nintzarian beñe-pein, burruketan asi ziran.

Nagusiak jakingo ote zuan bildurraz, atera nai nuen, bañan atia irikitzen asi nintzarian, katua marrubaz jarri zan, eztakit agiñeko miña ala kantatzeko gogua zuelako. Ala egiten zuen (*Katuak bezela egiñaz*).

Ortan atera nintzan, eta orra nun datorren txakur txiki bat makarrak ta lerdiak zituala; lotsagabia uken. Arrek esango zuen irentsi biar ninduala; zaunka bazun ugari beintzat. Ixillena zegoan bitartian, etorri zan atzetik eta ankatik kosk egin zidan. Etzan gaizki asi irensteko; ankatik! Artu nuen ordia koskor bat, tiratzen diot, jotzen det jiban, eta aren marru ta istillu ordun! An juañ zan orla egiñaz (*Txakurrak bezela egin bear du emen*).

Ni, denen sendapena egiteko, tabernara, baxo-erdi batzuek erango nitualakuan, juañ nintzan, eta arduaren ordeztali-fuerti-ak eman dizkidate.

Au da nere kontagai guzia. Ta orain, jaunak, sau iñork jakiterik ez nuke nai, bada nere etxeoandriak jakiten badu, sartuko nau ukulluan, lotuko nau ganaduak bezela, edukiko nau aste bat jan gabe, eta illeko soldata beretzat.

Ori naiko eztala, kontatuko dio aldameneko Pantxika'ri, eta arrek, jakiña!, *despedida al canto*-, eta jende guziak ezkontzen naizela dakien ezkeru, ori izango da nere lotsa.

Ala ere, etzait ajolikan; neska paltik ezta izango. Giza-seme bakoitzentzat zazpi emakume ba omen dira ta! Gañera, anai arro xamarra du, ta ezkeru ondo konpontzen.

Atzeneko txandan bezela... Egun batian juañ zan Donosti'ra, *opiziyua* ikasi biar zuela; bañan opiziyuaren ordezt

beste gauz asko ikasi zituen noski; euskeraz aztu, ta erderaz ikasi ez.

Onera etorri zanian, ba-zinjuan kalian periodikuarekin eta deitu nion. Asi nintzan izketan, beti bezela, ta erantzun zidan:

—*No entender, señor.*

Belarri motxen papera egin nai zuen. Egin papera edo ez, periodikua buruz bera zeraman, letra aundiak azpian zitu-  
tuala. Esan nion:

—Oi! Aldrebes leetzen ikasi al dek?

Esan zidan:

—Beste aldera, edozeñiek leetzen dik!

Ortan asarratu giñan eta, *que enfadar pa siempre*, esan zidan, y *que no casar que hermana de mí*. Aldrebes beikan, adi-eraztera eman zidan.

Bañan etxe inguruan andre-gayik ezpadago, onera etorriko naiz. Emen izango da bat edo bat pormala.

Pormalak danak emen, txiki ta aundi; aundiak berariz.

Kontu guziak alde batera utzita, etxe aldera jun biarko det, etxeko-andriak zer esaten didan aditzera, bera billa así baño len.

Agur, jaun-andre prestubak,  
agur ta urrenarte;  
banator aurki esatera  
etxian zer egin didaten.

*Simon Arratibel*

(«Euskal Esnalea», 1917, Ilbelta 15-30, 6 orr.).

## 2 BEREZI

(Ekitaldi batean)

*{Tellatu inguruko sukalde txo bat. Mueble tan ezer gutxi; etxea utsik ez dagola esateko aña. Nai izan ezkeru, ipiñi di-tezke bizpairu mueble zar, aldi batean onak izanak. Oi bat, maia, bi eserleku, sukalde tresna batzuek; estufa bat piztua dagona ta gañean eltzea.*

*Mai ondoan besaulkian eserita aiton bat anketatik elbarria. Burusian bilduta dago. Jantzia txiro bañan garbia. Bizar zuriduna izan diteke edo sudurpekoarekin beintzat. Betaurrekoak ere bai. Erdi lotan edo irakurtzen dago. Xanti da. Bereala sar bedi Lutxi. Beltzez estalia, jantziak antziñako eran oso txukunak. Etxean sartu orduko mantaltxoa jantziko du ta zapatillak.*

*Bearrean dagola ikusi arren, egun obeak ta ondasun geiago ezagutua dala igarri bear zaio. Zirazko zorro beltz bat eta meza liburua dakarzki eskuetan).*

LUTXI.—*{Laztanduaz}*. Aspertuko ziñan, aitona; ez da ala?

*Plaza ortan zail bai da nai dana erosten. Ango jendea! {Zorroa ustu beza aurrena, ogi, lursagarrrak ateriaz, eta gero esaten joango dana).*

XANTI.—*Iganderoko leloa degu ori, Lutxi.*

LUTXI.—*{Neka-neka eseriaz}*. Ezin det geiago! Bostgarren bizitz au goian dago. Biotzak egiten didan taupada!

XANTI.—*Ez arreguratu {maitekiro}*. Obe nuke igotzeko gauza ba'nintz. *{Lutxi'k ezer esan gabe maite-maite batzuek egiten dizkio arpegian, eskua artu ta laztanduaz}*.

LUTXI.—*{Pozik}*. Patatak bost xentimo libra jetxi dira; dozen-erdi batxerdina erosi dizkitzut. Ez daude garesti:

errealean. Zuretzako urdai azpiko xerra eder au peseta batean, ta ganera naranja bat. Pozik egon ziñezke. Eroaldiak eman dit; aldi batean antzo.

XANTI.—Ta zuretzako?

LUTXI.—Neretzako? Ba-dakizu ez detala jateko gogo aundirik. Patata prejitu batzuek eta gazta puska batekin naikoa det. (*Alaituaz*). Begira, Malen saltzalleak lore polit oriek eman dizkit. (*Ontzi batean jarri bi tza*).

XANTI.—Ez det nai izaten neretzat orrenbeste diru xautzea zuretzat mixerian ibilliaz.

LUTXI.—Zurea dana, nerea ere bai. Jan kontuan ez naiz beñere izan mizkindoi. Alkarrekin bizi geran berrogeita zazpi urtetan ezagutzeko aña beta izan dezu.

XANTI.—Ondotxo ezagutzen zaitut ezagutzen zaitudanez. Bai! Nere atsoa aldamenean ez banu, zer izango litzake nitzaz?

LUTXI.—Ba-dakizu amona zarra deitzea ez zaidala atsegin. Izen itxusia da.

XANTI.—Zuk aitona esaten didazu, ba.

LUTXI.—Ez da berdin. Andrea naizen aldetik, losintxa pizka bat zor zait.

XANTI.—Ara, bestea; ogei urteko neskatxa gaztea.

LUTXI.—Zu baño gazteagoa naiz beñepin! Sei urtez.

XANTI.—Bai, bai, egia da. Alaz guztiaz irurogeitamar urtetik gorakoa, maite.

LUTXI.—Ez dizkit iñork orrenbeste ematen. Ez da ala?

XANTI.—Baietz esatea nai zuk, goiz-ollanda. Aiton elbarri onen itz goxoak entzun nai oraindik. Ez dizkitzut gutxi esan gere bizi guzian ta.

LUTXI.—Orixe bai! Ortan galai ta gustagarri izan zera. (*Xanti'k sudurpekoa kiskurtzen du*). Emakumezkoai gauza atsegiñak esaten ezbestelakoa. Ao zuria! Iñoiz soñeko berririk egiten ba'nun, bereala kontun erortzen ziñan.

XANTI.—Ori bai, ta ez nizun utziko gaur dan egunean bezela ille motzaz ibiltzen.

LUTXI.—Ez da nik ere bizarrik gabe ume baten gixan. Ondo eman ere.

- XANTI.—Bearko egin zuk nai dezuna. Goxo itzezin, bañan beriarekin atera.
- LUTXI.—Ez beti!
- XANTI.—Nik agintzen nuala uste, ta orain ikusten det, zartuta gero, zure borondatea izan dala emen nagusi.
- LUTXI.—Keja zaite. Ez al gra, ba, zoriontsu bizi izan? Ez al degu ondo pasa? Pobre gaudela, beartsu, orixe bai; suerte txarraren mendean onrrau, esku garbiak izan ditugulako beti,
- XANTI.—Orrela da.
- LUTXI.—Len ederki bizi giñean. Peseta galantak irabazten zenitun: 12.000 erreal errenta ba-genuen lanari utzi zenionean.
- XANTI.—Ondo kostata irabaziak, gañera. Errezago jan dizkigute zital aienak ez bestenak.
- LUTXI.—Ori esan. *{Patatak zuritzen ari dala}*. Adierazi izan ba'zidaten, gauza ez naizenean, neronek patatak zuritu bearke nituala; neronek garbitasuna egin, zentimoari begira ibilli ondoren, ta emen ganbara ontan bizi-bearra izango nuala, ez nun sinistuko. Ta au gutxi ez dala, semeak kanpoan eta alaba Ameriketara ezkondua.
- XANTI.—Mixerik asko ikusten ura ere.
- LUTXI.—Semeak ez dira askoz obeto bizi. *{Ixil-unetxoa}*. Bizimañak lanak ematen ditu.
- XANTI.—Atoz, atoz, nere ondoan ikusi nai zaitut.
- LUTXI.—A, Xanti- *{Onek eskutik eltzen dio}*. Utzi zaidazu, patata auk zuritzez buka bear det-eta.
- XANTI.—Oraintxe elkarrenganako maitasuna besterik ez zaigu gelditzen. Orratiokan ez uste izan zu kalean zabilzanean ni emen gogaitzen naizela. Ez. Ezin ibilli niteke, bañan burua arin dijoakit. Elkarrekin daramazkigun urteak oroitzen zaizkit. Eraman ditugun lan eta nekeak, beti elkarrekin, idiak buztarrian lotuta dauden antzo.
- LUTXI.—Lanak?, ez txikiak gañera.
- XANTI.—Zer egingo genuen bada bultza, tira, semeak aurrera ateratzeagatik. Iñoiz aserratu ere egin giñan. Ezkon berrietan, gero baño geiago.

LUTXI.—Azkenerako elkarren antzekoak jarri giñan.

XANTI.—Aurrak azitzeak eman dizkigun lanak!

LUTXI.—Aztu ere egin zaizkit. Ortaz pentsatzen jartzen naitenean, aurrak batean aundi ta txiki ikusten ditut. Aguro ta astiro igarotzen da bizia. Urruti ta bertan (*urbil*) ditut gauzak.

XANTI.—Au bizia! Oriek izaten dira nere otoitzak. Etxekoandre!... zuk erreztatzen ez dedala esan arren. Zuk ni maizago konfesatu bear nintzakela diozu. Pazkoazkoa ez al da naikoa. Ori ere zuk nai dezunean egiten degu. Zure esaneko beti...

LUTXI.—Bai, baña...

XANTI.—Zer bai baña, daramakigun bizimoduagatik, zer nai dezu nik apaizari esatea: sekulan ez diot iñori txanpon bat ostu, ez diot iñori kalterik egin; ez zaitut beñere ingañatu izan. Jaungoikoari eskatzen diodan guztia, il naldinean zure aldamenean izatea da... Nere andrearen ondoan, bai. Zer dezu, Lutxi, negar egiten al dezu?

LUTXI.—Maitasuna da, Xanti, maitasuna. Gaztetan esan izan ba'zidaten berrogeitamar urte ondoren ezkongaitan bañan geiago elkar maite bear gentila, ez nun sinistuko. Zartzaroak alaitasun gabeko bizimodua dirudi. Guk izan ditugun eriotz, zoritzar, galera, ta orain besten errukiz bizi izatea, etxe ontan... alaz guztiz zoriontsu gera, ez da ala? Alaitasun gabeko zoriona.

XANTI.—Ai! Lutxi!

LUTXI.—Bai gizona bai, patatak zuritzea zuretzat izan ezkerro, atsegin zait. Egia, batzuetan ernegatzen jartzen naitzela; aldi batean azkazalak orain baño geixego ardurartzen nituala, ikusteakoak izaten nituan. (*Itz auek esandakoan, labana utzi, patatak eltzean sartu ta ur pixka batekin eskuak garbi bi tza*). Zenbait egunetan neka-neka eginda gelditzen naiz. Irurogeitamar urteak gañean. Bañan zutaz ari naizenean jardunean, ezkonberrietan bezin gazte senti det nere burua. Aurra zaitudala deritzait garbiketa egiten dizutelarik. Aurtxoak ainbeste maite izan ditut, ta orain zu zaitut aur, anai, senar ta aitona. (*Laz-*

*tanduaz*). Patatatxoak egosten jarri ditzadan [*izketan ari dala estufa gañeko eltzera bota bitza*) eta kontuak ere dirua zertan gastatu dedan aztutzen zait. (*Zorroa-zabalduaz*). Ona emen beko dendan eman didaten eskutitza, ez nintzan gogoratzen.

XANTI.—Zeñena da?

LUTXI.—Ez dakit bada, betaurrekorik gabe bai nengon. (*Ira-kurri naiean begira bezaio*). Alperrik. Ez det ezer ikusten. [*Inguruan miatuaz*]. Nun ete dira nere betaurrekoak? Au lana, betaurrekoak jarri bearra!

XANTI.—Emaidazu eskutitz ori. Ameriketako selloa ote dakar? [*Eskuratuaz*]. Ez, erri-barrukoa da. Bertatik bidalia. Ez det letra ezagutzen.

LUTXI.—(*Urduri*). Idiki zazu, bada, aguro.

XANTI.—Ez ditugu ainbeste artzen; ba-degu beta,

LUTXI.—(*Urduri*). Asko artzen zenitun garaiean berdiña zinan. Beti luzatzen: pixkana pixkana gauzak.

XANTI.—Ez bai naiz zu bezelakoa, maite; ni ertilari fifia izaki. Zu jan gosea. Goxokiak norbaitek ematen ba'zizkigun nereak gorde bear izaten nitun ez ba'zenizkidan jango.

LUTXI.—Begira, sutan jartzen nazu orrelako patxarakin. Nere betaurrekoak arki al ba'nitzake, eskutitz ori laster irakurriko nuke.

XANTI.—Ez aserratu, Lutxi; irikitzera noa. (*Idikiaz*). Besne'neko andrarena da. Errenta ordaintzen digun señoarena. [*Irakurtzen dijoala arpegia zurbiltzen dijoa/do naigabe ximikoa arturik*].

LUTXI.—Zer dio? [*Ez du erantzuten, itzik gabe bezela gelditu da esku artean eskutitza duala*]. Zer dezu? Zer dio D.a Rita'k? Itzezin zazu. Ez zaidazula itxoin arazi orrenbeste. Xanti, ikaratzen nazu ta ez zait komeni. [*Xanti'k itzezin nai luke, bañan ezin. Egiñaletan zerbait dio*]:

XANTI.—E... zin esan det.

LUTXI.—(*Eskua mantaleko sakeltxoan sar beza, sudur-zapia atera ta onekin bekokiko izardia igurtziaz. Sudur-zapia bere lekuan sartzerakoan, betaurrekoak arkitzen ditu*).



Nere betaurrekoak! (*Bereala sudar gañean jarri bitza ta eskutitza batetik bestera irakurtzen asten da*). Bañan, Xanti?, au ezin ditekena da; gu elkarrengandik berezi? Ikusiko litzake! Ez nuen ondo irakurriko,

XANTI.—Bai, astiro, astiro irakurri zazu, asieratik.

LUTXI.—«Jauna: gaurko egunean orrenbeste diru lagundu bear zaien beartsuak...».

XANTI.—(*Etenaz*). Beartsuak, karidadea!

LUTXI.—Bai, aberatsak erraz esaten dute. Jarrai dezagun: «... lagundu bear zaien beartsuak, guzientzako dirua iritxi dedin ondo partidu bearra dago. Zuei ordaintzen dizutedan etxe-errenta ez da naitanaiezko, ta uste det biok mixerikordin obeto izango ziñatekela...». (*Etenaz*). Xanti, entzun al dezu? Mixerikordian, erruki-etxean.

XANTI.—Azkena ikusiko dezu.

LUTXI.—«Dituzuten urtetan erruki-etxean obeto zainduak segurentzi geiagorekin izango zerate zuen etxean baño. Zer egin bear zenduteke bitakon bat gaxotuko ba'litz? (*Astiro irakurriaz*). O! Egia da elkarrekin ezin egongo zeratela». Elkarrekin ez, Xanti? «Arautegiak ez du uzten senar-emazteak elkarrekin egon ditezen».

XANTI.—Pobriai edozein gauza esaten zaie.

LUTXI.—Bai pobriak... (*Irakurriaz berriro*). «Gizonezkoak alde batean eta emakumezkoak bestean». Bañan elkarrekin bilduak egon da zeñi egiten diogu kalte? Ni beti zurekin joango naiz. Nere aguretxoarekin. Nork kontu artuko dizu nik bezela? Zure gauzak iñork nik beste ba'lekizke bezela. A, Xanti! Berezi!

XANTI.—(*Ametsetan bezela*). Zer geiago dio karta orrek?

LUTXI.—(*Irakurriaz*). «Alare egun batzuetan eta ordu batzuetan ikusi zindezteke». (*Etenaz*). Au burla egitea da, (*Bat-batean biotz gañean eskua jarriaz*). A! A!

XANTI.—Zer dezu, nere izarra?

LUTXI.—(*Berangana joan naiaz silla gañean erortzen da*). Ai! Ez nago ondo. Atoz, Xanti, atozkit. Biotzean min. Gaizki nago. Jesus! Atoz, aguro. Berezi!

XANTI.—Nola, ordea? Ezin mugi naizela ba-dakizu; ta, Lutxi, Lutxi, zer gertatzen zaizu?

LUTXI.—(*Antziz*). Ai, ez zaitut utzi nai... Jaungoiko maitea! (*Burua makurtu ta lurrera erori bedi*).

XANTI.—Lutxi! Lutxi! Bañan ilko ote zera? (*Etsita, ea entzuten ez zaiola*). Lutxi, Lutxi, arren! (*Zotinka*). Eran-tzun zadazu!

(Henriette Charasson'en «Seperation» antzerkia,

A. Labaien'ek euskerara itzulita).

(*Antzerti*, 1934, 1 orr.),

### 3 NESKAMEAREN MARMARRAK

*{Autsak ateratzeko zatar batekin, bizi-bizi sarturik}.*

Ume sabelberatuak aienak! Lurretik arrabete jasotzen ez, ta oien pantasia. Ia noski ni nor naizen oi ezer agintzeko! Lepazurra puskatuko al dute... Oraintxe buruz gain egiñerazi didate neri beintzat eta, dabiltzala ipurdiz gora ere nai badute. Beren amona zanak agindu dezaiotela.

*{Alki ta mai batzuen autsak astintzen asi, ta bereala geldituaz}.*

Okerrena ez da ordea ori. Gero «señorita» etorri orduko, moko kanabete luxatuta, or asiko zait: «Roxita, pero en toabia las kamas sin aser?». Errex egiten dizkin arek. Amarretan jeiki. Amaikaterdiak arte, bañua dala, gosaria dala, ezpañak piper gorritz ta begiak zikulu-saltsa beltzez pintatzia dala, arpegia autsez josi, gerria extutu, bere xanko politai —tanbor makillak dirudite gero!—, bere xanko politai begiratu, gonak pitin bat goraxeago jaso; ixpillu aurrean (Jesus, ixpillu aurrean... oiek komeriak!) onera begiratu, begiratu, au igutu, ura ikutu... atzekoaldiak ematen dizkion lanak! ... aunditxua iruditzen nunbait... ta igurtzi ta igurtzi, igurtzi ta igurtzi, «limatu» naian bezela... «Linea» ez galdu nai ba! Orrenbeste pantasi gabe begiratzen zigutenan beintzat guri mutil morrosko bapo askoak! Esango nuke...

Ta bera «mariya panpalona» baño arroago, jo ara ta bira onera dabillen bitartean, autsak atera. Lurrari argizaia eman, gosariak jarri, aurra jantzi... ta jantzitzea naikoa eztala, bateri mukiak atera, besteari atzea garbitu, okerrik egin ez dezaten zaitu, «kontu! txiki, atoz onera, ez igo orrera, erori egingo zerala», au pix egiten jarri, orren lotsagabekeriak entzun, suari begiratu, eltzean kontu artu... ta bera etor-

tzen danerako kuartuak egin ta maia pronto jarri. Lau esku ta zortzi zanko ditudala uste ote du «Mari Lirdingatz» orrek!

Ta bereak aundiagoak! Lengoan esan etzidan ba: «Ai, Roxita! Latima de lonbre. No merese Roxita. Espiña eso así debía ser!» Espiña alajaña! Artuko luken berak ni bezelako «espiña» izatea, anima salbo, bakallo exurra ematen din ta... Gero... batean eltzekaiak gatzik eztaukala, bestetan patatak peatu egin zaizkidala, au erre egin dala edo beste egosi ezuala... Jakiña, ba... Ta arritu egiten dira! Toki guzitan egotea nai al dute ba. Ni Jaungoikoa banitz, enitzake, serbitzen egongo ba, orra! Señoritua, bai... ai, señoritua! Ori bestelakorik da. Ori gizon moñoñua! Lastima one-lako andre xuxtantxi gabekoakin ezkondua izatea. Ezkongai egon balitz, orixe bai izango zala nere gustokoa. A zer pareja egingo genuan! Pareja ideal! Ia... ni Roxita, ta bera Kristobal. (*Larri-larri autsak biziki astinduaz*). Ene, Jesus maitea! Atia zan... Ta kuartuak egin gabe, maia jartzeko, ta umeak auzitan... Xexenak izango dira gaur gure etxean... Arantzazu'ko Ama, nitzaz erruki zaite. (*Sartzen da irten baño biziago*).

*Luzear*

(*Antzerti*, 1934, 15 err.).

## 4 SANTA CLARA'REN EGUNEAN

(Erri-oiturazko antzerkitxua)

*Egilleak:* PIE.—Ur saltzaillea.

LIÑE.—Erroska saltzaillea.

MIEL.—*Itxas begirale edo talarexua.*

NEUREUS.—*Praille gazte bat.*

ALKATEA.

PREGOILARIA.

ANDRE BAT.

ABADE BAT.

ERRITARRAK.

TXISTULARIAK.

*Giroa:* Lengo gizaldiaren azken aldietan.

*Irudia:* Itxas ertzeko ermitatxo baten inguruan.

*Meza ordua. Atean, ezin sarturik, erritar batzuk.*

*Zelaian, PIE eta LIÑE, bakoitzaren maian ardura-dun. PIE' ren maian pendarra bete ur, azukretu luzeak, baso banakak eta abar.*

*LIÑE'ren maian, erroskak.*

*Euren inguruan, tarterik tarte itxasora katalajoe-kin begira, MIEL.*

*PIE ta LIÑE gona luzeak dituezala ta samak be goi goraño lotuta.*

\* \* \*

MIEL.—{*Emakumeak zirikatu gurarik*}. Gaur ur epela saldu bearko dozue.

LIÑE.—Ta bígundutako erroskak.

PIE.—Izan be, praille bakoitza ekarten dabe gure errira...!

MIEL.—Ondarrun, itxura danez, ondo ordaitzen dautsez sermoiak prailleoi. Ia iru ordu laurdeneko sermoia egin dau gaurkoak. Fray Bartel ba litz be!

PIE.—Esan lei ze, Markiñan esaten ausartzen ez diran gauzak Ondarrun bota nai dituela. Ta zelako lotsagabeke-riak esan epelak alakuak?

MIEL.—Ez dautsat entzun.

PIE.—Obe. Ez dozu gauza andirik galdu. Obeto egingo eban Santa Clararen bizitzia obeto ikasi ba eban ganoraz botateko.

LIÑE.—Zer esan dau ba?

PIE.—Zer? (*Burlaz, praillearen itxuran*).

«Or aurrian dabiltzak andrak, daukezanak eta eztaukezanak erakusten, gonak gero ta laburrago, eskotea gero ta luzeago, mamiñak eta koipeak agertzen...».

LIÑE.—Etorri ta begiratu daiskula, ia iñok emon daben ori esateko biderik.

MIEL.—(*Katalejoekin andrazkoei begira diardu*).

LIÑE.—Zer darabiltzu lotsagalduko orrek?

MIEL.—Nik uste dot praille orrek errazoa daukala.

PIE.—Errazoa? Zer ba?

MIEL.—Abarketen txistenak ikusten yatzuez beñik bein, eta okotzeko bizarrak.

LIÑE.—(*Asarre*). Eta zuri, potxolo orreri, begiko kanikulia. (*Ermitatxoan meza amaituaz, «Erderaz zara Clara» abes-  
tia asiko dabe*).

ERRITARRAK.

Erderaz zara Clara,  
euskeraz argia,  
zeu zara zeruetan  
izar bat argia.

(*Lenengo ahapaldi edo estrofa au amaitu ta bigarrena  
asi ondoren, eleizatik kanpora datoz asko, abeslari*).

ERRITARRAK.

Augaitik mariñelak  
dauke guraria,  
gaur emon dakizula  
zor yatzun gloria.

PIE.—(*Deiez*). Ura, ur freskua, barruko izerdi likiñen garraztasuna kentzeko ur fresku ta garbia!

LIÑE.—Erroskak! Mendaroko erroskak! Ganeko zuringoa galtzen ez yakoen erroska ederrak!

PIE.—Ura, ur gozua!

GIZON BAT.—(*Ura edatera dua*). Gaurko beroagaz, onezkeru sapuak be urtengo dautse ur oneri.

PIE.—Zer diño beronek? Errosaneko taberna zuloan, kurtzallu argitan, ardaia dalakoan edaten dozuen mazusta urei baiño gitxiago beintzat.

(TXISTULARIAK «*Alkate Soñua*» *joten asten dira eleizako atean. Alkatea ta abadeak datoz. Egal baten gelditzen dira, astiro astiro bertara juan ondoren. Lotsaz begiratuko dautse danak. Txistua amaitzen da*).

LIÑE.—Erroskak! Arrautza goringoekaz egindako erroska ederrak. Gure santa andiaren bedeinkasiñoa artutako erroskak!

NEREUS.—(*Ura edatera dua*). Preskua eta garbia daukazu ura?

PIE.—Beroren begia baiño presku eta garbiago.

NEREUS.—Ori esateko zeuk ezdaukazu, itxuraz, ikusmen garbia.

PIE.—Jauna, nik gauzak bear diran lez esateko, ez daukat perlezirik miñean eta... gauzatxu bat esan bear dautsat. Asarratzen ba da nik baiño geiago galduko dau berorrek. Guk, okasiñoetan, iñori kendu barik, mezatxu batzuk ataraten be ba dakigu-ta.

NEREUS.—Esan, esan, gure kapako kapeleran asko kabi-duten da-ta.

PIE.—Zabala bearko dau ba!

Noiz ikusi gaitu ondarrutar andtak aingira kumien antzera gona labur eta papar zabal?

NEREUS.—Ba, ba! ... Ori esakera bat da.

PIE.—Esakera bat? Eta ain zuzen be... «or aurrean dabilan emakumiak», atzapar lodia luze luze gure begira ipinita? Sekula konpesatu dau berorrek ondarrutar andrarik?

NEREUS.—Orregaitik ez brixak urtenga jarri, andratxo.

PIE.—Andratxo ni? Berorri gaur ondarrutarrei burletan etorri da, ala? Neuk esango dautsadaz Fray Bartolomeri lau gauzatxu, ondo esanda, urrengo daiorreanean. Ondo esanda gero!

NEREUS.—(*Irribarrezka*). Zenbat da?

PIE.—Sekula praille bateri ez dausat urik kobratu, baña beorren bai, ondarrutarrak nortzuk garian jakin daian be. Txakur txiki bat.

NEREUS.—Orra. Tori. Purgatorixuan zeure uleok erre baiño len, zure ondorenak biurtu bearko dauste meza dirutan.

PIE.—Esanlak esan, adarra joteko be bai? Atrebentzia parkatuta, nungua da berori? Plaentxiarra ez da izan-go, ez? Ze angoa dala ba neki...

Orixe gogorra! Berbalekurik ez ipinteagaitik ixiltzeranua, bestela...

(*ALKATEA eta PREGOILARIA alkarri zerbait esaten igarten dira. PREGOILARIA erdira urten eta pregoia josten asiko da*).

PREGOILARIA.—Alkate jaunaren -aginduz adierazoten da: Bera unoriak eta erreumak jota dabillalako ta kontzejal asko be itxasoan dagozalako, agintarien aureskurik ez dala egongo. Bere orde, bikotien dantzak egingo dirala eta irabazten dabenak Andra Maritako aureskurako aukeratuta geratuko dirala...

(*TXISTULARIAK dantza soñu bateri ekiten dautse*).

LIÑE.—Iñor baiño lenago gau, Pie. Erdu!

PIE.—Bai bein!

LIÑE.—Oneik gaurko gazteok odolik be ez dauke-ta!

(*Santzo ta uju egiñez, dantzan ari dira. Tartean tartean PIE'K gona barrenak gora jaso ta NEREUS'en aurrian*



*aizetzen igarriko da, Liñe'ri kiñu egiñaz. Txaloak joten dautsez amairan).*

LIÑE.—*{Izerdia kentzen, Pie'ri):* Gogorra zara. Ia belau-netako tximurrak be erakutsi dautsazuz.

*Ikasi daiala orrek be zerbait, beti linbuu bizi barik. {Barriro dantza. Neska mutil bik urteten dabe. Dantzan diarduela, MIEL, talaxeruak Alkateari ta Abadeari deituten dautse. Itxasora begiraka igarriko dira zerbaiten kezkaz).*

MIEL.—Killaz gora dagola diruda txalopandi arek.

ALKATIA.—Gabeko galerrenak ez dau ondoren onik ekarriko.

MIEL.—Killaz gora dago bai. Ezin igarri lei norena izan leiken.

ALKATEA.—Gizonik eta igarten da?

MIEL.—Potiña be osta ostan.

ABADEA.—Jesus, Jesus...!! Miserere nostri, miserere nostri! Ez al da gizonetan ondamentirik agertu ta egongo!

ANDRA BAT.—*{Larri dator erritik. Arnasarik artu ezinda.* Ixildu egizuez soñuak eta! Ixildu egizuez Jaunaren ize-nian! Auxe da ondamentia. Gaurkua izango da oraindik negargarriena! Gure gizonak. Gure gizon koitaduak! Ene bada-ta!

*{Geiago eziñik jezarten da. Bere ingurura duaz geienak. Zaratea. Larrialdia danetan).*

ALKATEA.—Zer esan dabe?

ANDRA BAT.—Bermeotik esan dabe, ainbat txalopa ondatu dirala. Ez dakie zenbat. Askok. Gizon da guzti geienak. Askok, asko... Ia geienak. Eztakie zenbat.

MIEL.—Bermeotarrak bakarrik ez dira izango.

ANDRA BAT.—Ez. Elantxobetarrak be bai. Lekeitiarrak be bai. Ondarrutarrak be bai... Ondarrutarrak be bai...! Askok, askok, itxuran.

NEREUS *ets* ABADEA *ixil ixilik eleizara juaten igarriko dira. Kanpaia asten da illun illun. Jenterik geienak, eleiz barrura duaz ixilik).*

MIEL.—Gaurko eguna entzutekoa izango da ta gogoangarria. Ikusiko dozue.

ALKATEA.—Bear ba da, kezkiak eragiten dabena geiago. Lenngotan apanak izaten dira gauza guztiak, batez be itxasoetakuak. Ez dakigu gizonak beste ontzietan batu-ta egongo diran be...

MIEL.—Killaz gora dagon txalupakoak... Gertatu lei, gertatu... baiña ondarrutarra ba da kanpaiak egunetan jo bearko dau.

*{Erromesik ez da geratzen zelaian. Bakar bakarrik.*

MIEL, *gero ta arduratsuago katalejoekin itxasora begira, eta PIE ta LIÑE, makur makur, euren mai inguruetan zizpuruka, negarti, otoitzean...*

*Eleizan, erritarrak, errukitsu, AITA GUREA abestuten entzungo dira).*

A. Zubikarai

## 5 PATXIKO TA MARTINTXO

(Ume alkar-izketa)

### I

*{Patxi'k eskuetan, bi txorikume dituen kabi bat dauka}.*

PATXI.—Gaur goizean bai eiza ederra egin detala... basorik baso ta mendirik mendi ibilli ondoren, bañan aitzetian erori dira nere eskuetara bi txorikume oiek... Bai politikak dirala!

Egatzen asteko zorian zeuden oraintxe. Ta garaiez ibilli ez ba nitza, onezkero kabitik iges egin zuten. Orain jarriko ditut nere kaiolatxoan, ta lenbailen azi ta kantatzen asi ditzeten, egunero egunero jaten emango diotet.

Nere amak eta nere anaiak ikusiko ba niñuteke kabi onekin, ez litzake atsegin izango...! Beti ixildu gabe ari bai zaizkit: «Beok gero, Patxiko!, txori gaxuai gaitzik egin...! Ez gero beren kabi politikak puskatu! Txoriak etzietet iñori kalterik egiten, baizik iñun diran eltxo, ar, xomorro ta ziraun zikin kaltegarriak jaten dizkitek; eta gañera beren abesti kanta zoragarriaz alaitu ta poztu egiten gatxiotek...». Bai, alaxe da, baña...! Eta zer? Neri ere beren kanta politikak entzutea atsegin izaten zait... Kabitik puskatzen ditudala! A zer gauza orien kabiak. Txoritxo oiek egiten dituztenak baño politagoa jarriko diotet nik kaiolan barrunbean, bai!

Gaur goizean, tiragoma ta patrikara bete arri koxkorrekin etxetik atera naizenean, ikusi nau amak, eta esan dit: «Nora ua biurria? Beok gero txori gaxoai kalterik egin, e? Orain ere alprojakerien bat egiteko asmoan joango aiz, i?». Eta orain ikusiko baniñu bi txori oiekin, zer esango ote li-

rake? Txiki-txiki egingo niñuke... Lenago ere, gogoratzen zait geizi ta anpolai arrapatzera joanda, arbolaren adar aundi bat eta txori kabi bat ekarriko nituelako zortzi egunean etxetik ateratzen utzi gabe euki niñula...!

## II

{*Martintxo, barrendik*}

MARTINTXO.—{*Deika*}. Patxi...! Patxiko...!

PATXI.—Ene! Anai deika... Zer egin bear det nik orain...? Nun gordeko ote ditut txori oiek... Zatituko nau kabi onekin ikusten banau. {*Txoriak txapel-pean gorde, ta kabia lurrera botatzen du*}.

MARTIN.—Ez al dek entzun, edo zer?

PATXI.—Bai, bai... oraintzen natxioken iregana.

MARTIN.—Nun ibilli aiz oraindano? Eskolara joan gabe ta... Ona zeok ama... Dena zikinduta ago...; gaitzak ere puskatuta... eta zer tiragoma ori...? ta emen, patrikaran zertako dituk arri koskor oik?

PATXI.—{*Bildurrez*}. Bai, anai, bai... bazekiat ez dala txoririk arrapatu bear... ez dala beren kabirik puskatu bear ere...

MARTIN.—Ta...

PATXI.—Txoriak iñori gaitzik egiten ez diotela ta..., xomorro ta eltxo txar guztiak jaten dituztela ta..., bere kanta politak alaitu egiten gaituztela ta..., bazekiat...

MARTIN.—Beaz, etzaik aztu txori gaxoai bear diegun maite-tasuna, e?

PATXI.—Etxaidak aztu, ez, anai...

MARTIN.—Eta zer da, buru ortan daukaken ori?

PATXI.—Txapela.

MARTIN.—Txapela beraz? Eta bere azpian...? I beti berdiña. {*Lurrean dagoen kabi utsari begiratuaz*}. Ta kabi polit ori, nork ustu ta lurrera bota du?

PATXI.—.....?

MARTIN.—Esantzak, esan.

PATXI.—[Ikaraz]. Nik...

MARTIN.—A! Txori gaxoak ire txapelan... Etzeudek toki txarrean...!

PATXI.—Kabi ortan otzak zeudeken da..., berotzeko nere txapel-pean jarri dizkiat...

MARTIN.—Orren biotz xamurra izanda, ik...! Ostera sartu ditzak bere kabitxoan txori oiek. (*Patxi'k sartzen ditu bi txoriak kaban*). Nola etzaik gogoratzen txori gaxo ok guk bezela beren aita-amak badituela? Ez al dakik, beren kabia utsik billatzen dutenean, negarrez ta naigabez beterik geldituko dirala...? Esantzak, esan...

PATXI.—Ala dek... bañan...

MARTIN.—I ta ni galduko bagifia, gure gurasoak gure billa ibilliko lirakela pentsatzen al dek?

PATXI.—Bai... (*Umil*).

MARTIN.—Gogoratu adi, ba, txori oiek ere beren aita-amak badituela, eta onezkero or ibilliko dirala mendirik mendi negarrez eta samintasunezko txiu-txioak egiñez, beren biotzeko umetxoak ezin billaturik... Ala ere, ez aiz errukitzen...?

PATXI.—Txori oiek, nere kaiolara emango nizkiat, eta an, kabi berri polit batean jarriaz, ta jan-edan goxoak emanez, txintxo-txintxo kontu artuko zuatet.

MARTIN.—A! orretaz, kaiolan sartu, ta kabi berri baten jarri ta jan edana emanez eukitzeko asmoak al dituk?

PATXI.—Bai, orixe.

MARTIN.—Ta, ik ez al dakik txoriak, erdi gosiak egonda ere, urrezko kaiolako jan-edan guztiak baño, mendiko azkatasuna naiago dutela?

PATXI.—Bai, zera!

MARTIN.—Eta ik uste al dek ori egiñaz ongi egiten dekala?

PATXI.—Zergatik ez?

MARTIN.—Ik nai al ukek ire aita-amak beti etxean itxian sartuta eukitzea, ta naiz jaten eta edaten emanez, andik atera gabe eukitzea?

PATXI.—(*Burua makur tuta egon-aldi bat egin ondoren*).

Arrazoi dek, anai. Oraintxe antz ematen zuat txori gaxo oiei egin dietana ez dagola ondo. Nik ez diat orren biotz gogorrekoa izan nai, ez, ta txori oiek azkatasun guztian uztera natxiok. (*Ta Patxi'k, toki artako leioak iriki ta kanpora, aidean bi txoriak egan bialtzen ditu*).

MARTIN.—Bejondaikela, anai! Ederki egin dek. Ekatzak lantzan bat. (*Laztantzzen dira bi anaiak*).

(*Entzuten dauden umeai*).

Eta zuek, umetxoak, nere lagun maiteak, egunen batean txoririk arrapatu ta beren kabitxoak puskatzeko asmo txarren bat artzen ba dezue, gogoratu zaitezte orain nere anaiak ementxen egin duenetzaz.

Arbolatxoak, lore ta txoritxoak maite izaten ikasten ba dezue, biotz on eta biguñekoak zeratela erakustsiko dezute. Eta onela egiñaz, Jaungoikoak santuko zaituzte, eta zuen bizitza guztian, zuek ondo egiña etzaizute damutuko,

(*Antzerti, 1932, 7'en zenbakia, 1'go orr.*)

## 6 BETELEN MENDIKO ARTZAIA

*Jakoba, artzai gaztea.*

*Gabirel, aingerua.*

*Etsaia.*

### LENENGO AGERRALDIA

*{Illargitan, Iakoba abeslari agertzen da}*

Larre gorrian eperrak aide,

pagodietan usoak.

Uriak baiño naiago ditut

mendietako basoak.

Ardi txuri ta bildotx politak

belardietan ugari.

Jaungoikoaren begi aurrean

pake gozoan nabil ni.

Ijjjjjjjjai...! ! Aijajajaaa...! ! Au ixiltasuna! Ez da tintik ere aditzen! Eta ala ere, sutondoan edo bero-bero egongo nintzakena, ementxe egon bear, goitik bera datorren izotza artzen. Artzai izatearen ondorena...! Eta orregatik artzai izate lanbide txarra dala? Bai zera! Neguan otz apur bat eraman bear bada ere udako bero-aldietan, gozaten da, ango edo emengo larratxean etzanda lasai egoteko itzal ederra.

Beti bakarrik ibilli bear dala? Baiño Jaungoikoa adiskide izan ezkeru, ardi eta bildotsak, txori abeslari alaiak eta

nere artzainora baiño lagun zintzoagorik bai ote da? Ez gera alkerrekin batere asarretzen; ez degu beiñere burrukarik egiten...

Artzaigoa bizibide illuna dala? Gure asabetako gizonik argienak artzaiak izan ziran bada...: gure Aita Abraam artzaia izan zan; Moise gure legegillea artzai zebillen, Jaunak erri gizaren buru egin zuenean; Dabid gure errege aundiena, bere gaztaro guzian artzai ibillia zan. Eta oiek guziak baiño aundiagoa dana, Mesias agindua ere Artzaia izango omen da.

Gure aitona zarra artzai ibilli izan da; eta aren semea ere artzai dabil... eta ibilliko da... noiz arte?

Gure aitak dionez, gure Askatzaillea, gure Errege aundiena, gure esabai Jaungoikoak agindutako Mesias, laixter etortzekoa da. Eta ura daiorreanean, guziok aberatsak eta zorionekoak izango omen gera. Baiñan noiz, noiz izango ote da zorioneko egun ori? Ai biar bertan balitz...! *{Belaunikatu eta Jaungoikoari otoitz egiten dio abestuz}*:

Goietako Jaun aundia,  
gure Jabe altsua!  
Bidali, arren, guri  
Mesias agindua;  
lenbailen berri dezan  
gure erri ondatua.

## BIGARREN AGERRALDIA

*[Abestia bukatu orduko, etsaia igarotzen da zalapartaka].*

IAKOBAK.—*{Erabat izaturik}*. Ai ene! Zer zan ori? Au ikara...! *{Berealaxe, aingeru faldearen etorrera irudikatzen duelarik, argi leiñuru aundia ikusten da; eta garai berean, zerbait ereserti edo abesti adÁtuerazi diteke. Iakoba arriturik, argiari begira}*:



Ene! Ori argia! Orixe gauza ederra Betelen aldera jetxi da! Zer ote da...? Ara berriz emen beste argi bat! Aingeraen bat da noski... Zertara ote dator...?

*(Garai berean Gabirel aingerua agertzen da eta Iakoba belaunikatzen zaio).*

GABIREL AINGERUAK.—*(Abestuz)*

Aur txiki eder polita  
jaio zaitzute Belenen.  
Ariñ zoazte guziok  
Mesias ikustera.  
Aintza Jaungoiko  
gizonduari!

*(Gabirel aingerua ezkututzen da),*

#### IRUGARREN AGERRALDIA

IAKOBAK.—Au poza! Mesias gure Askatzaillea jaio da-la...! Agur, agur, nere artaldea; agur, nere txabola, agur. Mesias ikustera noa; eta bere mutil artu nai banau, ez naiz geiago etorriko; berarekin geldituko naiz.

*(Iakoba abiatzen da eta etsaia jartzen zaio aurrez-aurre; eta Iakoba, ikaraturik, atzeratu egiten da).*

Ut! Ori pizti nazkagarria! Nundik sortu ote da mutu beltz ori? *(Iakoba atzeratu orduko, etsaia ezkutatu egiten da).* Bai, bada; nik joan bear det Mesias jaio-berria ikustera... *(Berriro abiatzen da; etsaia ere berriro agertzen zaio; eta lepotik eldu eta lurrera botatzen du).* Ai, ai, ai! Ai, ene aingerua, atoz, atoz neri laguntzera- Ai, ai, ai! *(Bat-batetan Gabirel agertzen da eta etsaiak iges egiten du. Belengo estalpea agertzen da Sendi agurgarriarekin, eta Gabirel'ek abesten du):*

## LAUGARREN AGERRALDIA

GABIREL'EK:

Atoz, artzai apala;  
ona estalpea.  
Mesias Aurtxoari  
egiozu agurra,  
Jauretsi ezazu aozpez,  
maita ezazu biotzez.

*{Aingerua agertzen dalarik, lakoba belauniko jartzen da,  
ari begira; eta aren abestia bukatutakoan, estalpe ondoan  
belaunikatu ta gogotsu abesten du):*

IAKOBA'K:

Jauresten zaitut nik, Jauna,  
zeru-lurren Egillea.  
Goresten zaitut, Jainko nere Jauna,  
onesten biotz-biotzez.

Egillea: *Sabiaga*

*Aita Bonifazio Ataun*

(«Argia»-ren Egutegia, 1935, 124 orr.)

## 7 ARROS-ARTEKO ARANTZAK

(Elkar izketa)

*Irudigela:* Euskalerriko sukalde polit bat.

*Ama:* Su ondoan ardatzian.

*Alaba:* Sartuta, amaren ondoan exeriko da.

Nai, bada, beste era batera ere egin diteke,

AMA.—[*Bakarrik kantari Euskalerriko edozein eresi*].

Burua txoro txoro  
dagon bitartean,  
ezkontzen dira pranko  
zori onen ustean;  
negarrak gero datoz  
begiak betean,  
topatzean arantzak  
arrosen artean.

ALABA.—[*Atetik*]. Ama, gaur zer degu? Obari onen batzuek artu al ditu?

AMA.—Abesketan nagolako al dion ori?

ALABA.—Bai, andria; oiloa abeslari dagonian, arrautza urrutia ez omen da ta.

AMA.—Ori ala den; baño aspillan arlorik ez dagonian ere, olloak inguruan oso berritsu ibiltzen bazekiñe.

ALABA.—Ara!, goseak al dago?

AMA.—Ez, alaba, goserik etzaukanat; eta Jainkoari eskerrak eman biar zizkionagu beti laguntzen digulako, eta osasun onaz bear degun guztia ezeren utsik gabe ematen digulako.

ALABA.—(*Buruari eragiñaz*). Ezeren utsik gabe... Ezeren utsik gabe... Ama..., ori..., ori ez dakit...

AMA.—Zer? Zer bait palta al den?

ALABA.—(*Damututa*). Ezer ez. (*Amaren ondoan exeriko da*).

AMA.—Ni beintzat oraindaño uste ortan egon naun. Egia den, ire aitak uts galanta utzi zigunan, baño Jainkoak bere ondora eraman nai izan ziñan ta etsiak bizi gaitun... Baño ez, igartzen diñat beste naien bat buru orretan barabillen, esazan.

ALABA.—Nik?

AMA.—Bai, nik antz-eman diñat.

ALABA.—(*Bere artean*). Ordu ederra litzake, ba..., ezin trebetu.

AMA.—Tira, emakumea; dana dala, gogo ori agertu zan.

ALABA.—Gogo berririk agertzeko bai al daukat bada nik?

AMA.—Alperrik ukatuko den, antzeman diñat eta. Arpegia pipar-morro bat baño gorrigo jarri zain ta orrek zerbait esan nai din,

ALABA.—Igarri diran ezkerro, esango diot ba... Baño..., auxe da ba lana. Ama: zea..., orra..., lotsatu egiten naiz.

AMA.—Lotsatu? Zer bada? Gauza txarren bat al da?

ALABA.—Txarra danik ez deizkiot, beste askok egiten duten lana da beintzat eta.

AMA.—Orduan, zer den bada, oinbeste ezkutapen ibiltzeko?

ALABA.—Ezer ez, baño... auxe da ba..., orra..., jas...!, kantari esango diot bada.

AMA.—Bai, neska; eta nai baden, orkesta ta guzti.

ALABA.—

Garaiz gaztiak bear  
omen du ba igitu,  
baztertuta or gero  
ez dedin arkitu.  
Jaunak senargai onak  
aukeran baditu,  
ama, nik ez nuke nai  
neska-zar gelditu.

AMA.—Ara, ara! lagun billa al gera, alaba?

ALABA.—Ez daukat billa juan biarrik.

AMA.—Zer bada? Billatua al daukan?

ALABA.—Billatua bezela, bedorren iritzi gabe ez det aurre-ratu nai izan baño.

AMA.—Ederki egiña, alaba. Ori ez egiñak askori ekarri dizkie kalbario samiñak munduan. Ai, etorkizunaren berri jakingo balitz! ... Egiten gauza pranko egin gabe geldituko lirake. Itxu-itxuan amabi kanako atorran asko sartzen ditun eta gero txoria kaiolan bezela kanpora nai, ta ezin.

ALABA.—Ama, oinbeste estalki gabe, gauzak garbi-garbi esan bear dizkit.

AMA.—Bai, nere alaba; entzun arretaz eta gorde zure amaren aolku ta esanak: «Gazte denboran jo bata ta jo beste, beren burua ezagutu eziñik asko ibiltzen ditun, mundu guztia berai begira dagolakoan. Aizea buruan, arrosak kolkuan, miñik ez zankuan ta ibilli munduan... Baño! , egun aiek udaberriko lorak bezela joaten ditun eta ondoren etortzen den negu baltz, otz, illun eta luzea. Gazte denboran guztia arrosaz estalia iruditzen den, gero ordua joan ta arrosan artian arantzak agertzen ditun, Arrosak egun bat edo bikoak ditun, belaska belaskak, egun bateko eguzkiaren diña. Arantzak berriz igartuta ere an ikusiko ditun, geroago ta zorrotzago. Garaiaz jakingo balitz gero jakiten dana! Batek bere gogoia egiten din; gogo ori berriz aldatzeko eskubidea emango balitz...

ALABA.—Ta... ta... ama, orrekin zer esan nai du? Nik biziera berri ori artzea ez deizkio ongi, orduan? Bedorrek artu zuan bada, eta ain gaizki joan zaionik ez diot beñere entzun.

AMA.—Egia den; oso ongi joan zaidan; baño Jainkoak senar ona eta jainkozkoa eman ziralako. Biziera orregatik zer esanik etzaukanat, ezta ordia orain daramakidanagatik ere, ura bezin ona den ta...

ALABA.—Ni ez naiz, bada, bakarrik geldituko.

AMA.—Emakumia, orrekin ez diñat esan nai biziera ori ez artzeko. Jainkoak berak jarri eta bedeinkatu ta goraldua den eta Jesukristok graziaren iturri edo Sakramentuakin egin ziñan. Guztiak ez ditun moja joateko jaiio. Artu, alaba, ordu onean senarra...

ALABA.—Jesus, ama! ... Alare, alare... Uste nuan nik...

AMA.—...baño, begira...

ALABA.—Zer? Ezetzen bat berriz ere?

AMA.—Ezetzik ez. Baño, alaba, (*indartsu*) baietz nola-nai ez eman. Nun ta nola ta zeñekin abillen aurrez ondo jakin ta atera itz ori. Ernai ibilli, itz ori oso galestia den da. Nolanaike alproja eta maleta oker eta bigurri bati bein itza ematen badion, itz orixe izango den ire biotza bizitza guztian zulatuko duen arantza beltza,

ALABA.—Ainbeste arreta, beaz.

AMA.—Bai, noski. Geiegi dioala uste al den? Banaka batzuek ezagutzen dizkiñat, gurasoen esanari par egin ta, beren gogoia egin zutenak. Gero bizitza zoriontsu eta atsegiña arkitzea uste zuten tokian, gurutze astun eta mingarria topatu ziñenan, uste etzuten zakurrak zaunka egin bai zien.

ALABA.—Baa! Itxu-itxuan lenengo topatu zutenakin ezkonduko ziran ta. Begi ona ta argia izan balute, etzitzaien ori gertatuko. Ama, ni ez naute ain erraz atzipetuko, ez daukat gero nik, eta betaurreko gabe gauzak ederki ikusten ditut,

AMA.—Ai, nere alaba! Diz-diz egiten duan guztia urrea ez da gero. Begiak erraz atzipetzen dira gaur. Begiaz ikusten danari bakarrik begirutzen badion, uste gabeko epurdikoa eramango den.

ALABA.—Ene, bada...

AMA.—Kanpotik oso itxura ona duten askoren asmo galduak ezagutzen asten bagera, igarriko dion berealaxe, batzuek apain-apain jarrita, beren burua saldu eziñik dabilzala, zamuka edo albarda berriaz estalita saltzera eraman oi dan asto zarra bezela. Beste batzuek jolas astun eta lizunak bakarrik nai dituztela; eta beste alper upel-

zale asko, berriz, emaztearen bizkar bizi naiean.. Eta ia itzegiten jarri... Aien aboan eztia izango den. Gauza txiki eta txarrik ez ditzen esango, ez. Bere aita ez dakit nungo *Diputadu* edo *Gobernadore*; bere ama izen aundiko jatorria duana. Osaben bat Buenos Aires'en dan kalerik aundiena berea duana. Bere anai-arrebak bizpide eta irabazpide aundietan jarriak... eta oen antzeko beste barrua utsa duten gauza aundiak esan ondoren, belarriaren er-tzera esango ditzen: «Nere maitetxo, gaur adurrez ezkerreko sakelan dirurik ez det, eskubikoan ere ez, eta maiten nazun agiritzat lau-errialeko *puru* bat atsegiñak eman biar didazu.

ALABA.—Ja, ja, ja, ja... Baño, ama, ze amets dira oiek? Ni orrelakoen eskuetan erortzeko arriskoa nagola uste al du?

AMA.—Zer, bada? Zergatik ez?

ALABA.—Zergatik ez? Oste aundi oiek nere zale diralakoa al dago berriz bedorri?

AMA.—Aundiak, e? A gaxoa! Sudurpeko luzia, xerrenda edo korbata apaiña; zillarrezko estuntza edo katea eta oñetako politikak jarri ezkerro, bat *aundia*, e? Etzegon zalla... Ez, alaba, ez. Tximua sedaz jantzi arren, tximua beti tximu den.

ALABA.—Bapoa dek *bersua*...

AMA.—Gañera, beragoko mailan arriskorik ez dagolakoan al ago? Or ere gauz aundiak agintzen dituztenak baditun. Lanian berak bezela iñork ez dakila; irabazia amabostian ogei, ogetamar *duro*, eta guztia txintxo-txintxo emaztiarentzat izango dala. Eta gero? Gero jakiña, igandia *jai*, astelena ere *bai*, asteartire *nai*, asteazkena, ai!, osteguna *zai*, ostirala *usai*, larunbatian *sablazo* andrearen *diruai*.

ALABA.—Jo, jou...!

AMA.—Irabazi-unen batzuek dituztenian, berriz, guztia berretzat eta irea erdibana. Gero etxia, umiak, guraso sarrrak, soñeko jantziak eta beste milla gauza ire bizkar. Eta erruki aut guztiak txukun ez badaude, batez ere

lantegilik txapelan aragi erriakin datorrenian, arri jasa ire gañean eroriko den.

ALABA.—Tira, tira, ama, bedorri ni ikaratzeagatik ari da, ainbeste ez da izango.

AMA.—Ainbeste? Ai, alaba!, geiegi nai dizut ez diran gauzakin zu bildurtzeko.

ALABA.—Ez dakit bada nik...

AMA.—Ezer ez diñat esan oraindik. Ikustekoa den gizon moskor, jokalaria... perizale baten bizitza. Etxian diranak eta ez diranak jan, semealabak beartasunik lotsagarrienian ondatu; auzoko guztiakin beñere ordainduko ez diran zorrak egin, lagun arteko izen ona ia betiko galdu... eta guztia batian esateko, bere buruakin edo irekin eriotza edo onen antzeko beste gaizbiden bat noiz artuko duen bildurrez bizi biar... Bidegabeko mundu nastu onetan iñork asko ez dakila amaika *martiri* bizi den...

ALABA.—Jesus eta Arantzazuko nere Ama! Esanak bakarrik ezurretaraño dardar egin azten dit. Ez dezala nai Jainkoak ni orlakoen eskuetan erortzea.

AMA.—Arrisko aundian ago. Asko ditun gaur zalantza orretan ez jartzeagatik, Kristo bakarrik lagun dutela ezkutan bizi diranak. Nik ez aut beartuko; aukera edorrek egin, baño gauzak buruan ondo zertuta.

ALABA.—Nola asi biar det bada, ama?

AMA.—Ara... Senargai ona billatzeko iru gauza egin biar ditun: Bata, Jaungoikoa askotan billatu; arrisko aundiko uniak ditun eta bere laguntza ordu ero biar den. Bigarren, Jainkoak bere orde z jarririk dauzkan gizon oiekin galdekatu. Gizonen biotza azaletik ez ezik barrendik ere ongi oiek ezagutzen diten. Irugarren berriz, diru, edertasun eta axaleko maitasunari ez begiratu, ori guztia egun bateko den ta. Begira zintzogo: onbide askokoa dan; okerrerako oiturik duen; etxekoia dan; bildua edo erretiratua gauetan beinzat; ardoetxe edo jolastokiak eleizak baño geiago ikusten. Begira batez ere zer irakurtzen duan eta zer lagun-arte dauzkan. Gaur bat ezagutzeko au den biderik laburren eta zuzenena. Emen zabarra dan



gurasoak ez dezala ondorengorik izan, inpernurako izango dituzken ta.

ALABA.—Gauz ederrak dira oiek, ama, benetan, baña...

AMA.—Ze baña ta ze maña...? Izakera zuzen oietako senarra billatzen baden, iretzat aingeru izango den; orlakoa ez izatekotan, *neska zar* obe den.

ALABA.—Alderdi on oiek guztiak beteko dituen gizasemeak ez dakit nik arkituko dedan, ama.

AMA.—Ez den erraza, nere alaba. Ernai, oso ernai ibilli. *Jainkozko senarra edo neska zar; bietan aukera.*

ALABA.—Amaaa!

AMA.—Nai baden aita... eta... orain asko diñau; zerbait esan diñat gogoan jaso nai baden. Eta bukatzeko, emen barru-barruan daukadan iritzi bat iri eta oiei itz neurtu batian agertuko dizutet.

ALABA.—Ia, ia...

AMA.—

Gaztiak! Ez nola nai  
artu gaur senarrak,  
gertatzen dira gero  
alproja xamarrak:  
berak onenak janta  
andriak ondarrak,  
obeki bizi dira  
beintzat *neska zarrak*.

*Ikas-zak*

(«Argia»ren Egutegia, 1925, 89 orr.).

## 8 ANTON BERAKATZ

*{Irurogei urte inguru dauzan gizona, gaurko baserritar-  
rrak oi daben lez jantzita. Eskuan darua adaki me luzetxua,  
aberiak eragiteko erabilli oi dan lakua, ta bertan bilduta  
soka meia, aberiak lotutekua. Iruditegiak darakus baserri-  
ko etxe ostia. Eskuma aldetik dator Anton, astiro).*

—Andrie urire juan da, ta, ondio mutikue ezta zati baten etorriko. Ointxe neure gordelekuen sartu bier dodaz neure dirubok... iñor etorri orduko.

A ixen da txal bat! Iño! ... lodi, bete-betien; ulie txikerra ta sarratu-sarratue, txingerra lakoxe gorrije, birrist! argi eiten ixen dautso.... a lako abere gitxi argitu da an bere klasien da bere tertzijuen... jentiek ondo begituten izen dautso Bilbo'ko kalien Mataderijantza eruen doanien.

Salde be... ondo saldu dot. An ibilli yataz karnazeruak eskiñike alkarren leian; beie nik arixi karnazeru Okotz-bixer'i emoutset bardiñean, lendik be ezaune dot eta gamera euzkeldun zintzo, baserritarren aizkide ta maitekorra dalako. Bai, arixi emoutset.

Ondo pagaust. Otamasaspi erriel erraldeko ezta prezio txarra gaur egunien. Txalak euki ditu amazortzi erralde... ez ete dogu erratu kontuen?... Ia, ia... ia. Ogei erralde euki ba'litu, ixengo ziren otamasaspi ogerleko... bai ba, ogei bider otamasaspi, otamasaspi ogeiko. Bale amazortzi ixen dien lez, otamasaspi birriten edo iruotamalau errial kendu bier; iru ogerleko ta amalau erriel kendu bier otamasaspi ogerlekotik, Iru kenduizuz, orra otamalau; oin amalau erriel kenduizuz ta gelditxen die otamairu ogerleko ta sei erriel. *{Ziskubari begiratuta}* egin-egiñek! Ondo dao kontue, bai,

Oin, otamar ogerleko gorde bier dodaz neure sabijen. Mutikuek, zuluén baten, ira arrien edo lasto arrien sagarak iminten dabez umau-umau egin arte antxe eukiteko, ta sagar-gordeleku orri *sabije* deitzen dautse.

Ba, nik be *sabije* ein dot neure dirubek gordeta eukiteko. Burdiñezko kajatxo baten daukoaz nun daon, bein arrije atzera imiñi ezketiño.

Ai neure sabije! Lenau, amabi milla erriel pasautxo neukezan... A zan, a, dirutzie!... ondo kostata!... amaika ixerd. amaika aixe otz, amaika busti-aldi, amaika neke paseu genduzen atsuek eta bijok, arrastaka beti bierrien...!

Baie geruen danak atara bier ixen nebazan. Etzan bape gelditu; lurre jota gelditu giñien. Seme nagusije or erre-konduen dauen lexarra lakoxe mutil sendo ta arteza... gogoratuta be bijotza erdibitu eiten yat. Mutil gixajue soldao eruen euskuben, bere bierrixenik geien geunkenien. Arrano gorri bat! soldau! Mendiganetako aixie baxen libre beti ixen garien euzkeldunei soldautzako legie ezarri! ... ta ixillik!... ta geldi!... au zelan ixen da? Alkarren kontra banandute genbixelako imiñi ta lotu euskuben buzarrije...! Ez, errekonde! geure-geurie dan gauzie bakarrik zaintzeko alkarregaz ondo batute egon ba'giñe. Auxe ein-go ba'gendu... ondiño be...!

Soldadu erueben, ba, gixajue ta urte pare baten ostien etorri zan etxera gogoz ta gorputzez galdute: jun zan mutillen gerixie be etzan Gogue, zorionez, azaletik bakarrik euken galdute, ta geure artien laster ein zan lengue: on uts gixajo, Jaungoikuen bildurdune. Gorputzeko gatxa ezin ixen geuntson kendu; urtebete inguru pelieu gendun, baie azkanien erueban Jainkua'k... Zeruen ixen deilla.

Amaika gastu eragin euskun; neure sabijoi ondo urritu yatan; damu eztot baie, semien alde, ba, neure bixijau pozik emongo neban da... Ondo daki Jauna'k, olantxe eskatu neutsan da. Gerotxuau alabie ezkondu gendun, eta ordubantxe neure gordeleku au gelditu zan ezebe barik.

Etxien gelditu giñien atsue ta bijok mutiko gastiaz, txanpontxu triste bat lagun ezkendubela. Á zan lorra!

Baie, gixona dan gixona, esturaldijetan ezautzen da, negarrak alde batera itxite, asi nintzen barrira lanien sendo, ta piska-piskaka, lan ta lan, dirube aurreztuten be bai... gure mutikotxubek. gure kutun, gure ondakintxu orrek be biedau zeozer. Eun ogerlekoraño baukoaz batute. Jaune'k osasunaz laguntzen ba'dausku, ur-azalera ataraku burube, baite ibilli ta ibilli basterrera jo ta urten be.

Oin sartu daidazan otamar ogerlekotxubok, eta orra eun da otamar ogerleko, neure sabi orretan... Dirube da gero!... bauket poz bat euki!... iño!

*{Sartzen da ezker aldetik eta lastertxe agertzen da arinarin zoratuta lez artega la larri).*

—Ai, ene bada ta ni!... Ai, nire errukarije! ... Oin zetarako naz ni munduben?... Neure Jaungoiko laztan, Aite ta Seme ta Espiritu Santube, Ama Birkiñe bijotz-bera ta errukiorra, neure ixeneko Santu Antonio Miraritsube, ra Zeruko Santu-Santa gustijek...! Arren!! Erruki zakidaze ta lagundu nagixube neure ordu gorri ta larri onetan! ... Zein txakur ixen da nik or ain ondo gorderik neukan okela-zatije susmau dauna?... Nor arraio... bai... nor milla arraio ixen ete da niri emendik diru biribil polit ederrak ostu daustezana?... Ainbeste urtetan apurke-apurke ta nekien nekez aurrezturiko eun ogerleko zuri-ederrak, nun ete zagoze?... Esakeria da osturiko gauzie bere jabien dei oten dala... baie nik eztantzut iñundik be deirik...! ai ba'nentzu! ... laster niñuake zubekana, ogerleko maitiok, ollo lokia bere txitekana baxen agudo...! Milla ta bosteun tximistak birrinduko al abe lapur deunga zital madara-madarikatu ori...

*{Zizpuru andi bat eginda, bai dua astiro astiro arri batera, bertan jezarteko; ataraten dau praka-sakeletik tabakontzija eskumako ankea luze-luze ipiñita; zabaldu berau ta artu barrutik zigorro-ingi-txorta okertu ta tximurtu bat, kendu oni orri bat eta ezpanetik dingiliz ipinten dau; itxuli gero ezkerreko eskura zigarro batentzako lain tabako, ta ganian eskumako eskuba jarrita, erabilten dauz bijak erro-tarrijen antzera; gero biribiltzen dau zigarro lodi-lodija;*

*beriala ezkerreko praka-sakeletik ataraten dauz ardaia, gal-tzairua ta subarrija, ta kaisk eta kaisk apur baten ibillita, ixitxen dau ardaia ta onegaz zigarrua pautadaka, musturra luze-luze eginda. Gordetan dauz tresna gustijak, eta besuak belaun ganetan gurutzetuta ipiñi ta zatitxo baten geldi dago, ke-moltso andijak ataraten dautsozala zigarruari. Esan dogun gusti au dagidan bitartian auxe esaten diñardu berekautan:)*

—Zoritzarreko nire arazo au ezta zarataka zuzendutekue... ixil-ixillik eta bestelabaitakuen atrapa bier da, atrapatekotan! ! nire dirubekana eldu dan azeri zarra... Nor ixen ete da?... Batek baki!... Baie... un!... eingo neuke oixe geure alboko belarri motza ixen dala... demoniño gorri bat!... orixe ixengo da, bai!... orren etzeko tellatupeko leio txikitik agiri da nik dirube gordetan ixen dodan tokije!... iñoz ikusi eingo ninduben arranu orrek! arrije orman kendu ta ogerlekoren batzuk ipinten... bai! beoi da... beroi da bai... seguru! ...

*{Azkenengo itxok esatiaz batera geratuko da besuak belaun ganetan kurutzetuta zigarrua erreten. Arraioren bat edo beste agin artian lez esanda, urrumada bat egiten dau, ta diño):*

—Baie... enintxekek Anton Berakatz ixengo, azeri ori arrapauko ezpañok...

*{Au esatiaz batera jagiten da ta belarrimotzaren etxera begira bai-diño:)*

—Ikusiko yuau, ba, nor nor garien...

*(Bai dua eskuma aldetik. Jasten da estalgila ta, barriro jasoten danian, agiriko da iruditokijan etxe-ate bat, eta ate onduan sillan jezarrita gixon argal baltzunga bat, maukutsik, zigarrua ezpanian, izparringi bat belaun ganian, eta gelditxo edo azpinitxo onetara abestuten:)*

—Anda iciendo tu madre  
que soy mal trebajaor;  
ile que vivo sin rentas  
y no soy dengún ladrón,

{Abesti au amaitzen danian agertzen da Anton Berakatz, silla bat eskuen daruala, ta berau lurrian itxita, ¿ezar-ten da:}

—Kaixio, Txantxes, gau-arro ederra dago.

—Ola, Berakatz, ederra gaba.

—Eta... zer diñoe, ba, papelok?

—Gitxi gauza. Bilbo'n bankero bat egin kiebra, eskapau Amerikara palmo bat sur itxi akredoriak.

—Artzekodunek ago bete agiñegaz geratu dirala esan gurozu, ezta?

—Bai, ori.

—Enindukie neu arrapauko orretaiko banko ta droge-tan; ez, dirube noberak gorde.

—Bilbo'ko edo España'ko banko edo *Caja de Ahorros* ez euki bildur, gixona.

—Bai, Txantxes, norberak eukitie da onena, ez deritxozu?

—An be seguru egon, eta ademas, interesa artu; etxian lapurra sartu ta...

—Ez euki etxien!, beste leku baten baño. Nik neuk beintzat aurreztu ixen al doxan diru-apurre ondo gordeta dauket, iñok jakin ezin leiken tokitxo baten.

—Bai? Asko dirua, e, Berakatz? {*Este no sabe todavía que...*}.

—Ez asko be, ba. Zeugaz bauket konpijientzie ta agaitik esangotzut eun ogerleko daukuazala toki orretan. Lengo egunian salduiko txalen ogetamar ta piku ogerlekuek be bijer kobrauko doaz ta antxe ipiñi bier doaz. Korriduik eztot artuko, baie arduraik be eztust, banko baten ipiñi ta gero... korridu barik eta diru barik geratuko ete nindeken bildurrez lorik be eneuke eingo ta...

—Bai, Berakatz, asko errazoa euki zu. {*Rediez, hay que animarle*}. Poblaziñoetan pillo asko egon, aldeanuak engañau, atara diruba, esan interesa emon, gero dana artu dozu eurentzat, egin kiebra ta bapez itxi zuri. Bai, Anton, gorde ondo diruba {*para mí*}.

—Bai, ba; urtiek dire ije asi nintxela dirube gordetan olantxe... ta bijer edo etzi txalen ogerlekuek ipinten juen-go nazan lez, iñoz diru-zati bat ipinteko nuenien bakarrik begiretuten deutset; nasai-nasai dauket olan neure berrue, ezeren bildur barik, seguru dauelako.

—Zu ixan gizon listo; ondo egin ori. Bien, Berakatxa. (*Jagiten da*). Oin ni ogera juan. Agur.

—Zuaz ondo.

[*Sartzen da Txantxes etxian eta barruban abestuten dau zoli-zoli: Anda kiendo tu madre... Anton Berakatx, sillia eskuban artuta, begira dago aren etxeruntz irribarreka, ta diño:*)]

—Pozik abil arraiori... jausi biok urrian...

(*Ba-dua eskumaldetik eta estalgija jasten da. Berriro beriala jasoten danian, agiriko da lenengoko iruditegijan, baserri etxe ostia. Eskumatik agertzen da Txantxes, alde gusti-jetara begira*):

—Entavía no san elevantao. Vi a poneile los cien duretes pa cogerle tamién los otros del ternero.

(*Bai-dua ezkerretik eta atzera dator arin, eta eskumatik dua esaten*):

—Vaya que va a ser mínimo el chasco que se va a llevar este tío palurdo la primer vez que venga a su esconderite endepués de que yo me lleve al gato.

[*Barreka dua lengo lekutik eta beriala agertzen da Anton arpegi argi-argijaz*):

—Aserije goixetik ibilli da, baie goixetik ibilli arren, ikusiduz bere ibillerak...

(*Sartzen da ezkerretik eta bigurtzen da burdiñezko kutxa bategaz, poz-pozik, erdi dantzan eta saltoka*):

—Aupa! ! Au dok poza! ! Emen dagoz eun ogerleku-ek...! Bai bai, txalen dirube; arrapetiarren, txatxu orrek or itxi daustaz ostu ebazanak. Listue dala uste dau bere burube; gu ezkerala asto batzuk baño; baie bart ze polito sartu nutsan zirije; oso-osorik irunsi eban, eta bota ditu atzera lenguek.

Euzkeldunek ei gara  
astaputz kirtenak,  
ta erdeldunak barriz  
jakitun urtenak:  
asko dira orixe  
esaten dabenak;  
baña uste orregaz  
datorkiguzenak  
lepuen artzen dabez  
sarritan eurenak.  
Eztaukuz, egija da,  
euren min labanak,  
baña bai ondo zoli  
geure adimenak.  
Orain banua ba ta...  
agur, euzkeldunak!

*Bustintza'tar Ebaista*

(EUKADI aldizkaria, 1914'ko Garilla, 113 orr.).



## 9 AITA-SEMEAK

(Alkar-izketa)

{Zugatz donetsia dogu euskaldunok Gernika'n. Oneri buruz amaika eresi, kanta ta irakurgai eder egiñak ditugu. Aita-semeon autu au be, gozo ta jakingarria dogu).

SEMEA.—Aita.

AITA.—Zer dek?

SEMEA.—Gernika'ko Arbola, arbola al da?

AITA.—Ez!, zera izango dek: aitzurra; eta i aitzur orren kirtena.

SEMEA.—Nola esaten dute, Iparragirre'k asmatu zuela *Gernika'ko Arbola*?

AITA.—Etzuen ark, ez iñork asmatu. Jainkoak nai izan zuen Lumo edo Luno deritzaion Bizkai-baserri edo ergoien txiki batean norbaitek aritz-landara bat sartzea. Gero, gizonak aundikitzen diranean, txapela kendu ta kapela buruan ipintzen duen bezela, Euskalerrria asi zan baserriai kapelak ipintzen. Kapela auek izan ziran erderazko *villak*. Villa auen neurria Logroño'tik eta Haro'tik eta or beko erri likitsu oetatik bialdu ziguten, eta gure aundiak pozarren. Onelan jaio izan zan Gernika deritzaion uria ere. Eta ez al dakik zer egiten dion zakur aundiak txikiari, onek aboan ezurren bat duenean? *Grausk* orzkatu, ezurra kendu ta or konpon! Onelaxe egin zion Gernika'k len esan dedan Lumo'ri. Eta Lumo'ko Aritz eder orreri Gernika'ko arbola esaten zaio geroztikan.

SEMEA.—Neri esan didate Iparragirre'k asmatu zuela.

AITA.—Iparragirre'k bertso edo neurtitz batzuek egin ziozkan Aritzari, ta Donostia'ko Manterola izendatzen zan euskaldun izkribalari jakintsu batek liburu eder batean dio, Iparragirre'ren bertso oiei Altuna Durango ondoko musikalaria batek ezarri ziola soiñua.

SEMEA.—Ta zertarako egin zuten ori?

AITA.—Mundua mundu dan artean, txoriak txorro-txio egiten duen bezela, euskaldunak eresi ta kantatu dezaten.

SEMEA.—Ez al zaigu aurreago aztuko?

AITA.—Aztu? Buruan dauden gauzak, aisa aztutzen zaizkigu; baiño biotz barren-barrenean daudenak ez.

SEMEA.—Biotzean nork sartu digu, ordea?

AITA.—Jainkoak. Gernika'ko arbola, esan ditan len, zer dan; baiño ez nai nuen bezela. Lumo'ko aritz bat dek eta gaiñera Iparragirre'ren eresia. Baiño aritz ortan ez adi kabi billa edo itzala nairik asi, eresi ortan eztezakala armoniarik billatu.

SEMEA.—Arbola baten, jateko gauzik ezpadu, zer nai du billatzea, itzala ta kabiak eta ostoak eta ezkurak ezik?

AITA.—Gernika'koan euskaldun guziak egin bear degu kabi bat. Ez al dek aditzen?

SEMEA.—Itzak, bai; baiño besterik ez.

AITA.—Nik eztiat, seme, ondasun aundirik, urrezko ondasunik beintzat, utziko; baiño ire zaiñetan euskaldun odola, nere odola, nere gurasoen odola, gizonak izan lezakean odol gorriena ta garbiena dek. Ori zikintzen ba'dek, eztezakala esan iñoiz euskaldun baten semea aizela.

SEMEA.—Zer du zer-ikusi gure odolak Gernika'ko arbolarekin?

AITA.—Beste zugatz edo arbola guziak bizi dituk odeietako urarekin. Gernika'ko arbola, berriz, egiatzko izango baldin bada, euskaldun guzien maitetasunarekin bizitekoa dek. Euskaldunen biotzak ixillak daudenean, obe litekek Madrildik etorrikako aizkolariak oiñ-oiñetik ebakitzea.

SEMEA.—Aita: uste det eztezula (zuk saten didazu, *berori* ez esateko, *zu* baizik, eta ala *zu* esango dizut), nik uste det gaur eztidazula beste egunetan bezela itz egiten.

AITA.—Ez al dakik gaur zein egun dan?

SEMEA.—Gaur, osteguna. Ostegun gizen balitza, nere poza!

AITA.—Ostegun argal dek gaurkoa. Gaur ogei ta bi urte euskaldunak eman zuen lege batek gure zugatz edo arbola maitea azken asnasetan ipiñi zuen.

SEMEA.—Zergaitik? Zertarako?

AITA.—Zergaitik? Ez uke adituko. Zertarako?, euskaldunak erdalduntzearren, bat izateko jaio ezkiñanak batu edo biltzeko, gure odola zikintzeko, gure biotza naigabez ta gure Erri au zorigaitzez eta gure mendiak oiuz, antsiz, uluz betetzeko.

SEMEA.—Legeak paperetan ez al dira ezarritzen? Papera urratu ezker, legeari ere puska aundirik ez litzakioke geldituko.

AITA.—Egia dek ori. Baiño urratzeko gogorik badek? Kemenik? Gaurko euskaldunak, askok beintzat edo itzik geiena egiten dutenak, besoetan baiño mingaiñean indar geiago dute.

SEMEA.—Paper bat urratzeko indar aundia bear al da?

AITA.—Nola dan ori ere. Lege-paperak, gure Lege zarraren antzeko legeenak, luzaro irauten dute. Lege-paper oiek batzuek izaten dituk suarria bezelako gogorrak, beste batzuek Idiazabal'go gazta beltzaren irudikoak, beste batzuek eskaleen soiñekoan gisako erdi-zulatu erdi-liztuak; beste batzuek, berriz, zigarro paper bustia diruditenak.

SEMEA.—Eta gure Lege Zarra azken asnasetan ipiñi zuen erdaldunen lege berri ori, noiakoa da?

AITA.—Lenbizian, Moises'ek Sinai'ko menditik ekarririkako Legea bezela arrízkoa zirudien euskaldun askoren begietan; gaur zigarro paper bustia bezelakoa ezpada, eztabil urruti.

SEMEA.—Eta zer da egin bear deguna?

AITA.—Etxeko zokoetan armiarma sarea dagoenean, zer egiten dek? Mendira kali-billa joaten aizenean, bidean ota arantzadunak ibiltzen eragozten dutenean, zer egiten dek?

—Apal-ordua dek, eta guazemak aparitara.

*R. M. Azkue*

(«Euskalzale» asterokoa, 1898, 232 orr.).

## 10 «LAÑO» TA «IZAR»

(Ipui antzezgarria)

### I

ANTZEZTOKIA: *Landa, Illu-abar*. LENENGO IKUSGAIA (*linterna-plaka*): *ortzian izar eder bat, azpian odei gorritzta dua-la*. IPURTARGIAK: *or-emenka, inguruko sasi-larretan*. NEXKA-MUTIKO TALDEA: *zapia jasotzerakoan, margo-izpi aulez erdi-argitu ta nabarmenduak, zortzi bat nexka ta beste ainbeste mutiko, artxai ta artxai-andre jantzian*. ORKESTAZ TA ABES-TIZ: *zapia jasotzeaz bat orkestak laguntzen diela ekin bekiote nexka-mutikoek «Artizarra zeruan» abesten:*

NESKA-MUTIKO TALDEA.—

Artizarra zeruan  
agertzen danean,  
ipurtargia ere  
izar da lurrean.  
O, zein eder, goikoa  
ba'gendu mendean:  
odei gorritzta ortan  
bil genezakean! ...  
Ipurtargia ar zagun (bi aldiz),  
besterik ezean.

(*Orkesta utsak jarrai bezakio. Dantza-antxean urbildu bitez nexka-mutikoak inguru-sasietara. Ipurtargiak atzitu bezatoz berriro erdira, eresiarene ariora argiok darabilkitelarik*).

*{Ortots larria {acordes-trueno), orkestak. Argitu bedi antzetzokia, tximistaz bezela, bat-bateko. MAITAGARRI BAT agertu bedi, atzetik, bekokian izar urdiña duala. Betor aurrera, txikiek, agurka, bide-egiñaz, esku-argiak luzatzen dizkio tela).*

MAITAGARRIAK.—Gabon, maiteok. Zuen ots gozo orrek erakarri nau basotik. Arrigarria! Gaur dan egunean, euskal-kanta zaarrik dakiten umeak!... Nortzu zaituet, ba, aingeri eder oiek?

MUTIKO BATEK.—*{Lengoan). I ni baiño aundiago aiz!*

NEXKA BATEK.—*{Aldamenekoari). Au ez den errikoa...*

BESTE NEXKA BATEK.—*Enee, ez! Olako andre apañik...!*

MAITAGARRIAK.—*Etzerate ausartzen? Ez bildur izan. Maitagarri bat nazue: eztizuet ezer txarrik egingo... Ia! Ik, txikien orrek, esango diak: nortzu zerate?*

GUZIEK.—*{Parre-purrustaka). Enee...! Pololooo...!!*

POLOLO'K.—*{Urrats bat aurrera). Andrea: euskaldun jatorren aurrak gaituzu. Argatik dakigu euzkeraz; argatik ere, euskal-kanta eder-askoak...*

MAITAGARRIAK.—*Ederki, Potolo maxail-gorri! Txalo Poto-lo'ri, ta txalo bere lagunei!... Baña orain, esadazute: abesti zaar gozo oiek nork asmatuak diran ba al dakizue?*

NEXKA BATEK.—*Gure erriko Maitoni zaarak, andrea! {Mutille k, par-algara aundia).*

MUTIKO BATEK.—*Tuntuna aiena! ... Ez, andrea, ez: Elizako organista jaunak! {Nexkaen parre-algara aundiagoa).*

MAITAGARRIAK.—*Ez dezute asmatu: ez nexkaak eta ez mutillok. Ik bai ote dakik, Potolo, ain jakintsu aizen orrek?*

POTOLO'K.—*{Buruari azka, lotsatu-askirik). Nik,... egia esan,... orrenbeste ez dakit, andrea...*

MAITAGARRIAK.—*Ez?... Exeri, ba, guziok, eta nik esango dizuet ipui bat..., ederragoa! {Txiki guzik exeri bitez lurrean). Ikusten al dituzue zeruan izar eder ura, ta beean, laño gorrixta bat?... Oietxen ipuia esan nai di-*

zuet, ba: «Laño» ta «Izar»-en ipuia, alegia. Bein bai omen ziran, orain millaka urte, zuek bezelakoxe anai-arrebatxo bi... Gau ta egun mendirik-mendi zebiltzan. Ara! bertan agertu... *{Bigarren argi-irudia} {linterna}: {Laño ta «Izar» mendimendi}*.

NEXKA-MUTIKOEK.—Oooooiii! !... *{Esku-argiak ikusgaiari zuzenduz}*.

MAITAGARRIAK.—Mutikoak «Laño» zun izena: nexkaak, «Izar». Atariz-atari —naiz baserri, naiz torre-etxe— alkarrekin kantatzea zuten bizimodua. Amaika sagar eder, amaika lukainka gorri, ta txerriki gozo, ta ollanda zuri, ta gazta guri... sartzen zituen aiek zorro aundi batean! *{Nexka-mutikoei begiak bizibiltzen zazkie}*. Bañan,... *{Orkestak, ukaldi labur bat}, {asorde preliminar}*... entzun, entzun, «Laño» ta «Izar» kantari. («NIK BADUT MAITEÑO BAT» urrutian, *bik abestua, beetik orkestak laguntzen diela. Bigarrenean nexka-mutiko guziek abestu bezate, abestiaren ariora esku-argiak darabilzkitelarik. Ixil-unea. Berrira guziak Maitagarriarengana adi*). Beñola... jauregi eder batean ateetara ziralarik... *{Iruigarren argi-irudia} {linterna}: Jauregi aurrean*).

NEXKA-MUTIKOEK.—Ooofiii! *{Leen bezela}*.

MAITAGARRIAK.—Bertan erregin gazte eder bat gaixorik zegoala jakin zuten... Oro gaixorik eze, etsai zital batek begizkoa egiñik baitzegoan. Orduan —adiskide bai ninduten— badatozkit basora galdezka, ia erregiña iñola sendatu al ziteken... Nik, baietz: baña, artarako, «Lezebeltz»-eko dragoi izugarria...

POTOLO'K.—*{Lurretik jaikiaz}*. Andrea: Gure aitak «irantsugea» esaten du, ta ez «dragoia»...

NEXKA-MUTIKOEK.—Txissst! ! ! ...

MAITAGARRIAK.—*{Parre-algaraz}*. Bai?... Ondo zeok, Poto-lo... «Irantsuge» esan zagun, ba... Izan ere, oraingo umeok badakizute gauzez! Lezebeltz'eko irantsugea, ba, il bear zutela esan nien: ta aren beazuna erregiñari janarazi. «Laño»-k bereala, baietz: berak ilko zuala! *{Lauigarren argi-irudia} {linterna}: Zillarrezko aizkorez*). Eman

diot, bada, zillarrezko aizkora zorrotz bat, eta an abiatu dezute bildur aundirik gabe, Lezebeltz'erako bidean barrrena, «Izar» lagun zuala. Ni ta beste maitagarri asko, aiek oartu gabe, atzetik jarraika ginjoazkien. Ontan, eldu gera Lezebeltz'era. (*Bosgarren argi-irudia: Lezebeltz*).  
NEXKA-MUTIKOEK.—Oooiii! (*Leenetan bezela*).

MAITAGARRIAK.—Dragoia... (Ai!, «irantsugea»... Barkatu, Potolo), esnatu-berria zan. Irten digu bidera... Ai, ai, ene! Ango iskanbilla larria, ango burruka gaitza! ! Gogoratu utsak zoratu-arazi bear nauela uste! ... (*Eresi naasi antzekorra jo lezake orkeskak, azpitik, maitagarriak liskarra edestu bitartean. Txikiak urduri ta gero ta adia-go*). Sartu zaio arin «Laño»... Jo irantsugea aizkoraz, ta jas! larru lakarrean irrista... Altxa da erdika pizti zital ura, sabel nardagarri gañean, ta... —Jainkoa bezak lagun, maite!— erpe zorrotzaz atzitu dio iztarra, ta goitik beera urratu... Baña, mutillari,... bost ajola! ... Amorru aundiagoz an dijoakio berriro... Zanko giarren gañean luzatu du gorpuztxoa, luzatu, luzaatu...! Gorputzgañetik, besoak goitu ditu, aizkorari itsatsita... Ta, alako batean,... dzast! aizeari txistu eragiten ziola, orra amildu bat-batean aizkora, irantsugeari kaska-azurra autsi, ta zillarra lurpean ezkutatu arteraño! (*Seigarren argi-irudia: «Laño» garalle*). Ta, orra non dezuten irantsugea burutik lurrari josita, isats kozkorduna azken-larriez astintzen!

NEXKA-MUTIKOEK.—(*Poz aundiaz lurretik jeikiaz*). Gora «Laño»! Gora, gora, goraaa!!... (*Ezpata-dantza mutillek, erdian, nexkaak inguruan, esku-argiak goruntzditutela. ingurutxoa, bereala, guziek alkarrekin. Orkestak lagunduta. Bat-batean, orkestak ostots bat. Zazpigarren argi-irudia: «Laño» ilda «Izar» negarrez. Txikiak geldi. Il-eresi laburra: (il-eresi ori egin diteke, «Nik badut maitaño bat»-en bigarren zatia zerbait ukitu ta «tono menor» dalakora biurtuz*).

MAITAGARRIAK.—Negar... negar... negar!!!... Negar egizute, nere txikiok! Il baita «Laño»..., il baita! ! ..., il! ! !

zauri izugarri artatik odolez ustuta! ... {Txikien ituna ta negarra).

### III

MAITAGARRIAK.—Atozte, maitagarri adiskideak: atozte, «Laño» ederraren gorputza zuekin dakartzutela... (*Argitasun bizi bat-batekoa. Lau maitagarri sar bitez atzetik, bekokian izar urdin bana, «Laño» ilda, dakartela. «Izar» betor gorputzaren atzetik, atsekabez. Beste lau maitagarri, guzien atzetik, eskuan lore eder batzuk dituztela*). Atozkit zu ere, «Izar» gaxo biotz-erdibitua...! Ta zuek, nere lagunak, gorputza estali zazute lorez. (*Guziekiko taldea: etziñik «Laño», «Izar» aldamenean belaulniko, inguruan nexka-mutikoak. Sagar-dantza dantzatuz, maitagarriak —esalea ez besteak— irauli bitzate loreak gorputzaren gañean. Guziek geldirik osatu bezate talde ikusgarria*).

MAITAGARRIAK.—Laguntxoak: gure ipuia amaitu dezagun... Erregiña sendatu zan, guk irantsugearen beazuna eman da. Baña «Laño» ta «Izar» eder aietaz ez dakizute zer gertatu zan. «Izar»-ek etzitian besoak «Laño»-ren lepotik azkatu nai... Ordun, betirako alkarrekin egon al zitezten, zerura jaso genitun, bata laño gorritzta biurtuz, ta bestea artizar eder... Ortxe daude arrezkero, euskal-illunabar ederrenak apaintzen.

Orain ikusi, nere maite txikiok... Lañoa ta artizarra itzaltzen ari dira... Gaua badator... Gure mendietan «Laño» ta «Izar»-en ots zaar ezti aiek auldu egin dira, ta ia aaztu... Sasian bildu dituzuen ipurtagiok biurtu bitez izar-txo zuen eskuetan, ta gure gaua ez da izango beltz: gau ozkarbi, gau izartsu, goiz eder baten aurrelari, bai, izango da.

(*Entzuleai zuzendu bezazkie urrengo itzok*).—Euskaldunok euskaldunagotu zaitezte, ta zuen kanta zaarrekin batera irauñ beza euskera zaaragoak egunen azkeneraño! ...



*[Orkestak: Lenbizi «Nik badut maiteño bat» oroitaraziaz. Gero, «Artizarra zeruan». Abestu nexka-mutikoez urrengo neurtitzok, maitagarriek, aopeka, lagun ditutela].*

Artizarra zeruan  
aurki da izkutatu.  
Etxera sar gaitean:  
danak zai ditugu.  
Nundik zatoz, enetxo,  
amak esan digu:  
ipurtargiak jaso  
ta izartxo biurtu!  
Ipui bat, zein polita!  
amatxo, dakigu...

*(Orkestak jarrai bezakio, bakarrik).*

Agur, euskotar onok:  
Euzkadi maitatu!

*(Orkestak jarrai beza, oiala, geldi-geldi eratxi bitartean).*

*Lizardi'tar Xabier*

*(Antzerti, 2'gn, zenbk., 1932, 3 orr.),*

## 11 TOSTA GAÑEAN

(Arrantzale bizitzako irudia)

*Irudigilleak:*

SOÑU — *Soñu jotzallea.*

ITZAL

ZIRI SIKU — *Arrantzaleak.*

ATZE

TELE — *Telegraf oetako morroia.*

PILI SUSI — *Neska gazteak.*

*Iruditegia: Canarias'ko portu baten, ondarrutar itxason-tzi bat molla ertz bateri lotuta.*

*Arrantzaleak, oi dan lez, tosta gaiñean, aparixuak gertuten. ITZAL here erropak konpontzen. SOÑU, armonika bat joten, urrungaitzez...).*

\* \* \*

ZIRI.—Zuk beintzat allimurik ez dautsazu iñori goratuko zeure pillarmonika orregaz.

SIKU.—Akolitua zanian Krileisonak be osta-ostan ikasi zitun orrek.

SOÑU.—Beste batzuk arima pielei kandelak kentzen baiño ez eben ikasi.

ZIRI.—Zure tertixokua ba zan Txilibristo.

ITZAL.—Arek negarrez egoana be dantzan ipinten eban.

SIKU.—Or dago.

SOÑU.—Zeri or dago? Nik dantzan dabillena miñez okertuta negarrez ipinten al dot?

ZIRI.—Gitxi gitxiago.

SIKU.—Dra!

ITZAL.—Emen akulari ugari dagoz, baiña akuluak mendian.

SOÑU.—Zer jotia nai dozue?

ZIRI.—Edozer izanda be, zerbait modernua beintzat, penak aztuteko be.

ILLUN.—Modernua joteko jakin egin bear da gero. Eta espiritua be alakoxia euki. Ez ganbara zarretan bizitako sorgiñena.

SIKU.—Gatza loratuko da orregaz ori gertatu orduko.

ZIRI.—Zegaitik ez? Zetan ibilten da ba «Nitxi» kluk edo olako zurkuluetan?

SOÑU.—Txo, iñori akatsak artzeko, lenengo berbetan be ikasi gero. «Nitxi» kluk?

ZIRI.—Zelan esaten da ba?

SOÑU.—Zelan?

ZIRI.—Kintal bat zimarroj jokatuko dautzut. Apustua, jakin ezetz.

SIKU.—Kontuz, ori txori berderoia da ta.

SOÑU.—Egiña da.

ZIRI.—Zer?

SOÑU.—Nik ez daukat atzerarik:

ZIRI.—Zer baiña?

SOÑU.—Izena zelan esaten dan, edo obeto esanda, zelan eskribiduten dan, neuk bana-banaka esan baietz.

SIKU.—Lanakoena, eskolau de Akilla y maixu de Pixape.

ZIRI.—Ezetz! Ori testigu.

ITZAL.—Niri baketan laga.

ZIRI.—Ori orduan.

SIKU.—Ni? Lenengoz, erria dirua,

SOÑU.—Zelako dirua?

ITZAL.—Kintal batek zenbat balio dabekontuak atara ta ainbeste.

ZIRI.—Ori... leorreko txorixak esango dabe, nai dabengan.

SIKU.—Dirurik ez ba da, testigurik be ez da bear. Zeuek konpondu.

ITZAL.—Ori nai batzuk.

SOÑU.—Zeiñek?

ZIRI.—Nik igarri dot ziriak nora zuzendu diran.

SOÑU.—Beste batengaitik esango eban.

SIKU.—Allos orduan.

ITZAL.—Allos? Bat alber.

SOÑU.—Zein?

ZIRI.—Zera! Azken datorrena, buztan.

SIKU.—Poperre.

SOÑU.—Atzera egingo dodalakoan zagoze? Iperkaleko Komediantei naizela pentsaten dozue? Zuek ez nozue eza gutzen.

SIKU.—Ez da errez.

SOÑU.—Entzun ondo, e? Entzun. Eta gero juango gara ikusten ondo esan dodan edo ez.

ITZAL.—Ia brankaz itsu-mustuan joan eta koasta apurtzen dozun.

SOÑU.—Olgetarik ez dago. Ipin paperian.

ILLUN.—Bakizu ba premiñazko zeregiñetarako be paperik ez daukagula.

SOÑU.—Buruz orduan. Kontuan artu, e?  
Ara: ene, i, g, t, atxe Klub. Jakin?

ZIRI.—Eta ingeles zelan esaten da ba?

SIKU.—Ingelesa nun ikasi eban ba orrek? Oxforren?

ILLUN.—Izena jakitia be?

SOÑU.—Izena jakin ez? Estropadak be ikusi dodaz nik Oxforrenak.

ZERI.—Bai neuk be.

SIKU.—Telebisiñioian.

SOÑU.—Ez.

ZIRI.—Zera, Tamesis'en zuk, Londros'en.

SOÑU.—Tamesis'en ez, baiña Orixoko errixuan bai.

SIRU.—Grak eta blast.

ZIRI.—Iño? Kalbuak ez dautzu urten?

SOÑU.—(Burlaz, armonika jotzen) («Altza Patxiko tru-la-lai»

edo beste irri doñuren bat. Geroago danak, doñu be-  
berari jarraituz, saltoka eta kantuz:)

Altza Patxiko tru-la-lai,

Altza Patxiko trala-trula-lai.

(Orrela diarduela, PILI eta Susi andrazkoak agertzen di-  
ra molla buruan. Jantzi arin eta laburrez, Mariñelei be-  
gira gelditzen dira. Kiñuak egin be bai, eurei. Arrantza-  
liak konturatzen dira eta beriala, euren artian:)

ZIRI.—Zixe, zixe!

SOÑU.—Marinero, erria vela!

SUSI.—Hola guapos. Buen humor, eh?

ITZAL.—Guapos? Más que Drácula.

SIKU.—Neska aluok-e...

PILI.—¿Ya conoces a Drácula?

ZIRI.—(ITZAL'gaitik, adarra jo nairik) Sí, este es.

ITZAL.—Ozkil ori!

SUSI.—Mira al viejo. ¿Mucho calor? ¿Vasco? Fuerte, eh?

ITZAL.—Fuerte, yo? (SIKU'gaitik) Este sí.

SIKU.—A mí coplas no. Yo querer mujer.

ZIRI.—Zeugaz dabiz. Atrapauko zaitue.

SIKU.—Ni? Yo? Ikusiko dozu zelako andafuerakua emongo  
dautsedan laster.

PILI.—¿Mucha pesca?

SIKU.—Pesca sí, tambien kezka.

PILI.—¿Y eso qué es?

SIKU.—Atun. Bueno, zimarron.

PILI.—¿Vale mucho dinero?

SIKU.—No, dinero poco pagar. Para mujeres todo.

ZIRI.—Saria botaten dabiltzuz.

SIKU.—Neu atrapauko nabelakuan?

SUSI.—Vasco tunante. Mucho mundo tienes tú.

SIKU.—¿Mundo? Humor sí. Pero dicho. Ganar justo para  
mujeres. Nosotros pobres.

SUSI.—¿Te gustan las mujeres, eh?

SIKU.—¿Cómo? Calla por favor. Por favor, eh? Mujer una.  
Basta y sobre. ¿Qué entiendes, pues? ¿Lo otro? Anda,  
anda! Ospa de aquí. Ospa.

PILI.—Drácula.

SIKU.—Y vosotras, qué? Marilyn Monroy o qué?

(PILI *eta* SUSI *ba duaz, barre algaraka*. SOÑU, ITZAL *eta* ZIRI *be barreari eutsi ezinda igarriko dira*).

ZIRI.—Zu lakorik!

SOÑU.—Neskak pasata laga dozuz.

SIKU.—Pasatuko leukie areik baten bat.

ZIRI.—An duaz areik gangartuta.

SIRI.—Areik gangartuta ba duaz, señalía ni gangorragaz gelditu naizela.

ITZAL.—Ori, ori Siku!

ZIRI.—Zure andriak gaurko au ba leki... amaika puntu irabaziko zendukez!

ITZAL.—Bai, gu emen adurretan gabiltzala pentsaten ei dauba gure andrak.

SOÑU.—Batzenak.

ZIRI.—Jakiña ba, zureak ez beintzat.

ITZAL.—Ba dauka ala?

ZIRI.—Esperantzarik be ez orrek, ama bizi daben artean. Berori konturatu barik, aurtengo neguan be, neska igerren batzuk jango dautsez orreri emen nekez irabazitako arda diruak.

SOÑU.—Irabaziak neskekin gastatea ez da txarra. Okerrago da izerdia beste batzuk jatia.

ITZAL.—Or dator patroia. (ATZE *agertzen da eta molla burutik ontzira sartu*).

Eta? Ze barri?

ATZE.—Koplia ugari.

ITZAL.—Izotzik emoten dabe?

SIKU.—Arraiñik saldu da?

ATZE.—Eurak ordaindu nai daben prezixuan arraiña emon ezkeru, arraiña saldu eta izotza be bai.

SOÑU.—Zenbat esan dabe?

ATZE.—Edozenbat izan da be, zer? Eurak dira gure arraiña neurtu bear dabenak ala gu? Eurak dakie guk zer bear dogun ala guk?

ITZAL.—Guk nai bai, baiña...

ATZE.—Zer? Eurak al dakie guk zelako premiñak eta zelako aizeak doguzan?

SIKU.—Zenbat eskiñi dabe?

ATZE.—Guk pentsaten dogun iru-laurdenik ez. Eta beste egun bat edo geiago emen galdu bearko doguz. Betiko jokua.

SIKU.—Jokua ez da errenta. Ikusten da.

ATZE.—Arraiña merke emon ezkerok... —eurentzat sekula be ez da merke— atarako ei leukie izotza eta bier urtete-ko modua gertu, beste mare bat egiteko eran.

ITZAL.—Eta?

ATZE.—Emen txarrena dana, au da, eskuetan daukela, nai ba dabe, gu orrela erabilitia. Ba dakie emen saldu ezik Algeciras'era joan bearko dogula.

SIKU.—Colon'en moduan, eguzkiari begira.

ATZE.—Ba dakie ori, guretzat, beste lau egun galtzea dala. Eta estutu nai gaitue. Beartu.

ITZAL.—Eta nai ez da be, gu makurtu bear.

ATZE.—Guk ez dogu esango traturik egin nai ez dogunik. Baiña, ori, tratua. Tratua ez da iñor saltzea, alkarregaz konponketa bat egitea baiño.

SIKU.—Tratua tratu, Pernando Amezketarrarena.

ATZE.—Ez zaitte satorra izan. Tratua nai litzake, bataren izerdiak eta premiñak zainduta, bestearen irabazpideei bidea lagata be.

SIKU.—Ori orrelaxe da, baiña gu beti mariñel.

ATZE.—Mariñel izatea bizi-bide bat da. Beste edozein la-koa. Baiña nortasuna artu eta eukitea da premiñazkoena. Norbere jaube eta norbere duin izatea. Gizartean, munduan, beste edozeiñen antzeko, eta kideko.

ITZAL.—Esana bat eta izana bi.

ATZE.—Batzuen alegiñagaitik, ala izango da beti.  
(*TELE agertzen da molla buruan*).

TELE.—Ontzi onetako patroia, mesedez?

ATZE.—Neu.

TELE.—Telegrama bat.

ATZE.—Niretzat?

TELE.—Patroiarentzat.

SOÑU.—Ze prezio egin ete daben jakin naiko dabe. Leorrean geratu diranak ez dauke beste kezka eta burukomiñik.

ATZE.—Guk beste ez beintzat.

(ITZALA'ERI). Emon oneri txermol txiki bat, diruzko pro-  
piña baiño naiago izango dau-ta.

SIKU.—Bai, orren prakak eta nireak Matusalenen denporetan euzki naiku artu eben.

ITZAL.—(*Txermol bat emoten dautsa Tele'ri*).

TELE.—Eskerrikasko. Gurian estimatuko dabe au. Zuek euskaldunok lakorik ez da onera agertzen. Txalagarri zarie. Zuen lakorik... Agur. (*Pozez dua*).

ITZAL.—Ostera be etorriko da ori, bere uzabak baiño obeto ordaintzen ba dautsagu.

ATZE.—(*Telegramia irakurri eta mutu gelditzen da. Zur-bil*).

SOÑU.—Ze gertaten da?

ATZE.—Il dala.

SOÑU.—Zein?

ATZE.—Ama.

SOÑU.—Zeiñena?

ATZE.—Zeiñena? Zeurea.

SOÑU.—Nirea? Benetan?

ATZE.—(*Telegramia irakurten*) «Patxikori esan egiozu, ama il dala. Eta gaur enterratuko dogula eta nasai artzeko, gauzak bear dan moduan eginda juan dala-ta. Gañerakoa kartaz esango dogu».

SOÑU.—Ama! Ama il! Neure ama!

ILLUN.—Datorren lez artu bear, txo!

SOÑU.—Eta bakarrik. Bakarrik! Ain zuzen be neu ain urrun nagola!

ATZE.—Bakarrik ez. Ba dakizu orretan Ondarrun laguntzarik ez ebalta faltako.

SIKU.—Gureak an egongo ziran segurutik.

ILLUN.—Eta gureak.

SOÑU.—Baiña etxekorik ez, neu baiño ez eukan-eta.

Ama il! (*Negarrez makurtzen da. Ez daki zer egin*).



Ama il! *{Armonikeagaz eresi illun bat joten asten da. haiña jaiki eta uretara jaurtiten dau bere armonika ori, didarrez}*. Ama! Ama! Zer egiteko nik zeu barik? Zer egiteko nik?

*{Lagunak besarkatu eta baretuten dabe}*.

ATZE.—Auxe da Canarias eta auxe da mariñelaren bizia! Beti erbestean: Beti zer ikusiko eta zer entzungo. Egunero kezka bat, egunero naigaberen bat, iñoren mendetasuna eta... ixil ixilleko negarra, barru-barruko miña, gizonik andiena be ia ittoten daben biotz biotzeko negarra!

*Agustín Zubikarai*

## 12 ZIGORRA

(Bakar-izketa)

*{Aurre-oiala igotzean, Ibon gaztea, espetxe illunean, espetxeratuen jantzi bereziakin bere soin argala estalita, oe xaxtar batan ertzean exerita, bere barren miña aurpegiari duala agertuko da).*

*[Gaba da. IBON, bakarrik).*

*[Oldozkor). Bai, txoritxoak kaiolan abestu oi du, baiña Ibon'ek ez. Kaiola txoriarentzat egiña da; orma zatardun gela illun otz au ez da neretzat egiña. [Ixil-une bat). Alaitu? Etsi? Abestu? Txori biurtu? Ai al baneza! Adimenak gizonari enbazarik iñoiz egiten badio, enbazua da gaur nik beragan arki detan gauza au.*

Aztu nai guztiatzaz, ta ezin. Adimena oldozketa beltz bildurgarritan sartua darabilkit. Ezin atera det. Baiñan... Ez, ez; neri ez dagokit zigor au. Ni ez naiz lapurra. *(Ixil-une bat). Lapurra! ! Ibon, Karmele zintzoaren seme bakarra, lapurra? Ez! Jakin ezazute lapur eta eraille gaixtoak gordetzen oituak zaudeten orma lodi sendoak, jakin ezazute Ibon ez dala lapurra; Ibon ez dala eraillea; Ibon ez dala gaixtoa, ta gaur gaizkilleentzat bereziki altxatuko espetxe zatar onetan ni arkitzea, gezurrezko zuzentzari zor zaiola. Zuzentza! Gizonaren zuzentza! [Indarrez). Gezurra! ! [Ixil-une bat). Gizona!*

Luditar utsa dan gizona ez da egi. Goitar usai gozo kutsurik gabea ezin iñola ere egi izan, ba. Ludia usteldu duanak kiats zikiña baiño ez darama biotz barrenean. Ta garbia izan nai luken guztiari aurpegia zikuntzen dio, neri lez. Madarikatuak bitez biotz-kiatsdun guztiak! Madarikatuak mi-

lla bider kristau-jantziz apainduta txerrenkume biurturik dabilzan gezurti lotsagabeak! Gezurra, gezurra da guztia ludi onetan! *{Ixil-une baten ondoren oker aundiren bat zuzendu naian bezela}*. Azketsi, ama; zu egi zera. Bai, ama, bai, zu bakarrik. Zu gezurra ezin izan zindeke. Zugan, ba, sinisten det. Zu maite zaitut.

Orretxegatik det min emen biotz barnean. Ni emen lapur bezela nagola ta, negar dagi gure biotzak. Ta zu negarti zerala jakite utsak malkoz bustitzen ditu nere begiak. Ama! , zuk nigatik eta nik zugatik. *{Begiak legortu. Ixil-une bat}*. Luze-luze etzinda zaude nork garbiturik ez dun etxe txiro zikiñeko gela illun aize gabeko oe xaxtar baten gainean. Bakarrik! Zure laguntzaille bakarra, zurt biotz-zati au, zure semetxo polita!, ai goxo esaten zenidazun lez; zure Ibon gizarajoa kendu dizute. Espetxe zatar batean dago bakar-bakarrik. Gaixtoak bezela, ama! *{Ixil-une bat}*. Ez, ez, ez dezu jakin bear; ez dizut esango. Utzi egidazu, ama, beingoiz gezurra esaten. Bein bakarrik.

—Ama, ez nigan kupitu; ez negarrik egin; ondo dago! Bai, oso ondo *{negarrez}*. Ez det negarrik egiten, oso alai nago... bai... txoriak kaiolan bezela abeslari naiz ni ere. Baiña zu...? Gaxo zaude; dirurik ez dezu, nork kontu egiñik ere ez. A! , txoroari guztiak zaputz dagiote! Ori berez, ta ni, zure semea, espetxeratua dala jakinda gero, zer esanik ez. Bakarrik eta gaxo etxe zaxtar orretan! Beti negarrez! Bai, malko-iturri egiñik zaude noski ni lapurtzat jo ninduten ezkeroztik. Ama: sinistu ote dezu? Otoitz egiten ain ederki irakatsi zenion semea ain gaiztakeri itxusiaren egille izan leikeanen zalantzik bai ote zure barrenean? Ez? Ez ba sinistu, gezurra da ta.

—Zuri bekoki bekokian muñ eginda ixillik, ezer esan gabe, etxetik irten nitzanean, nora joan nintzan? Lotsa-lotsa egiñik eskera, Jainkoaren izenean arrenka, eskua luzatzera. Ibon eskale! Zuretzat, ene ama, zuretzat eskatu nuan atetik ate. Ate oietako bat Todor jaunarena zan, eta badakizu bere iritzia, bular gainean naraman ikurraren aurkakoa dala, ta nonbait areioak urritzearren edo, lana ta eguneroko

ogia agindu zizkidan ezagutu ninduean, nere gogoko ikurra ukaturik, onen lekuan berearen antzekoa ipintzeagatik. Ain biotzdun zirudin gizona, pixti amorratu biurtu zan nere aotik ezetz sendoa entzutean. Beriala deadarka asi zan neri gogor besotik elduaz, eta bere oju aiek entzunda bildu zan notintzaren aurrean, etxe barruan lapurretan arkitu nindua-la aitortu zuan gezurti maltzurak. Nere jardunaldi guziak alperrikako ziran, ba; ta zigorra, diru jabearen biotz ustelak ezarri dit. (*Ixil-une bat*). Lanik ez! Gosea! Zikin eta melar! Baiña kristau ta euzkotar oraindik. Euzkotar! Aberztale! Ara or nere obena. Ara or, gu, ama-semeon malko-itxaso. Itxaso orretatik datoz gure begitara negar-ur tanto garratz auek. Beraz, nere lanik eza, gure gosea, gure garbitu eziña, gure eriotz bide au gizon kiats jario oien erruzkoa da.

Nik ikurra aldatu ba'nu, amakin zorion osoan biziko nitzan beretzat osabide guziak iritxiaz; ta nik, gizon bezela, zuzen ta sendo detalako, egi bidean jarraitu nai detalako, garbia izan nai detalako: lapur egin naute, aurpegia zikindu didate. Orra gizon luditarren egintza! Ludi gezurti aiena! (*Ixil-une bal*). Ta ludi orrek badu bizitzeko eskubiderik? Ori da azke dabilena? Txiroaren eriotz miñak pareragiten dion txerrenkume madarikatua diru jabe? Gezurra egiaren nagusi? Nagusi gaiztoa, baiña nagusia beintzat! Ori ezin uka. (*Ixil-une bat*). Daraman bidea jarrai bear badu ludiak, laixter inpernu da. Txiroa erruki! Ez adi jaio... ez adi jaio; lotsa, gose ta negarra dauzkat zai-ta. A gizajoa! Edo-ta gizon zorrotz azaldu adi. Dakarkian aragi puskatxo gorri ori kendu zak igandik eta emen arkituko ditukanen antz gaixtoa artzak. Negarra ta zoritxarra uxatzeko biotz gabea izatera beartua bai ago. Ez adilla, ba, iñortzat kupitu. Negartiari parrakin erantzun ta iñoiz norbait atximur egin naian baletorkik, jo ta eratx zak. Aizea ta eguzkia bitez ire adizkide bakarrak, osasunaren kontu egille zintzoenak eurak dituk eta. Baiña, auekin ere kontuz ibilli bear dek batzuetan, gaizto kutsudun azaldu oi dituk eta. Ludiak asko itzegingo dik, baiña ez egiok ezertzo ere si-

nistu; gezurti utsa bai dek. Batez ere aberatsari burua ma-kurtzeko agintzen dikanean, goruntz begira zak, ta eureak dirala oroi adi aien geiegizko aberastasunak, ta alik laixte-rren eorri jabetu adi al dekan eran. Bildurrari ta lotsari ez leku pitiñik ere eman ire barnean. Ona ta zintzoa ezin bizi leikek ludi onetan. Zuzentzari parrezka zebillek gizona; saia adi, ba, algara aundiena egiten zorionekoa izan nai ba'dek.

Ixkillu aztunak dirala? A...! Begira akiok zintzo ta ona izan nai zuan gazte oneri. Esku utsik etorri ninduan ludira ta len aitatutako ixkilludun gizarteak ara zer zigor ezarri zidak. Bakar bakarrik utzi natxiak illunpe zatar onetan. Iri eskeñi dizkitan bi adizkideak zertxo bat laguntzen zida-tek. Eurari ere eragotzi ziotek nere ondora etortzen; bai-ña, ala ere, ixilka-mixilka zetorzkidak al añean or goiko leiotxo ortatik. Maite noitek, bai; aizeak doi doika neke-tan, iritxi ezifñean, arnasa zekarkidak, ta eguzkiak goizeoro argi bero goxoa. Zai-zai niok: laixter dek emen; gabaren azken muturra igeska soma dit. (*Leiora begira*). Oraintxe iriki ziotek atea; aurpegia azaldu dik... irten dek... nere leiotxoaren billa zebillek... ikusi niok... emen dek, emen dek! *{Leiotik betor argi-ari bal pixkaka geldituko dana. Ibon argiagana juanda bere izate guztiz eskeintzen zaio}*. Ator, ator, ene adizkide, ta bero eidak barren guztia! Sar-tu adi emen *{biotza eskeñiaz}* ta ago bertan. Ain dek goxoa ik dakarken berotasuna! I, i aiz on; i aiz eder; i aiz egi! Badek ordea ludi ontan beste egi bat ere, ni bezela bakar bakarrik dagona. Ni ire bear banaiz, ura ere badek. Ua ba beragana; bazekiat eragozpen aundiak ditukala gizon ludi-tar uts diranak ipiñiak bera dagon tokira irixteko ere; bai-ña saia adi, ama diat eta arkituko dek xirrikituren bat eta eraman akiok bere biotz barneraiño emen (*biotzatatz*) artu dekan nere bereganako naitasun sendoa ta indartu zak; alai-tasun apurtxo bat bada ere eman akiok. Nitzaz mintzo adi bere biotzean agoanean.

Esan akiok itxoiteko... ez negarrik egiteko... laixter joango naizela bekoki erdian muxu ematera..., baiña batez

ere esan, esan orruka, entzun dezan, esan ordea aztu gabe bere semea ez dala lapurra... ez dala gaixtoa. Ibon ona dala... ludia dala ustela ta orregatik zigortu nautela, ona naitzelako. (*Urruti antxean eriotz ezkillu entzunar aziko da. Ibon alditxo batean entzuten egongo da*). Eriotza! (*Aitaren egiñaz*). Aitaren, semea... a...a...a...a...a... ma. A...ma...? Zu...? (*Atea iriki naiena*). A...a... Iriki...iriki...! Ama, ama il zaitela! (*Deadarka*). Ama!... Ama...!!! (*Atea iriki ezin dauka ikusirik, begiak ondo zabaldua, norbaiten bila asten da eskuak dardarka dituala*). Todor...! A...maltzurra!!! Ator... ator onera!! A!! (*Bi eskuakin zerbait estutuko balu bezela*). Ito!! (*Lurrera begira*). A!!! Usteldu adi nere aurrean madarikatu ori!

Ama!... Ama!!

(*Zapiakin batera erori bedi bi azken itz oek biotzez esanaz*).

*Agirrezabal'dar Alberta*

(«Argia»-ren Egutegia, 1936, 185 orr.).

### 13 NAITASUNE2 EREIN!

*Egilleak:*

AMA  
JULIO  
ALPONTXO  
ANJELES

*{Lore-baratzan, eguzki-printza distiatzaliak estaltzen dituan zuzat ostotsu baten itzalpian gertatzen da ipui au. Afijeles, zerutik jetxitako aingeru lilluragarria, dauka bere amak magalian. Alpontxo'k, orpo ganian exerita, bere begirada garbia amaren ezpañetatik zintzilika daukala dirudi. Julio'k, zelaian etzanda, izketa-susmurrian lasai-lasai lo dagon txakurra, bere lagun aundia, besarkatuta dauka. Zortzi urte ditu Julio'k; Alpontxo'k, sei-, Anjeles'ek, lau. Amatxo gazte ta ona irakasle ezin ta abia da bere seme-alabatxuentzat. Arek maitetasunez irakasten die; jolaslari bezela ikasten dute oek).*

JUL.—Polita izan dedilla, e? amatxo; polita izan dedilla...

AMA.—Bai, bai. Polit-polita izango da. Baña...

JUL.—Zer?

ALP.—Zer?

ANJ.—Zer, amatxo?

AMA.—Ipuia polita izango dala, bai; baña, politaz gañera, gauza jakingarriak erakutsiko dizkizuena.

ALP.—Zer erakutsiko digu bada, amatxo?

AMA.—Ori zuek esan biarko dirazute. Ipuia esan eta gero, iruroi galdetuko dizutet ia zer ikasi dezuten. Nai al dezute?

ALP.—Bai.

JUL.—Bai.

ANJ.—Bai, bai. Amatxo: poliki-poliki esan ordia, e?, *kilika* esaten baldin badezu ezin ikasi al izango det-eta.

AMA.—Bai, poliki-poliki esango det. Ixilik eta geldi egon biar dezute ordia, e?

IRUROK.—Bai, bai, bai...

AMA.—Entzun bada ondo. Bein, erri batian, soruetan ia elduta zeguan gari guzia gaitzak jota galdurik gelditu omen zan. Galburu bat bakarrik ere ez omen zan zutik gelditu.

JUL.—Gauza bat galdetzen utziko al dirazu, amatxo?

AMA.—Zer?

JUL.—Ta aurreko urtietan gordeta zeukaten garia ere galdu altzan?

AMA.—Ale bat ere etzuketan kutxa ta ganbaretan. Ango nekazari ta baserritarrak, aurreko urtietan gari eder eta ugariak izan arren, urrengo urterako ez omen zuten ezer gorde. Ala, soruetako garia gaitzak jo zuenean, gari-ale bat bakarrik ere gabe gelditu ziran.

JUL.—Ale bat ere etzan gelditu?

ALP.—Bat bakarrik ere ez?

AMA.—Ezta bat ere. Ta gañera, erri artako gari-soroetan sartu zan gaitzak berak galdu omen zituan inguruetakonetako guztiak ere. Eta angonekaziariak, berriz garia ereiteko garaia etorri zanian, gari-ale bat gabe gertatu ziran. Ezin garirik ereingo zuten; ezin ogirik egin.

ALP.—Ta ogirik gabe nola meriendatuko zuten angotxikiak?

AMA.—Etzuten meriendarik izango...

ANJ.—Nik bidalduko diotet nere opilla, amatxo...

JUL.—E...! Txepela... Kontua da-ta...

AMA.—Ogirik jan gabe bizi biarko zutela ikusi zuten ezkeroztik, negar asko egin zuten. Etzekiten zer egin. Batzuk errezatzen, bestiak ernegatzen, zer egin eta zer asmatu etzekitela zeuden. Mutiltxoak eta neska txikiak ogi eske, ta gurasuak ezin eman. Etzeukaten eta, ezin eman!



ANJ.—Negar-guria ematen dirazu, amatxo...

ALP.—Ipuia da-ta, txepela...

AMA.—Erri artan, Iñaxio ta Migel izena zuten bi mutil, alkarren lagunak, bizi ziran, Egun batian, mendirik mendi zebiltzala gizon zar, bizar zuri bat, agertu zitzaieten. Iñaxio ta Migel, agure zar ura ikusi zutenian, ikaratu ziran. «Ez ikaratu, ez ikaratu —esan zioten, leunki ta bigun gizon zarrak—. Nik ez dizutet gaitzik egingo; zueri erregalotxo bat egiteko asmuhan nator. Bañan... auxe lana! , biok mutil txintxuak izanik, nik erregalotxo bat besterik izan ez! Zeñi eman ez dakitala nago; zuri, Iñaxio, ala zure lagun Migel'i.

ANJ.—Zer erregalo zan, amatxo?

JUL.—Ixo, orain dator politena ta!

AMA.—Orixe bera galdetu zioten Iñaxio ta Migel'ek ere aiton zar bizar-zuri arri. «Zer erregalo dakarkizu guretzat?». Eta orduban gizon zar arrek, bi biatzen artian zeukan gauza txiki bat erakutsiaz, esan zien: «Auxe». Eta bai al dakizute zer zan? Gari-ale bat. «A zer gauza orixe! —esan zion Migel'ek—, nik ez det nai, ta eman zaiozu nere lagunari, nai baldin badezu». —«Nai al dezu, Iñaxio?» —galdetu zion aiton zarrak—. —Bai, bai; ekatzu neri». —Tori, ba», ta gari-ale ura Iñaxio'ri eman zion.

JUL.—Ta gero, ama?

ANJ.—Utzi zaiozu ixilik amatxori kontu guztia esan arte. Oso polita da, ta nik ikasi egin nai det.

AMA.—Migel'ek parra ta burla egiten zion Iñaxio'ri gari-ale ura artu zuelako. Ala zion: «A ser ogi-pillak egingo dituken gari-ale orrekin! Oraintxe ogiz ase biarran gaituk!». Iñaxio, bere lagunaren esanak aintzakotzat artu gabe, parre irudian, ixilik gelditzen zan beti. Urren-go egunian, Iñaxio goiz-goiz jua zan bere sorora, lurren pixka bat atxurtu zuan, sartu zuan lurrean gari-ale ura, ta arantzazko esi batez inguratu ta txoriak izutze-ko oial-zirindara batzuek jarri ondoren, etxeratu zan. A, zeñen txintxo ta arretaz zaitu zuen lur ura geroztik!

Zer poza artu zuan berriz geroxeago, lenbizi erne ta gero azitzen ta aitzenerako urre-koloreko galburu lirain eder ta marduk ura elduta ikusi zubenian! Galburuba eldu ta bere sasaira etorri zanian, guraize batzuekin eba-ki ta bere eskuetan estaturik aletu zuben. Gero, gari-aleak esku zabalean jarri, aize eman da aidian juan ziran lastotxuak, eta eskuban gari-ale garbi ta aundiak gelditu zitzaizkion. Ura poza zeukan Iñaxio'k! Lenago, ainbeste bider ikusten zituen gari-pillak etzitun aintzakotzat artzen, ta orain atxaparra bete gari-ale ikusita, zoraturik zegoan berari begira. Pozaren pozaz juan zan bere lagun Migel'engana gari-ale aiek erakustera, ta Migel-ek len bezelaxe parrez esan zion: «Gari-ale oiekien egingo ditukan ogiakin ez diagu ler egingo».

JUL.—Ni Iñaxio izan banitz, a zer kaskarrekoa emango nion Migel'i!

ALP.—Baita nik ere.

AMA.—Tira, ixo... ixo. Iñaxio'k, urrengo urtian erein zituben galburu bakar orrek zituan berrogei ta amar gari-aleak, eta berrogei ta amar galburu bildu zituan. Berriz ere erein zituben gari-ale guztik, eta andik urte gutxi barru soro guztia gari ederrez bete zitzaion. Gari ura erri guztian banatu zuan, eta baserritar guziak beren soroetan erein zuten. Eta guzia erne ta eldu zanian, ura edertasuna! Aingeruak milagroren bat egin zutela ematen zuan. Mutil ta neskatxak an zebiltzan gari-ebakitzen kanta ta kanta; umiak berriz, naiko ogi zutelako, pozez ta alai; txoritxuak ere bai gari-soroetan saltoka ta txioka, gari janaz jolasean. Bazan antxe garia, iñun garirik bazan!

JUL.—Aupa, motelak!

ALP.—Aupa, Iñaxioá I aiz mutilla!

AMA.—Ikusi dezute bada. Gari-ale bat etzan ezer Migel'entzat, eta etzun aintzakotzat artu izan nai. Iñaxio'k, berriz, gari-ale arrekin zorion ugariak ekarri zizkion bere erriari. Ta... ta... ta... kontu au emen bukatzen da. Ta ala bazan, sartu dedilla kalabazan.

- ALP.—Zer kontu polita, ama!
- JUL.—Politenetakua.
- ANJ.—Polit-poli-polit-politene takua, amatxo.
- AMA.—Eta... kontu polit orrek zer esan nai duan antz eman al diozute?
- IRUROK.—Bai, bai, bai...
- AMA.—Ia bada; ikusi dezagun.
- ALP.—Ni lenbizi.
- JUL.—Ni, ni...
- ANJ.—Ni ere bai.
- AMA.—Itxoin, itxoin. Ia zuk, Julitxo. Zer esan nai du, ta zer ondorengo on atera dezu kontu ortatik?
- JUL.—Gari asko izaten zuten urtietan gutxi izango zutenerako gorde izan bazuten, gertatu zitzaiotena etzitzaioleta gertatuko, ta gertatu zitzaioletako txoro aundi batzuk izan zirala.
- AMA.—Ederki esan dezu. Geroko konturik atera etzutelako eta aurreratzen ikasi etzutelako, txoro aundiak izan ziran,
- ANJ.—Eta zer da aurreratzia, amatxo?
- AMA.—Aurreratzia? Asko irabazten danian gutxi edo batiere ez dan garaietarako pixka bat gordetzen ikastia. Urtero ainbeste gari artzen zuten nekazari aiek pixka bat gordetzen jakin izan balute, gari-soro guztik galdu zitzaizkioten garaiean ereiteko lain izango zuten, eta erriak etzuben ainbeste gose ikusiko. Orra. Daukanian gordetzen duanak, biarrian arkitzen du. Egia diozu, Julitxo: aurrerako begiratzen ez duana, txoro bat da. Ia zuk orain, Alpontxo: zer ikasi dezu kontu au entzunaz?
- ALP.—Nik... Ba, Iñaxio bezelakuak izan biar degula, ta ez Migel bezelakuak. Gauza gutxi dalako ez dala ezer utzi biar, eta danik eta gauzik txikiena ere gorde egin biar dala, gutxika-gutxika asko egin liteke-ta.
- AMA.—Ederki, ederki. Ara or zuek egin biar dezutena. Bildu, gorde ta ondo kontu artu, dezuten pixkari. Zuek izaten dituzuten txanponak, Iñaxio'k bere gari-alea bezela gorde ta zaindu biar dituzute. Zuen txanpon txiki

oiek Iñaxio'k erein zuben gari-alea bezela dira. Zuen txanponak, ondo gorde ezker, azi, geitu ta ugaritu egingo dira, ta lenbizi eltxetxu txikiak, gero kutxa aundiak eta urrena etxiak eta erriak beteko dituzte.

ANJ.—Amatxo: orain ni; nik ere esan nai det.

AMA.—Zer esan nai dezu bada zuk, biotza?

ANJ.—Gauza batetik asko... asko... daukagunian, lagun-txuai pixka bat eman egin biar zaiotela. Iñaxio'k egin zuana egin biar degula: lagunai eman, errikoai eman, bear duten guztioi eman... eta txoriari ere bai.

AMA.—Ori da, maite! Atoz, atoz, eder ori, musuka jango zaitut eta. Egia diozu: diruba aurrerantzen duanak ez du beñere berekoi ta zikoitza izan biar. Diruba gorde biar da, bai, baña ez diru asko alperrik gordeta edukitzeko asmoz. On egiteko gorde biar da diruba: gere buruban on egiteko aurrena, ta gero al dan guziaz pozemateko. Baita txoritxo gaxuai ere!

JUL.—Eta zuk zer ondorengo atera dezakezu ipui ortatik, amatxo?

ALP.—Esan, esan, amatxo.

ANJ.—Bai, amatxo, esan, zuk oso poliki esaten dezu ta,

AMA.—Ara bada. Iñaxio'k, lenago gari-pilla aundiak ikusten oituba egon arren, lenbizi berak erein eta artu zuan galburu ura bakarra zenbaterañozko pozakin ikusi ta gorde zuan esan dizutet. Eta alaxe gertatzen da. Geok geten nekiakin egindako gauza ura baño gogo geiagokin artu ta gordeko degun gauzarik ez da. Zuk, Julitxo, kalian ikusten dituzun zakur guztiei arrika asten zera, baña zure txakurrari iñork arri bat botatzen baldin badio, aserretu egiten zera.

JUL.—Bai, orixe-

AMA.—Eta zu, Alpontxo, baratzen ikusten dituzun txori guztiak uxatu ta arrapatu naian ibiltzen zera, baña zure kaiolako kanario polit arri katubak atzaparkara bat egin nai izaten dionean, sututzen zera...

ALP.—Bai, orduan arrapatuko baldin banu...

AMA.—Eta zu, maite *{Anjeles'eri}*, kanpoko lore guztik

moztutzen ibiltzen zera, baña kontu etxeko leiuan daukazun lore-ontzi ortatik zure amak lore politen bat moztutzen badizu...

ANJ.—A, neria da-ta!

AMA.—Jakiña ba... Julitxo'n txakurra, Alpontxo'ren txoria ta Anjeles'en loriak beste gañerako txakur, txori ta loriak bezelakuak dira baña...

JUL.—Txakurra ez, ama.

ALP.—Ezta nere txoria ere.

ANJ.—Ez nere loretxuak ere. Nere lore politak...

AMA.—Bai, semetxuak, bai. Bestientzat guztiak berdiñak dira. Zuentzat ez. Zergatik? Zuek maiteki gorde ta zaintzen dituzuten gauzak zuenak diralako. Orrengatik bestien txakur, txori ta loriak zuenak baño txarraguak eta itsusiaguak iruditzen zaizkitzute. Zuenak berriz politenak, ederrenak...

JUL.—Nere txakurra beintzat bai.

ALP.—Baita nere txoria ere.

ANJ.—Nere loriak dira politenak.

AMA.—Bai, zuentzat bai. Zuen txakur, txori ta loriak zaintzeko egiten dituzuen egiñalak jarri biar dituzue zuen beste gauza guztietan ere, eta ala egiten badezute, ikusiko dezute nola goxatu ta alaituko dituzuten zuen bizitzako naigabe ta garraztasun guztiak. Iñaxio'k bere galburua landu ta zaindu zuan bezela, zaindu zuek ere naitasunezko egipen onakin zeon burubak eta zeon izate guztia. Eta aurreratzen dezuten diruarekin ere orixe bera egin biar dezute. Gorde, bai, baña naitasunez gorde, ez gerenkoitasun eta zikoizkeriz, baizik Iñazio'k bere gariari zion naitasun berarekin. Zuek zeuen txakur, txori ta loreai diezuten antzeko naitasunakin. Eta egunen batera orain gogoz ta maitasunez, gordetzen dezuten diru orretzaz bialtzen bazerate, antxe agertuko zaizute, zure txakurra bezin leial, Julitxo, zure txoritxua bezin alai, Alpontxo, ta usai gozoz betetako zure loriak bezina, Anjeles. Erein, semetxuak, erein; baña naitasunez erein.

ANJ.—Amatxo: zein poliki ta goxo esaten dituzun gauza guziak! Nok erakutsi dizu gauzak orrela esaten?

AMA.—Zuek, maitetxu, zuek... zuek zerate nere kutunak, zuek zerate nere biotzaren biotz eta...

Gregorio Mujika

*{Amonarri'z'tar Ander'ek euskeraz}*

(«Argia»-ren Egutegia, 1932, 130 orr.).

## 14 ESKOLA IGESI

*Antzeztokian kalea, batetik bestera, ezker-eskuitara gal-  
tzen dala. Era berean, goitik etxe erreskada.*

*[Sartzen da Iñaki eskuitik, larri, erdi-negarrez]. Au da  
au!... Zer egin bear det nik?... (Larriago). Baña... zer egin  
bear det nik?... Ene bada! Amak ikusi nau! (Geruago ta  
larriago). Baña... zer egin bear det nik?... Zer esango diot  
amari, etxera juatian?... Ene, ene! Arek eman bear dit ji-  
poia! (Artzen ba'lego bezela, bizkarra makurtuaz). Nere  
bizkarraren errukarria! Beronen gañian ausiko du itxuski-  
kirtena! (Negarrez). Ai... ai... ai!... (Negar-alditxo). Ain-  
beste aldiz esan dit ikastolara zintzo juateko, eta... batere  
juan ez naiz... (Ixil une laburra).*

Anton-Kukullu'k du guziaren errua. Nik zintzo juan nai  
nuan ikastolara, baña berak gelditu arazi nau... Askok jost-  
tatuko gerala... zozo-abi bat duala lau kumakin... eta la-  
guntzen ba'diot, bi emango dizkidala... iñork ez duala ja-  
kingo eskola igesi gabiltzanik... lagunak eskolatik irteteko  
ordurako biurtuko gerala geron etxetara... eta amak ez di-  
gutela igerriko... maixuari bigar edozein gezur esango dio-  
gula eta arratsalde ederra igaroko degula biok azke, ikasi  
bearrik gabe... jardun ta jardun, gelditu arazi nau, eta...  
ez ikastola, ta ez zozo-kuma! ... gu juan geran orduko ku-  
mak egatuta!

Baña au ez da ezer, amak ikusi ez ba'nindu ikastolako  
orduan kalia nabillela! ... Eta ikusi egin nau. Goiko ka-  
lean ain zuzen, berakin topo egin gera aldatzetik jetxi ge-  
ranakin batean. Eta igesi nuala ¡kristian eskua eragiñaz oju  
egin dit: «Eskola igesi, e,... Ago pixkat; Nik konponduko  
aut etxean!»... Ene, ene! (Erdi negarrez). Orain, zer egin  
bear det nik.

Beti esaten dit amak Anton-Kukullu'kin ez ibiltzeko, gaiztoa dala-ta; baña amaren esanik entzun gabe, berakin ibiltzen naiz; eta baita ibiltzen naizen bakoitzean, gaiztake-  
riren bat arazitzen dit gaurko au bezela... eta... beste as-  
kotako erara, gaur ere ederrak artu bear nik; gaur amak  
emanda, eta biar maixuak emanda... Au da au! ... zer egin  
bear det nik? (*Ixil unea negarti*).

Eta utsa ederki jolastu ba'giña eskolako ordu bitarte  
orretan!... Jolasteko asmoakin ikastolara gabe gelditu, eta  
guziak oker irten! ... (*Ixil unea*). (*Edesten*). Lenengo, abia-  
tu gera aldatzian gora Anton'en zozo-abiaren billa, eta abia-  
tu geran orduko, Don Tzelestiñokin arkitu gera, ibillaldi bat  
egitetik zetorren ta. (*Jenteari*). Zuek ez dezute ezagutuko  
Dontzelestiño, baña... gizon lodi, zakar, beltz, arpegi gu-  
zian bibotiak daukazen itxusi bat da. (*Bizi*). Ara, arkitu de-  
gunean egin dit barruak bira bat... ezin esan ere noiakoa! ...  
Ez baña gizon zakar, beltz, itxusi aren itxurak bildurtu na-  
belako, ez; aren itxura ikustez oitua nago-ta; ezpa'da...  
(*Motel*) gizon zakar, beltz, itxusi ura... maixuaren aita da-  
lako; eta... dakién guzia berari esaten diolako... «Nun za-  
biltzate? —galdetu digu. Eta *zurtzun korda* gelditu gera,  
zer erantzun jakin ezta.

Ikusirik ezer erantzuten ez giñola, eldu digu bioi, eta  
kendu dizkigu sorbaldatik galtzaz bera zintzilik garamazki-  
guzen liburu-zorroak, len-len esanaz: «Emen mendian ibil-  
tzeko, abek traba egingo dizute bai, ta nik eramango diz-  
kitzuet ikastolara, bertara joaten zeratenerako». Eta «tapa-  
tapa», gure zorro ta guzti jua da... Ona jarriko zan mai-  
xua zorro aiek eraman ditzkanean, nola arkitu gaitun jaki-  
ñik! ... Gure errukarria biar! ...

Nik negar ta negar egiten nuan, baña Anton-Kukullu'k  
parre, ezergatik ajola ez dio-ta. «Ez ari orren makala izan!»  
esan dit. «Zigor bat gorabera, zozo-kumak artu bear diz-  
kiagu orain bai, ta gero gerokoak. Guazen ba».

Berriz ere bere esan okerra entzunik, jarraitu diot alda-  
tzean gora, ikastolara biurtu bearrean, ta laister giñan abia  
zegen zuaitzaren abarretan. Baña... gu jua geran orduko...  
abia utsik!



Nik ez dakit nok, zuaitzetik jeistean, katigatu zait gaitza ipurdia adar punta baten, eta... *{Gaitza ipurdia erakutsiaz}*) ara nolako arratada... Munduko zozo-kuma guziak emango nitun orduantxe nere gaitza-ipurdia osorik ikustiarren, eta augatik amak emango didan zigorkadeatik azkartzearren, baña munduko zozo-kuma guzi oiek eman bearrik gabe, azke, eta nere gaitza urrua dariola. Bitartean, ni nere arratadeari begira, eta zozo arra, adarrik adar, txistu-txistuka. Bazirudin esaten zuala: «Don...tze...les...ti...ño» beintzat, bere abestiak maixua gogora ekartzen ziran.

Eman diot negarrari, eta Anton'ek esan dit: «Ez eik oriatik negar egin, amari esaiok eskolan puskatu zaikala gaitza, eserlekuak zeukan giltzen baten katigatu-ta, eta ez au joko». Poztu naiz arek asmatu duan gezurrarekin ondo aterako naizelokoan. baña aldatzetik jetxi geranean... ai ene!... amakin topo!... Eta artean eskolako orduan! *(Larrituta)*, Au da au! ... Au da au! ... Zer egin bear det nik? *{Baztertzen da negarrez}*..

*{Lenak baño ixil aldi luzeagoaren ondoren, jendeaganotz parrez aurreratutd}*. Zer?... Benetan ari nintzala uste izan al dezute...? Bai zera...! Guzi ori jolas bat izan da, ikusi dezazuten, bear ez bezela dabillanak benetako atsegiñik ez duala... Ni, zintzo-zintzo juaten naiz ikastolara; lagun txarrakin ez naiz biltzen, eta gurasoen esana egiten alegintzen naiz, Jaungoikoak orrela agintzen du-ta. Eta guzi au egiñaz, ezereen kezka gabe eta pozik bizi naiz; gañera guziak maite naute. Ea ba, neska-mutillak: zuek ere bai, ta ni ere bai, beti-beti guziok onak izan bear gera.

(«Argía»-ren Egutegia, 1925, 85 orr.).

## 15 IJITOAK ETA NI

(**Pedro Miel Urruzuno'ren  
ipuñetatik ataratako bakarrizketa**)

Urruzuno naz.

Ezagutzen nazue. Pedro Miel Urruzuno, abadía. Elgoibartarra. Mundu gitxi ikusia baiña mundutarrakin asko ikasia.

Nik ez dot ezer be sortu. Adar jotzalea naizala esaten dauste batzuk. Ori ez. Nik, ikusi ala, esan egin izan dot ikusitakoa. Eta iñori kalterik egin barik.

Ez etorri nigana azpi-lanian ibiltan dakidala-ta. Ori ez. Gizon zabala naz eta beti uste izan dot, gaurko ainbeste nergargarrikerien artean, barre egiteko eskubidea be daukagula. Eta orren atzetik nabil.

Ixilik mesedez. Errespetu pixkat. Ez al dau merezi errespetua ijitoak, gitanoak konpesatzera datozala ikusteak? Ez-tulik be ez egin. Bestela Guardia Zibillak zarielakoan gitanoak iges egingo leuke.

Entzun.

Bi nago konpesonarixuan eta emen dator ijito bat, amar bat erreberentzi egin, bularra jo ta jo...

—Emen naz.

—Ikusten zaitut eta bildur naz.

—E? Abadía eta bildur? Orrela nai dau nik Jaungoikuagan sinistutea?

—Nik karteria aidean dabilladala sinistu dodan lez.

—Tentasiñoia ez da ba nigandik asi.

—Bildurra be ez da ba nigan motibu barik sortu.

Ia, ia. Kinpesatzera zatoz?

—Bai jauna, bai.  
—Eta?  
Ezer oztu dozu?  
—Ez, jauna. Oztu ez. Berotu be... iñoiz andreari lepoa izan ezik...  
—Ez dautzut pregunteu oztu, otzitu, ostu baiño.  
—A...! Lapurtu esan nai dau berorrek. Errobar e?  
—Bai, orixe berbera.  
—Uste dot, jauna, nik andriari lepoa ez-ezik, beorri be barrixuren batek berotu dautsazala belarriak.  
—Ia ezer ostu dozun itaunduten dautzut.  
—Lapur fama ba dogu baiña...  
—Eztautzut esaten zeren fama dozuen, ia ezer ostu dozun baño,  
—(Auxe da gizonaren jakin bearra!) Ez naz gogoratzen, jauna, baiña beorrek nigaz ezelako kezka edo sospetxarik ba leu ...  
—Egunik erosten dozu?  
—Ez jauna, ez.  
—Surik egiten?  
—Bai jauna, bai. Eta nai dabena betor gure etxera, gaztaña batzuk erreta jatera.  
—Gaztañegirik ba dozue?  
—Ez jauna, ez,  
—Gaztañarik erosten?  
—Ez jauna, ez,  
—Iñok emon?  
—Ez jauna, ez, geuk artu iñor konturatu barik.  
—Nundik?  
—Nundik? Ba... dagoen lekutik.  
—Eta leku ori zeñena da?  
—Izenez don Kalendario, baiña izanez... Zeñek daki? Ara, jauna, egia egia: Jaungoiko gure Jaunak egin eban munda guztiontzat; ez eban ipiñi mugarririk, mojoirik; baiña Adan'en semietan batzuk ziran tontoak, eta besteak aguduak; Guk lenengotatik dogu gure jatorria, baiña guk eztaukagu kulparik areik tontoak izatena, Paperetan ez da se-

kula areik ezer saldu eben agiririk, eta origaitik gure to-kamenak be emen munduan egongo dira nunbaiten. Bigar-renak, esan dodan lez, agudoak ziran, mugarri eta mojoy sartzalleak, baiña euren buruz, eta errazoiaren kontra. Ori-gaitik kontu egiten dogu mugarrarik ez dagola, eta origai-tik seguruen seguruen, iñor inkomoratu barik eta ixil ixi-lik al dana artzea dala amodio santuan.

—Ara, ez dot nai emen pilosofirik. Esan egizu, zenbat gaztaña saku eroanda daukazuzan.

—Asko ez, jauna.

—Zenbat?

—(Zazpiki alu au!) Ara ba, jauna, zortzi be izan leikez, baiña izan daitezala ba zazpi.

—Zenbaten saltzen dozu sakua?

—Al dan bestian jauna, al dan bestian.

—Ba al dan besteko ori emon egiozu don Kalendario'ri, eta kittu. Bestela ez dago asoluziorik.

—Emon ba, jauna, azaolixua eta beste ori ordainduko dot.

—Ezin neike. Lenengo ordaindu.

—Berbia emoten dauzat.

—Nungo berbia? Ez dau balio. Zoaz eta gero etorri.

—Ondo da, jauna, ondo da. Agur eta datorren urtearte. Orrelaxe joan nire ijito laguna.

Berak urten eta emen dator beriala beste bat.

—Konpesatzera?

—Al dana egitera, jauna.

—Damututa?

—Bai jauna, bai. Ikusi dot nire laguna konpesatzen eguan bitartean, areri parkatzeko baiño ardura geiago euki dabela berorrek kartera esku artean gorde eta zaintzen. Eta egia, egia jauna. Damututa nago..., arek kartera orí kendu ez dauksalako.

—Examiña egin dozu?

—Bai jauna, bai, examiñatu dot nun sartu daben bero-  
rrek kartera ori.

—Kontuz ba eta bildur Kristoren zigorraz.

—Nik sarri artzen dodaz kristonak, jauna, eta ez Kristok emonda.

—Koplak laga eta asi gaitezen.

—Zazpigarrenian ezer ba dozu?

—Saski barruan..., ezer bez, esateko moduko gauzarik beintzat.

—Ez dautzut esaten saski barruan, zazpigarrenian baiño, zazpigarren mandamentuan.

—A! Mando kontuan dabil berorri. Ba ez jauna, mando mantarik be ez daukat.

—Gorra zara edo zer?

—Gogorra..., arrazaz danok gara gu gogorrak.

—Ez dot esaten gogorra, gorra baiño.

—Bai, bai, entendiduten dautsat. Erderaz dabil berori. Jakiña, gorra txapelari esaten dautse erdaldunak. Gure maixu zarrak be gorra deitzen eutsan, eta asarre zanian, ostera, porra.

—Gorra ta porra! Ba dakizuz Jaungoikuaren mandamentuak?

—Bai jauna, bai.

—Zazpigarrena?

—A bai. Ointxe obeto ulertzen dautsat. Porra, borra... borratua esan naiko dau berorrek.

—Zer borratu!

—Ez daki?Len zan, zazpigarrena ez ostutzea. Orain a borratu eta az arrapatzia; ala diño gure kuadrillan.

—Dana dala, ezer arrapatu dozu?

—Ez jauna; olloen atzetik ibilli izan naz, baiña zartuta nago ta alperrik,

—Ba daukazu iñoren gauzarik?

—Iñorena izandakua bai, baiña...

—Zer baiña?

—Orain neuria.

—Zer da ba?

—Ara, jauna, erloju auxe.

—Arrapatua al da?

—Ez jauna, geldi geldi egoan nik artu nebanian.

—Iñorena da?  
—Ez jauna, Atxazpi'ko nagusiarena da.  
—Eta a ez al da iñor?  
—Ez jauna..., iru arru ez ditu pixatzen da zelan izango da iñor?

—Tira, laga pilosofi guztiak eta erlojua be laga egoan tokian.

—Ai jauna, pilosofiak lagateko konforme nago, baiña erlojua...

—Zegaitik erlojua ez?

—Traba askotxo dagolako bide orretan.

—Eta artu zendunian ez egoan trabarik?

—Nik ondo dakit jauna, eta origaiti diñot.

—Eta orduan aldendu zenduan traba guztiak?

—Bai jauna, dan danak.

—Ba orain be beste ainbeste egin.

—Jauna, derriorekua ba da aleginduko naz.

—Derriorekua da asoluziñoia artzeko.

Ondo da jauna, geldi bedi ta agur, datorren urterarte.

Eta alexe jua da nire ijitoa.

*(Karteria falta yakola konturatuta)* E? Au ez da benetan izango!

Nire karteria... Baiña nun egon naz ni? Demontre demontrezena...!

*{Arin aringa urteten dau}.*

*{Barrero sartuz}*

Barre egin dozue?

Ikusi dozuenez, nik ez dot iñor denuntziatzen. Nik lagundu egin dautzuet egunero ikusten dogun zerbait barrero ikusi eta gogoratzen. Eta abadía naizen aldetik karidadia egin dot zuekaz. Ez al da egia? Baiña nai dozue jakin ijitoa billatu eta zer esan daustan?

Entzun.

—Seguru egon jauna nik ez dautsadala ezer ostu.

—Niri guzurrik ez esan.

—Ez jauna, ez.

—Eta danen gañetik, damua.

- Bai jauna, bai. Damututa nago. Bene benetan.
- Benetan! Zegaz damututa?
- Sekula inok ziririk sartu ez eta abade batek sartu be-  
rra. Karteria utsik eguan.
- A, ta len ez dozu ba esan zuk ez dozula ostu?
- Ostu ez, ba, ostu ez. Ez dautsat esaten ba utsik egoala?  
Ezer ez dagon tokian ostu al leike?
- Intentziñoia izan dozu beintzat,
- Bai baña balitz eta bazan, biak alkarren kazan.  
Mesedez, esango dausta ze ordu dan?
- Zoaz elizpera, torrera begiratu eta an ikusiko dozu  
argi.
- Baiña nik ez dakit latiñik.
- Zertarako bear dozu latin jakitea?
- Lumeroak igarteko.
- Zoaz, zoaz emendik lenbailen. Ni abadía naz, ba da-  
kizu? Emakumia nazala uste al dozu tentaziñoietan jarteko?
- Ai emakumien tentasiñoiak!
- E? Seigarrenak eta zazpigarren mandamentuak bardin  
balio dabenik ez al dakizu?
- Bai, jauna, bai.
- Nik ez dautzut erlojoaren tentasiñorik ipiniko, ez orixe.
- Ederra euki bear dau ba, jauna, tik, tak, tik, tak...,  
zarata fin fiña entzuten dautsat eta. Nerbioso lagateko eran.  
—(*Ori entzun eta eutsi nik lenengotik nire patrikarari*).  
Zoaz, zoaz lenbailen, bestela konjuruak botako dautzudaz.
- Baiña jauna, ez nago trankil ondo konpesatu barik, ez  
nago trankil.
- Egia esateko, alaxe ba, jauna. Kontzientzia estu estu  
daukat.
- Ba al dakizu zer dan kontzientzia?
- Bai, jauna, bai. Zerbait bestiei ikusi ta norberak euki  
eziña memelokeria dala erakusten daben ezakutuko espiritua.  
Konpesatu jauna, mesedez.  
Ainbat erregu egin ezkerro, abade lez ezin ukatu. Guazen  
ba.
- Zenbat denpora da konpesatu ziñala?

—Askotxo jauna.  
 —Urte bete bai?  
 —Urte bete..., onak.  
 —Zenbat urte dira ba?  
 —Orain urte bi kunplidu ziran iru lenengo konfesatu nitzala.  
 —Beraz, bost urte,  
 —Or nunbait.  
 —Orretik ez dira asko, askoren erdiak baiño.  
 —Bai jauna, bai. Orixegaitik esan dautsat ba askotxo.  
 —Ezer ostu dozu!  
 —Bildots bat ostu nai izan neban, baiña ezin ostu eta laga egin neutsan.  
 —Laga..., zuk berari ala berak zuri?  
 —Biok alkarri.  
 —Pekatu egin zendun ba, desioz ba da be.  
 —Izan leiteke, jauna.  
 —Damurik ba dozu?  
 —Bai jauna, bai damutxua be, ainbeste neke artuta al-perrik izan bearra.  
 —Baiña damu dozu pekatu egiña edo ez?  
 —Izango ez dot ba bildotxaren lekuan pekatuarekin gelditzea? Naiago neuke nik bildotxa milla pekatu baiño.  
 —Baiña zer dozu damu? Pekatu egiña ala bildotx barik gelditzea?  
 —Biak, jauna, biak.  
 —Eta bildotxa arrapatu ba zendun?  
 —Orduan pekatua bakarrik damutuko neban, baiña orain biak. Baleki beorrek zenbat kostatzen dan...  
 —Tira, naiku da. Ixo! Joan zaitex emendik. Zugaz ezin leike.  
 —Soluziñoia emon ba, baiña, lenengo,  
 —Asolusiñoia damurik barik? Ez nago denpora galtzeko. Seirak dira. Ba nua.  
 —Zelan daki seirak dirala?  
 —(Ori entzun eta nire erlojuagaz konturatu naz). Arraixo arraixua!



Nire erloju a?

—{*Nire erlojua emonaz*}. Orra, jauna. Ez dau balio. Nire eskuetara etorriko zan bildurrez ipurdi azpian euki dau beorrek, ta orra orain mallatuta, ezetarako balio ez dabela. Ni enaz jauna txatarra batzallea.

—Au da erlojuaren egoera!

—Beorrek be ez dau euki lagun urkoarentzat maitasun andirik euki eta erakutsi gitxiago. Beorrek be ba dauka ba zegaz damutu.

—Oraindik zeuk errazoa? Zoaz, zoaz emendik ainbat lasterren, inpernuko diabru guztiak zeure atzetik bialdu baiño len!

*A. Zubikarai*

## 16 GOIMAITASUNA

(Emakumezkoentzat)

### ANTZEZLARIAK:

Amonatxoa . . . . .	.70 bat urte,
Andone (bere alaba) . . . . .	29 bat urte,
Mirentxu (onen alabatxoa). . . . .	9 bat urte.
Andre Terese. . . . .	50 bat urte apañegi jantzia.
Andre Luke. . . . .	50 bat urte apañegi jantzia.
Andre Emile. . . . .	50 bat urte.

*Gertaera, gaur-egunekoa.*

*Euskal-erriko edozein urian.*

*{Antzokia; gela txiro errukarri bat; erdi-erdian, goi-xamarrean Josu Gurutz-iltzatuaren irudia. Leioan kaiola bat, txesi bat, barruan eta aldamenean ontzi batean krabelin-xorta bat. Zapia ¿goizean, Andone'k makiña gañean makurtuta lanean gogor diardu-, amanatxo elbarria, exer-leku (silloi) zar batean exerita, abetitxo xamur bat kantari ari da, Mirentxu'ri lo eragiñazi naiaz. Antzerkia amaitu artean, amonaxoak exer-tokitik ez du altxa bear}.*

### LENBIZIKO AGERRALDIA

*[Irudi ituna)*

*Amonatxo, Andone eta Mirentxu.*

ANDONE.—*(Mantaltxo bat josten ari da: orrenbeste lanez neke-neke ginda dago; pixka batean lanean ixilik jardun*

*ondoren, itun-üun esaten du*): Ezin det aurrera jarraitu..., eta lan au oso atzeratu daukat... Oraindik berriz ontziak garbitu ta etxera txudundu ta... Jaungoikoak daki zenbat lan daukadan... Arren, lagun zaidazu, Jaun errukitsu orrek...!

AMONA.—Andone...! zer dezu?

ANDONE.—Ezer ez, ama, ezer ez; gogorapen batzuk nerabilzkian buruan...

AMONA.—Oso nekatua zaude.

ANDONE.—Ez, ama, ez...! ez nago nekatua. *{Berriz ere lanari ekiten dio, antz-eman ez dezaion}*.

AMONA.—Ene alaba gaixo, errukarria! Martiri bat zera!

ANDONE.—Ez orrela mintzatu, ama, itun-itun jartzen nau-ta.

AMONA.—Bai, bai; ori ola da; daramazun gurutze ori aztu-negia da zuretzat.

ANDONE.—Bañam, amatxo: zertarako mintzaten da orrela... Bizi bedi alai...

ANDONE.—Bai, ama; gauz oiek beti gogoan erabiltzea kaltegarria da berorren gaitzarentzat..., eta gañera itun egonda zer aurreratzen du?

AMONA.—Egia da: ez det ezer aurreratzen; baño, Andone, nola egon niteke alai neregatik daramazun gurutzeari begira...?

ANDONE.—Ez, ori ez! Nere aurtzaroa lan geiago egin zuan berorrek neregatik; eta lan orren erdia bederik orain nik ordaindu ezkeru, pozik negoke.

AMONA.—Eskerrikasko, alabatxoa, eskerrikasko; zure biotz on orrek Jaungoikoandik bakarrik artu lezake bear bezelako ordaña...!

ANDONE.—*{Josu Gurutzeatuari begira}*. Gure nekeari begira dagoan Jaun errukitsu orrek, bear dan garaian alaituko gaitu. *{Zutituta}*. Aurrera, amatxo; ez bildurrik izan...!

AMONA.—Aingerutxo bat zera, Andone...! *{Deia}*. Deitu dute...!

ANDONE.—Irikitzera nijoa... nor ote da? *{Karteruarekin izketan; Andone'ri bakarrik adituko zaio}*. Ondo da, ondo da; xox bat esan dezu, et...? Bereala ekarriko dizut.

*{Kutxa edo kajoi batean larri-larri billa ibilli dedi}.  
Tori... Agur. {Ixten du atea}.*

AMONA.—Eskutitz bat.

AN,ONE.—Bai, alaxen da,

AMONA.—Norena ote da?

ANDONE.—Ez dakit. Selluan Ameriketa'koa dirudi. *{Irikitzen du}.*

AMONA.—Ameriketa'koa...! Norena ote da?

ANDONE.—Izenpean begiratuta jakingo degu. *{Ikaraz gorri-gorri eginda gelditzen da. Amonak zer edo zer ba-duala igertzen dio}.*

AMONA.—Bañan... zeñena? zeñena da?

ANDONE.—*{Begietatik irten bearrean dauzkan malkoai eutsi eziñik}.* Joseba'rena! ! nere senarrarena! !

AMONA.—*{Saminduta}.* Eta zuri idazteko ausardia izan du, senar lotsagabe, ajolagabe orrek?

ANDONE.—Itxoegin, ama, pixka batean; ikusi dezagun lendabizi zer dion; ba'liteke ta...!

AMONA.—Jaungoikoak nai dezala!

ANDONE.—*{Biotzaren larriaz ezin irakurri du}.* «Andone biotzekoa: Luzaroan zuen berririk gabe nago». *{Indarrez}.* Ikusten du oraindik ere nola oroitzen gaituan!

AMONA.—Jarrai, Andone, jarrai zazu..., gizon orregandik gauz onik ezin etorri liteke-ta...

ANDONE.—«Ene alaba Mirentxu ondo egongo da, noski? Arreta aundiaz kontu egiozu, ni orrera joaten naizenean azia ta eder-ederra ikusi nai nuke ta».

AMONA.—Arreta aundiaz kontu egiteko? Baño..., zer uste ote du biotz gabeko aita orrek? Zenbat diru bidaltzen digu ortarako?

ANDONE.—*{Irakurriaz}.* «Ni oso ondo nago. Ameriketan diran erririk aundienetan ibilli naiz: oso ondo: oso alai bizi naiz... Dirua gutxitxo... Zerbait bidaliko ba-zenidake...» *{Berri onek biotza zauritzen dio ta negarrez asten da}.* Lotsagabe aiena! ... Ura alai bizitzeko, guk dirua bidali beraz...

AMONA.—Ez al nizun esaten? (*Mirentxu'ri*). A! Zenbat mal-ko samin ixuri-azten dizkigun zure aitak!...

MIRENTXU.—{*Bat-batean*}. Nere aitak? (*Andone eta Amona ikaratzen dira, lo zegoala uste bait-zuten*).

ANDONE.—Bañan, ez al zeunden lo...?

MIRENTXU.—Bai..., alegina egin det..., bañan nere barru ontan alako aixkure kilimakor batzuk nabaitzen nituen ta iñolaz ere ezin lo artu izan det. Bañan..., nere aita il zala esanez zidaten, baña...?

AMONA.—Bai, enetxua, bai. Gureztat il dala esan diteke.

MIRENTXU.—Gureztat bakarrik? Eta bestientzat ez...?

ANDONE.—Zaude ixillik, Mirentxu, zaude ixillik! (*Muxu eman eta belaun gañean jartzen du*).

MIRENTXU.—Adi beza, ama! Amerika edo dalako ori urruti al dago emendik?

ANDONE.—Zergatik diozu?

MIRENTXU.—Biar igandea da bai, ta arratsaldeko ibill-aldian araño eldu bear degu: aita ezagutzeko gogo aundia det! Amatxo, zergatik negar egiten du? Orren urruti al dago, bada? Edo aita maite dedala esatea ez al du nai...?

ANDONE.—Bai, alabatxo, bai. Maite zazu biotz-biotzez eta egunero-egunero Jaungoikoari otoitz egiozu lenbaitlen onera etorri dedin.

MIRENTXU.—{*Deitzen dute*}. Zeñek deitu ote du? Irikiko al det atea, ama?

ANDONE.—Zoaz, enetxoa, zoaz; iriki zazu. (*Arpegia esku-zapi batez legortzen du. Mirentxu'k anka-puntetan poliki-poliki bildurrez bezela, aurtxoak egin duten bezela, atea irikitzen du*).

## BIGARREN AGERRALDIA

LENGOAK, ANDRE TERESE TA ANDRE LUKE

MIRENTXU.—{*Makurtuaz*}. Aurrera... Andere agurgarriak, sartu bitez...

- A. TERESE.—Egun on, etxeuak...!
- ANDONE.—(*Bidera irtenez*). Bai berorri ere, Andre Terese...!
- AMONA.—Jaungoikoak egun on deigula... (Bi Andereak batean burua *arro antzean makurtzen dute*).
- ANDONE.—Beon jauregian bezein exer-leku ederrik ez dute emen izango ta azketsi; exeri nai ba-dute... (*bi exer-alki eskeñiaz*).
- A. TERESE.—Ez, ez; milla esker. (*Ixilik bere lagunari*). Gu-retzat a zer exer-tokiak xoe...!
- A. LUKE.—(*Lagunari*). Etxe onek ikullu bat dirudi...
- A. TERESE.—Agindu nizkitzun bi dozen mantel aek nola dijoazen ikustera etorri naiz.
- ANDONE.—Oraindik atzera xamar daude; ala ere bat erakutsiko diot. (*Ekartzera dijoa*).
- A. TERESE.—Bai, bai ekar zazu. (*Lagunari*): Etzenun uste-ko, noski, etxe au onen kupigarri zegoanik...?
- A. LUKE.—Ez... baño sendi oek edozein gauzetan dirua ondatuko ez ba'luteke, bestelakoa litzake oien biziera.
- A. TERESE.—Eta batzuetan nolako aundizki itxura artzen duten gero!
- A. LUKE.—(*Nazkatuta alde guzietara begira dagoala, Mirentxu ikusten du txoko batean aboa zabalik begira begira*). Eder orrek, nori begiratzen diozu? Nere buruko ginballa zure gogokoa al zaizu?
- MIRENTXU.—Bai, Andrea; baño..., ala ere krabelin-xorta ura naigo det nik.
- A. LUKE.—Zer bada?
- MIRENTXU.—Nereak bait-dira eta usai ederragoa bait-dute.
- ANDONE.—(*Irtenez*). Ona emen mantaltxo! Baño exeri bitez, zutik nekatuko dira-ta.
- A. LUKE.—Gu emen exeri...? Ez orixe...!
- ANDONE.—Anderea, nere etxea txiroa izan arren, garbia da.
- A. TERESE.—(*Lagunari*): Len esan dizudana! Txiro-etxean arrokeria nagusi! ). (*Soñekoari begira*). Ederki dago; galdartzu zuri oek mantalari itxura polita damaiote eta..., itxura ona izan ezkerro, or konpon, Mari Anton... (*Lagunari*: Zer deizkiotzu? Mantaltxo oiekin nere bear-

tsuenganako goimatasuna goi-goiko maillan jarriko det ala ez...? Batzarreko beste lagunak orrenbeste egingo dutenik ez det uste...).

A. LUKE.—Onelako bi dozena mantal eraman ezkeru, naikoa dezu eta ezer esanik ez du izango iñork... Oso politak eta apañak dira.

A. TERESE.—{*Andone'ri*}. Noizko bukatuko dituzu?

ANDONE.—{*Kontuak beatzakin atereaz*}. Begira, Etxekoandre; onelako bat egiteko egun osoa bear det: 24 egun; gaur illak 3... 24 ta 3 = 27; iru igande kendu..., ta 30. Il onen ogeita amar-gaubean egiñak egongo dira.

A. TERESE.—Iru igande zer dala-ta kendu dituzu?

ANDONE.—Igandea Jaungoikoaren eguna da ta... Lanik ezin egin dezaket.

A. TERESE.—Begira oni...! Beartsuak ere igandeetan ez dezute, beraz, lanik egiten...! Noiztik zuok *lujo* ori...?

ANDONE.—Ez uste izan ori *lujoa* danik, Jaungoiko ber-berak guziori jarritako agindu bat baizik...

A. LUKE.—{*Parrez*}. Ja, ja, ja! Ori ateraldia!

ANDONE.—{*Errukituaz*}. Bai, andrea, bai; Jaungoikoaren legea betetzea da ori!

A. LUKE.—Ondo da, ondo da; baño ez det nik uste Jaungoikoak zuei onelako gauzik eskatzen dizutenik; bestela goseak il-bearrean ziñateke...; egoera kupigarri ontan zaudeten ezkeru, *lujo* oek guretzat, aberatsetzat utzi bear zenitzutekela deritzat.

ANDONE.—Ez, andrea, ez! ; Jaungoikoaren bildur santua galdu baño naiago degu etxez-etxe eskean ibilli. {*Bero-bero*}. Jaungoikoaren agindurik txikiena lurperatu baño lenago... {*erabat berotuta...*}, gure bizibidea eskea izango da...!

A. TERESE.—Utzi ditzagun, utzi ditzagun ezereen onurarik ez dakarten gauz oiek eta goazen arira! Noizko bukatuko dezu nere lana?

ANDONE.—Il onen 30 gaubean billa etorri diteke.

A. TERESE.—Onda da; ez gero beste egun baterako utzi...! datorren illaren lendabiziko egunean nai ta naiez Batza-

rrera eraman bear ditut; egun ortan guziak ageri-agerian ikusi bear dute nik txiroai diedan goimatasuna!

ANDONE.—Onda da; nere kontu: bañan, arren, oartxo bat egin nai diot.

A. TERESE.—{*Izango degu orain ere...*}. Zuk esan,

ANDONE.—Bada... mantaltxo au amaitu ezkeru, kontuan erori naiz uste baño lan aundiagoa duala bakoitzak eta iñolaz ere ezin egin ditzakedala peseta batean...

A. TERESE.—{*Ulertu ba'lu bezela*}. Nola? nola esan dezu?

ANDONE.—Alegia... sei erreal bederik bakoitza ordaindu bearko didala...

A. TERESE.—Sei erreal...? Ez. enetxua, ez! Alajaña...! Nik ezertarako bear ez ditudan mantal ziztrin oiek zuri sei erreal bakoitza ordaindu...! Ez dezu gutxi nai...! Beartsuai nola edo ala laguntzeagatik egin-erazi dizut lan ori, nere goimatasuna erakusteagatik... Zer uste dezu zuk!, ganbara bete diru daukadala, edo zer?

ANDONE.—Andre Terese..., ez al du ikusten ni beartsua naizela...?

A. TERESE.—Orren beartsua ba'zera, zoaz eskera. Mesede aundi bat egiten nizula uste nuan, bañan ikusten dedanez, ez da ala...

ANDONE.—Ez bedi asarretu, Andre Terese...; bañan mantal bat egiteko egun osao bear det eta gañera aria ere nere kontura dijoa, eta nola nai du uskeri orregatik..,

A. TERESE.—Aria! Zenbat balio lezake mantal baten ariak? Geienez bi xox, uskeri bat!

ANDONE.—Orixe; bañan etxeko bear guziak ordaintzeko irixten ez dan pezetatxo orri ariarentzat bi xox kendu deizkiogun; beste iru. makina erabiltzeagatik; xox bat, petrolio erosteko... {*Negarrez*}. Nola mantendu bear ditut, amona gaxo errukarri au ta nere alabatxoa?

A. TERESE.—Bai, bai; ikusten det geiegikeririk eskatzen ez didazula; bañan lan ori ez da neretzako, ordea...

A. LUKE.—{*Lagunari: Zergatik sartzen zera onelako eginkizunetan...?*}.

A. TERESE.—Lotsakizuna, orra; lotsakizuna... Izan ere, ain-



beste alegin egin zidan Batzarreko Andere Lendakariak...  
Gañera zer edo zer egin dutenen izenak izparringietan  
agertuko omen dira ta nereaz azaltzen ez bada, zer esango  
dute? [*Andoneri*] Zertan gera, beraz?

ANDONE.—(*Lotsatuta*). Sei erreale baño gutxigoan ezin josi  
ditzakedala.

A. TERESE.—Tira, ba. Lagundu dezaiegun beartsuai. Bost  
erreale emango dizkiizut. Pozik egongo zera, noski?

ANDONE.—Ez, andrea, ez; sei errealeko ori bear det,

A. TERESE.—Ai, petralki! petralki! Iritxi dezu azkenean nai  
zenduna, zital orrek! Mantal bakoitza sei erreale ordain-  
duko dizut, baño ortarako Andoni jaunari ean bearko  
diozu zenbat ordaintzen dizudan, entzun? Jakin dezala  
Andoni jaunak ere.

ANDONE.—Bai, andrea, bai; nere kontu,

A. TERESE.—Ez gero aztu?

A. LUKE.—Ikusi dezute! Beartsuak izan arren, nai dutena  
egiten ondo dakite.

A. TERESE.—Agur; automobilla atean zai daukagu-ta.

ANDONE.—Agur: Jaungoikoak lagun dagiela.

AMONA.—Agur, agur; bijoaz ondo, Jaungoikoaren izenean,

A. TERESE.—[*Atetik*]. Bildur naiz... Andoni jaunari esatea  
ez gero aztu? [*Irtetzen da ordurako*].

## IRUGARREN AGERRALDIA

[*Irudi ituna*]

### AMONATXOA, ANDONE ETA MIRENTXU

ANDONE.—[*Atea itxi ondoren*]. Oek al dira esku-zabalak?  
Goimaitasuna alde guztietara zabaltzen dabiltzanak, oiek  
al dira?

AMONA.—Ez, enetxoa, ez; goimatasunaren itxurazko jarraileak, onbide oni azaletik begiratzen dietenak besterik ez dira oiek!

ANDONE.—Baño... eskuzabalak diran ustean egongo dira noski?

AMONA.—Uste ortan daude, bai; baño usteak erdia ustela.

ANDONE.—Oiek egiten dutenari goimatasuna deitzea, onbide eder onen izena azpikcz-gain jartzea dala esango nuke nik. Izen ori lurperatzea!

AMONA.—Egi aundiagorik ezin esan zentzakean, Andone.

MIRENTXU.—Amatxo, andere oiek aberatsak ala txiroak ziran?

ANDONE.—Aberatsak ziran; bañan aberats errukarriak.

MIRENTXU.—Ta, zer esan nai du orrekin?

ANDONE.—Biotz gutxi ta diru asko; biotz txikia ta aberastan aundiak dituztela.

MIRENTXU.—Zer bada?

ANDONE.—Beartsuen maitaleak ez bait-Dira; gu bezelako txiroai laguntzeko kemenik ez bait-du oien biotz txikiak.

MIRENTXU.—Orduan, obe izango da danak gu bezelakoak izatea, oien antzekoak baño? Amatxo, ez al da egia nik berori maite dedala, berorrek ni ere bai, guk amonatxo, amonatzok gu, eta irurok elkar asko maite degula?

ANDONE.—Bai, enetxoa, bai; ta maitasun orrek ludi guztiko aberastasanak baño askotzaz geiago balio du *{indarrez}* eta egunen batean ogirik gabe arkitzen ba'gera...

MIRENTXU.—*{Ixildu-aziaz}*. Egunen batean zer janik ez degula arkitzen ba'gera, ba al daki, zer egingo degun?

ANDONE.—Zer?

MIRENTXU.—Elkar jan muxuka,

ANDONE.—*{Biotzez Mirentxu laztanduaz}*. Eder ori, aingerutxo bat bezin ona zera!

AMONA.—Errubagea izatea zer ote da? Beti onela irautea nai dakiola Jaungoikoari...! Andone, Ioseba'ren esku-titz ori irakurri zazu, bukatu zazu; baño emaidazu sendakaia lendabizi, onezkero garaia izango da-ta.

ANDONE.—*{Beste aldera begira, amak antz eman ez ezaion}*.

Sendakaia! Eta orain emango diot nik? Sendakaia atzo bukatu zitzaidan eta dana zorretan dakarkit. Atzo sendakilariak esan zidana! Urrengoan dirurik gabe ba ni-joan, etzidala emango...! {*Gurutzeari laguntz eske*}. Ene Jaungoikoa, lagun zaidazu...!

AMONA.—Ze bururapen darabilzkizu, Andone?

ANDONE.—Eskutitza nun utzi dutan ez dakidala... Gaizki diot...! A, bai...! Sakelean daukat. Sendakaiaren billa nioa. (*Gurutzeari begira*). Arren, lagun zaidazu, Jaungoiko errukitsua! [*Irtetzen cla*].

MIRENTXU.—{*Belaunikatuta, bere amonaren belaunetan besoak jarrita*}. Amonatxo, ez dakila bart zer amets egin dedan?

AMONA.—Nola jakingo det, bada?

MIRENTXU.—Oso polita, ikusiko du! Amatxo tarta eder aundi bat egiten ari zan sukaldean, bai...? ta tximinitik beera txuriz jantzitako aingerutxo batzuk jetxi ta... batek goxoak, bestetak urrak eta beste batek ezta tarta barrenean ipintzen zituztela... Ura tarta ederra egin zuten danen artean! Ura usai goxoa zerion...! Ainregutxoak joan ziranean, exeri giñan eta errezatu ondoren, jarri gendun tarta mai gañean. Nik goxorik politenak, jaten asi baño lenago, txoriari eman nizkion. Arren poza! Ikusi izan balu berorrek txoria pozez kantari eta kantari, neri eskerrak emanez, arrituko zan...! Eta tarta jatera ginjoazela, esnatu ez naiz bada? Ura tamala! Ezertzo ere jan gabe gelditu bear!

AMONA.—Orixe amets polita! (*Billobari begira irri-par goxoan*).

MIRENTXU.—Bañan ikusi balu berorrek tarta ura, amets ori baño geiago ederretsiko zitzaion. Nik beintzat alako tarta aundirik ez det beñere ikusi!

AMONA.—Ba al dakizu zergatik?

MIRENTXU.—Atzo baño jateko gogo geiagorekin beñere oeratu etzeralako.

MIRENTXU.—Apaldu gabe oeratu nitzalako?

AMONA.—Orrexegatik, enetxua, orregatik.

MIRENTXU.—Eta gaur apaldu gabe oeratzen ba'naíz, berriz ere amets ori egingo ote det?

AMONA.—Baietz esango nuke,

ANDONE.—{*Kezkatsu dator, kutxaretxu batez basoko ur utsa nastuaz azukrea balu bezela ta soñu aundia atereaz esaten duana ulertu ez dezaion*). Ama, ona emen ur pitin bat... Zera..., pixka bat bota diot; sendakaiia... bukatu egin bait-da ta bereala joango naiz billa... Nasketa goxoa..., da... Artu beza, ama!

AMONA.—[*Dana ulertuaz*]. Ez dio ajolik, Andone; ekatzu, ekatzu.

ANDONE.—Mirentxu, zoaz laixterka esku-zapiaren billa; sukaldeko mai gañean egongo da.

MIRENTXU.—Bereala ekarriko det; ba-nua. {*Irtetzen da laixterka*}.

ANDONE.—{*Basoa makiña gañean utzi ta amonaren burukoak antolatzen ditu*}. Bitartean txukundu dezagun au, bearra dauka-ta; orrela obeto egongo da...

MIRENTXU.—Ona emen esku-zapia!

ANDONE.—Ekatzu. (*Ipintzen dio poliki-poliki esku-zapia amonari ta basoa eskeñiaz, dio*): Ai, ama, ni aberatsa ba'nitzake...!

AMONA.—Ur au ez litzake orren goxoa izango...

ANDONE.—{*Arrituta*}. Zer, bada?

AMONA.—Orduan neskame batek emango lidake, ta orain zuk emanda bezin gozatsua ez litzaidake irudituko. Oso ederra dago, Andone, oso gozoa!

ANDONE.—Bai! ala deizkio, ama?

AMONA.—Bai, enetxoa, bai; zure biotz-zati bat da au! Biotz-usai atsegiña dario ur onek eta orrek ludi guztiko azukre ta sendakaiak baño geiago balio du, Andone.

ANDONE.—{*Igerri diolako*}. Izan ere... (*Zer esan ez daki*).

AMONA.—Ez bildurtu, Andone; buka zazu, buka zazu Joxe'ren eskutitza.

ANDONE.—Bereala, ama. (*Sakeletik ta irakurriaz*): «Asko jolasten gera. Diruz larri-larri nabil, baño...».

AMONA.—Lotsagabea...!

ANDONE.—(*Irakurriaz...*). «Zuek ere agian larri ibiliko zerate, ta orra erremedio-bide erreza: Larritasun ortatik irtetzeko egin bear dezutena da... {*Gañerakoa ixilik irakurtzen du... oben egin-eraziko balio bezela*). Ez, ez! beñere ez nik orrelakorik...

AMONA.—(*Jakin naiean*). Zer esaten dizu, Andone?

ANDONE.—Alperrik zabilta neri ori egin-erazi naiean! Ez ta ez!

AMONA.—Baño..., zer esaten dizu senar ajolakabe orrek...? Esaidazu bada, Andonie!

ANDONE.—Zertarako jakin nai du...? Ez det naigabetu nai, ama!

AMONA.—Esaidazu, gaxo orrek! Ixiltasun orrek biotza zauritzen dit-eta...

ANDONE.—Orratx, ba: Zera... Berori gaxo-etxe batera, ospital batera eramateko...

AMONA.—Biotz gabea...! Ori dasaizu, beraz...?

ANDONE.—Baño..., ez, ama, ez; ez det nik orrelakorik egin-go; naiago det nere alaba besoan artuta atez-ate askean ibiUi.

AMONA.—Ala ere..., gauz okerrik ez dizu esaten; bidezkoa da ori; esan onak ondo artu bear dira, naiz etsaigandik etorri...

MIRENTXU.—(Orain arte itzik ere ulertu ez dualako). Baño... etsaiak ere idatzi al digu, amona?

AMONA.—(*Itun*). Bai, enetxoa, bai...!

ANDONE.—Ama...! Bego ixilik Jaungoikoagatik! {*Ixil-unea. Alkar negarrez ez ikustearren, bakoitza berealdera begira. Kanpoan pilarmonika edo beste ereskin batek zer-edo-zer joko du. Urruti ariko balitz bezela. Gero atean deitzen dute ta Mirentxu'k bakarrik entzuten du deia ta irikitze-ra bijoa*}.

LENGOAK ETA ANDRE EMILE

MIRENTXU.—Deitu dute! Irikitzera noa: zein ete da?

A. EMILE.—(*Mirentxu'ri*). Egun on, mitxirrika! (*Ama-alabak ixilik, itun ikusi ta*). Baño..., zer gertatzen da etxe ontan? Zer egiten dezute...?

MIRENTXU.—Ez al du ikusten...? Negarrez daude.

AMONA.—Jaungoikoak egun on. Adizu, Andone...! Etxeko-andre au...

ANDONE.—(*Pixkabana lasaituz*). Egun on, anderea...!

A. EMILE.—Bai zuei ere. Ikusten detanez, gure Jaungoikoak zuen eramanpena neurtu nai du...

ANDONE.—Bai, andrea, bai; ala dirudi.

A. EMILE.—Ez bildurtu, bada, eta izan uste aundi bat Jaungoikoagan, gauz eziñik ez digu bein ere eskatzen da; Berak daki gure indarrak zenbat lezateken; gañerakoa, Berak demaizkigun esker eta laguntzaz lortuko degu.

ANDONE.—Ori ala da! Baño... ain da aundia ta aztuna gurutze au...!

A. EMILE.—Ez Berak eraman zuana bezin aundia...! Dana dala... nik zuei ezertan lagundu al ba'dizaizuket...

ANDONE.—Eskerrik asko, eskaerrik asko; itz oiek nolako atsegiña dakarkidaten, ez daki berorrek...!

A. EMILE.—Atsekabe aundiren bat dezute, noski...!

AMONA.—Bat besterik ez balitz...! Atsekabez eta nekez beterik gaude, anderea...!

ANDONE.—Bizi-ezin kupigarria alde batetik eta nere senar-raren zoritxarra bestetik...!

A. EMILE.—Il al da bada, zure senarra?

ANDONE.—Ez, andrea; baño il balitz bezela da guretzat. Gutzaz oroitu gabe Amriketan dabil, doakabea!

A. EMILE.—(*Errukitua*). Bai, bai... Ortaraxe nator ni; egin al izan ezkerro, zuri lan eskeintzera. Gure Txadon-Nagusiko «Andoni Deunaren jantzitegia» aipatzen noiz edo

- noiz entzungo zendun noski? Jantzitegi ortarako soñeko batzuk egin bear dizkidazu. Ondo ordainduko dizkitzut.
- ANDONE.—Barkatu, baño... oraingoz beste egin-bear bat det. Onen antzeko *{erakutsiaz}* bi dozena mantaltxo il onen azkenerako josi bear ditut eta...
- A. EMILE.—*{Eskutan artuaz}*. Auxen mantal apaña...! eta bakoitza zenbat ordaintzen dizute?
- ANDONE.—Uskeri bat...! Sei erreak..., besterik ez!
- A. EMILE.—Sei erreak...? Entzutekoak ez ditugu entzun...! Saltokiren baterako izango dira...?
- ANDONE.—Ez, andrea, ez! Andre Terese'k agindu dizkit... Egintza onekin txiroai dien goimatasuna agertu nai omen du...!
- A. EMILE.—Eta ori al da egitazko goimatasuna? Kristau goimaitasunaren berri ba ote daki andre on orrek! *{Ixiltzen da pilarmonika edo dalko ori}*.
- AMONA,—Noiz-edo-noiz ixildu da kitar-soñu-txatar ori! Ba'zirudian gure atsekabeaz ixeka ta parra zegiola...!
- A. EMILE.—Onelakoxea da gaur-eguneko mundua! Nor-berrak atsekaberik ez duanean, lagun-urkoak duanaz gutxi oroit...! Baña sorbalda gañera nekerik txikiena dator-kionean, orduan kontuak!
- ANDONE.—*{Arira biurtuaz}*. Eta, aitatu duan lan ori...
- A. EMILE.—Bai; lan ori, mantaltxo oiek baño errexago egingo dezu eta geigo ordainduko dizut.
- ANDONE.—Aldi bateko lana ote da?
- A. EMILE.—Ziur-ziur ez nizuke esango, baño..., urte guzira-ko ainbat izango dala uste det.
- ANDONE.—*{Pozez}*. Ondo da, ondo da; esan bezait, bada...
- A. EMILE.—Soñeko txuriak egin bear dituzu eta lan orrekin egunean lau edo bost laurleko irabazi ditzakezu...
- ANDONE.—Ederki, oso ederki dago...! *{Beste egin-bearraz oroituta}*. Baño... auxen lana! Beste bete-bear orrekin zer egin bear det...?
- A. EMILE.—Nik emango dizut... Ezin dezakezula, esan! oiala biurtu ta kito...!

ANDONE.—Baño... baietza eman ondoren..., ori egitea..., ondo al deritzaio berorri?

A. EMILE.—Bai orixe! Ordaintzen dizunakin etxeko gorabera guzitarako ainbat irixten al zaizu?

ANDONE.—Ez, andrea, ez...!, ez ta nere ama gaxo oni laguntzeko aña ere...

A. EMILE.—Eta... ala ere ondo al dagoan, diozu? Zuzentasunez etzaude ortaraño beartua; zuk eman dezun itz ori, zure kaltean, iñola ere ezin bete dezakezu. Bestela ere soñeko oiek zeñek josi Andre Terese'k arkituko du, bai...!

AMONA.—Andone, egia dio andere onek; berak diona egin bear dezu...

ANDONE.—Eta... oialak berari biurtzeko ausardirik izango al det nik?

A. EMILE.—Ez orren bildurrik izan...! Utzi nere kontu lan ori...

ANDONE.—Berorren biotz on orri nola eskerrak eman ba'neki!

AMONA.—Eskerrik asko...! Jaungoikoak guri bidalitako aingeru bat da berori...! Eskerrik asko...!

ANDONE.—Eta... lanean noiz asi nindeke?

A. EMILE.—Gaur-arratsaldean.

ANDONE.—Milla esker...! berorrek ez daki zenbaterañoakoak diran gure bearrak...! Okiñak ogirik ez digu eman nai; sendakigilleak... berdin; gañerako guzia ere zorretan dakargu... eta bide ontatik...

A. EMILE.—Ez bildurtu! Guzia zuzenduko da; Jaungoikoak biotzez otoitz dagionari entzuten dio, ontasun ber-bera bait-da.

ANDONE.—Etxe onen jabea ere biar etortzekoa da... Izan ere orañarteko nere irabaziak ain laburrak izan dira...! egunez lanean gogor jardun arren, ezertarako etzait irixten... eta ala ere ikusten du berorrek etxe nola dagoan...

AMONA.—Egi utsa dio Andone'k... Bera bezein langillerik emakume gutxi izango da.

A. EMILE.—Ba-dakit, bai... orixe ber-bera esan zidan An-



doni jaunak, eta berak aginduta zuenganatu naiz.

ANDONE.—Ogi puska bat Andoni jauna!

AMONA.—Berori onera etorri aurretik, Andone'ri arrenka ari nintzaion; era ontan ezin jarraitu gentzakela; ta nik onezkeo sendatzeko itxaropenik ez nuala, bai, ta gaxo-  
etxera joatea zitzaidala bidezkoena.

ANDONE.—Jaungoikoagatik ixildu bedi, amatxo!

A. EMILE.—Ez orrelakorik esan...! Gaur-arratsaldean oial txuriak ekartzera natorrean, etxea garbitzen lagunduko dizut; ikusiko dezu! Zillarra bezela geldituko da.

ANDONE.—Baño... orrenbesteraño...

A. EMILE.—Nere senarrari ere zuetzaz itz egingo diot; Eliz Nagusian txiroai laguntzeko ba-da Batzar bat eta bera da ango Buru edo Lendakari eta arrek ere zer-edo-zertan lagunduko dizute.

ANDONE.—Eskerrik asko...! Onegia da berori...!

A. EMILE.—Nere aizpa berriz «Bingen Deunaren Batzar»-etako da ta guzion artean zuen zor oiek nola edo ala ordaintzen alegiñean aleginduko gera...

AMONA.—Jaungoiko Santua! geiegi da ori...

ANDONE.—Bañan... goimatasun ori nola eskertuko diot nik?

A. EMILE.—Ez dezu neri ezer eskertu bearrik, Jaungoikoari baizik. *{Gurutzea erakutsiaz}*. Soroetan txorrotxioka dabilzan txorietzaz ainbeste ardura duan Jaungoikoak, uste al zendun zuetzaz oroituko etzala?

MIRENTXU.—Txorietzaz ere) Jaungoikoa arduratzen al da, bada?

A. EMILE.—Bai, enetxoa, bai. *(Mirentxu alki batera igo, kaiola eskuetan artu ta txoria arrapatuaz, egan bidaltzen du)*. Baño... zer egin bear dezu?

MIRENTXU.—Txorietzaz ere Jaungoikoa arduratzen al da, zala Jaungoikoak eman diona... nik ez bait-det ezer ere emateko...

AMONA.—Aur errugabea...!

ANDONE.—Bai ona zerala, Mirentxu...!

A. EMILE.—Ez bildurtu, bada! Eta emendik aurrera utzi alde batera orain arteko illuntasun ori! *{Amonari}*:

Gaixo-etxera joateko ametsik ere ez egin, eta guziok elkarrekin bizi zaitezte alai eta zoriontsu, Jaungoikoaren pakean.

AMONA.—(*Andone'ri*). Andone, Jaungoikoak bidaldu digu aingeru au zerutik...!

ANDONE.—Baño... andrea, zer egin bear det nik orain berorren alde?

MIRENTXU.—(*Ba-baíean*). Beraz... amonak orain gaxo-etxera ez du joan nai? (*Txaloka pozez*). Eta... emendik aurrera guziok batean alai ta zoriontsu biziko gera noski?

A. EMILE.—Bai, eder, ori bai!

MIRENTXU.—(*Pozez txoratzen*). Bai, e...? nola du berorrek izena? Arren, esan bezait.

A. EMILE.—Emile.

MIRENTXU.—Gora Andre Emile!

AMONA.—

ta

ANDONE.—Gora!

A. EMILE.—Ori ez! Iosu gure Erosle maiteak erakutsitako Goimatasun Deuna biotzez goratu bear degu. Gora Kristau-Goimatasuna!

GUZIOK.—Gora! !

(*Gazteiz'ko Kardaberaztarrak erderatik euskeratua*).

## 17 POXPOLIN GORRIA

(Ekitaldi bakarra)

*Antzez-lagunak:*

*Lore, 7-8 urteko neskatxoa.*

*Elisabete, 28 urte, ta Mayfair Koronela, 40 urte; senar-emazteak, Lore'n gurasoak.*

*Cromwell jenerala.*

*Yohn, Elisabete'n aita,*

*Gudariak. Kaitane, umezaia. Itz egiten ez duten bi koronel, ta ofizialak.*

### LENBIZIKO AGERRALDIA

*{Mayfair koronelaren etxean. Gizategi txikia. Logelarako atea. Alkiluze, besaulki, maia. Barrurako atea. Leioa.}*

### ELISABETE TA LORE

LORE.—Zergatik zaude illun, amatxo?

ELISABETE.—Illun? Ez, maite; zoaz lotara, berandua da-ta,

LORE.—Ez naiz bat ere logure... Ta zu ere ez zera logure,

Ondo igertzen dizut nik bai logure ez zerana...

ELISABETE.—Tira, lotara, nexka txintxoa izan bear da.

LORE.—Ni ba-naiz nexka txintxoa, amatxo.

ELISABETE.—Bai, txintxoa zera, bai, maite! *{Besarkatu ta musuak musu emanaz.}* Baña zoaz ogera; berandua da.

Kaitane'k eramango zaitu, nai?

LORE.—Bai, amatxo; bañan lenengo ipui bat esan. Gaur egun guzian ez didazu ipuirik esan batere.

ELISABETE.—Biar esango dizut. Orain lotarako ordua da. *{Intziriz}*. Biar! *{Jaiki ta aterontz}*. Kaitane! *{Badator Kaitane. Etxekoan naigabea ageri du onek ere arpegian}*.

KAITANE.—Andrea!

ELISABETE.—Gure Lorentxo, nexka txintxoia da-ta, ogera joateko gertu dago.

KAITANE.—Bai, ta ondo txintxoia dalako. Goazen, Lore polit, goazen lotara.

ELISABETE.—Ez gero otoitzak aztu.

LORE.—Kaitane'k ez daki, ordea, aitatxoren otoitza,

ELISABETE.—*{Naigabe-ikaraz}*. Aitatxoren otoitza...! Zuk bai ordea, Lore: zuk badakizu.

LORE.—Jakin, bai; baña biok alkarrekin esan izan degu beti. Nik zurekin esan nai, amatxo,

ELISABETE.—Lore! *{Besartean estutu ta belaun gañean jarririk}*. «Aita gurea, zeruetan zaudena, aitatxori gudatean bizia zaitu zaiozu, eriotzatic gorde zaiguzu. *(Negar)*.

LORE.—Tira, amatxo. «Eriotzatic gorde gaiguzu, ta emaiozu...». Tira ba, amatxo.

ELISABETE.—*(Zotinka)*. Bai, maite... «ta emaiozu garaítzapena, lenbailen guregana itzuli dedin, maite degu-ta, etxean bear degu-ta...» *(Negar)*.

LORE.—Amen. *(Kaitane'k eskutxotik artu ta lo gelara darama. Loretxo atzera begiratzuz dijoa, betartea illun. Atera eltzean, amari pa botatzen dio eskutxoaz eta Kaitane'kin joaten da)*.

ELISABETE.—Nere alaba errukarria eta nere errukarria! Jauna, zergatik entzun didazu? Zertako garaitzapena eman, bere galdumendia izan-ta?...

JOHN.—Elisabete!

ELISABETE.—Ixiltxo, aita. Txikia lotara da... Ta? Ikusi?

JOHN.—Bai, ikusi det... Ua gizona ua! *(Arriturik)*. An zeramaten, beste koronelakin batera, gudarien erdian; bada ez zuan ematen bat ere lotua zeramatenik. Edozeñek esango zukean bera zala gidari... Burua gora, urratsa sendo... Badute legeak bidegaberik! ...

ELISABET.—Ikusterik izango ote det, aita? Oi nere senar maitea, noiz ikusiko ote zaitut! *{Badator Kaitane}*.

YOHN.—An egon nazu galde-erantzunak amaitu arte. Lord Cromweel berbera zendun. Arpegi beltza zizun general nagusiak, eta ateratzekoan oraindik areago. Irurari eman die eskua banan-banan, eta ikara sartzeko-alako abots zakarraz: Gizon bikañak zerate —esan die— iñoren agindupean ibiltzeko bikañegiak. Gero, gure koronelari begiratu, ta: —Izan ere! Orren gaztea! —zioan.

ELISABETE.—Orretan, ez ote dio barkatu egingo?

YOHN.—*{Illunki buruari eragiñaz}*. Ez!

ELISABETE.—Zer diozu? Zuk badakizu geiago ere! Esan, aita. Il egingo ote ditue?

YOHN.—Berak esango dizu. Itza eman, ta irurari utzi die bakoitz bere etxera etortzen, egunsentirarte bakarrik.

ELISABETE.—Ta badator?

YOHN.—Bai, badator.

ELISABETE.—Ai, au etxeratze illuna! *{Burua makurtu}*.

YOHN.—Ark bezela sendo bear dezu gero zuk ere biotza, Elisabete!

ELISABETE.—Baña il... ezin dezakete egin. Zer gaitz egin du? Ala gizon bikain eta gudari bulartsuak zigorkatzeko al dira Ingalterra'ko legeak?

YOHN.—Ingalterra'koak ez; baña gudaritzakoak zigor orixe ezarten diete.

ELISABETE.—Jaungoiko maitea,

YOHN.—Aintza ta gorapenak izango ditu eriotz-lagun. Ez du-te aberri-saltzailletzat ilko. Bestela ez zion Lord Cromwell'ek ala eskua estutuko. Utsik egin badute ere, bioztun eta ausarditsu izan diralako egin dute. Agindua, irudi utsezko jazarketa batalla-antz bat egitekoa artu zuten, etsaiak berengana erakarri, ta, bitartean, galdubearrean arkitzen ziran gudaritalde batzuek iges-egiteko astia izan zezaten; nork artu ordea oiei neurria? Beren biotz gartsuak eraginda, ekin zioten (ez itxura utsezko ta badaezpadako jarazketan) egin egiñeko gudaketan baikik; eta, ain bulartsu ekin ere! irabazi zuten. Gudalburu na-

gusiak zorionak bialdu nai zizkien, baña, ez bait-zuten agindua bete, esanekoak izan ez diralako, emen bialdu ditu irurak Londres'ko Epaitegi (Tribunal) Nagusira.

ELISABETE.—Eta Epaitegi Nagusiak eriotz-epaia emango ote die ba? Ez ote iru koronelok iru gizon ausart-bulartsuztat artuko? Gerra irabazi ez dute ba?

YOHN.—Biotzak erasaten dizkitzu itz oiek; legeak ez izan biotzik ordea, Elisabete errukarria.

ELISABETE.—(*Negarrez*). Nere errukarria, Jaungoiko maitea!

YOHN.—Ez egin negarrik... Danbor-otsa dirudi. Bera da. (*Leiotik begiratu da*). Gora biotza, Elisabete; beragatik ere, biotz-sendo agertu. (*Urruti samar danbor-otsa entzuten da. Koldobika Mayfair koronela dakarten guda-riena da. Sartzen da koronela*).

KORONELA.—Elisabete! (*Ta besarkatzen du, barruko naigabea ixurtzeke ordea*).

ELISABETE.—Koldobika! (*Danborrotsa sunsituz*).

KORONELA.—Ba al zanekin nentorrena? Badakizu beraz Londres'en zergatik nagon ere.

ELISABETE.—Bai, ez dit ordea aitag oraindik dana esan nai izan. Esaidazu zerorrek, Koldo. Badet biotz. Agintzen dizut. Eriotza al da?

KORONELA.—Oraindik ez da epaia emana. Goizaldean jakingo da. Gudariak atzera biurtzen ba'dira...

ELISABETE.—O! Jaungoiko maitea!

YOHN.—Koldobika, gizon bikaña aiz. Legeak zigortuko au; Aberriak ordea gora aipatuko dik ire izena.

KORONELA.—Obe nuen milla bider gudatean bertan il izan banintz... Emen, eta onela il-bearra... illuna da, aita. Elisabete gaixoa! Ta Lore?

ELISABETE.—Lo. Gure aingerutxu errukarria! Ez daki asko gaixo ark aitatzu nola dabilkiten! (*Negar, senarra besartean*).

YOHN.—Baniak ni ea Epaitegiko berririk jakiten diadan. Gora biotzak, nere maiteok. (*Badijoa*).

LORE.—(*Lore'n abotsa, barrutik*). Aitatzu, aitatzu! Aitatzu

etorri da! *{Agertzen da Lore lotako atorra luze ta guz-ti}*.

KORONELA.—Loretxo nerea! Oi, zein nexka eder egin dan gure alaba! *{Besoetan artu ta belaun gañean jarrarazten du}*.

ELISABETE.—Esnatu zaitugu, gaixo ori. Ez al zera ostuko? *{Soin berogarria jartzen dio}*.

LORE.—Bai, obe. Zergatik esan ez, amatxo, aita etortzeko zala?

ELISABETE.—Nik enekien-ta etortzeko zanik.

LORE.—Nik banekien ba, orra. Amets egin det bazetozela gudariak. Egingo nuke-ta danbor ota entzun ere egin dedala.

KORONELA.—*{Estu besarkatuz}*. Enetxo maitea! Jazarketa auek bai, biotzeko gudaketa auek bai, biotzeko gudaketa auek bai dirala irabazten gaitzak!

LORE.—Aitatxo, min egiten didazu orrela estututa... Orra, Ulea ere dana mardatu didazu.

KORONELA.—Ez da ezer, umetxo. Maite-maite zaitut-eta gaiztotxo onek, orra. Ta goxorik ere ez nik zuretzat ...

LORE.—Ez al didazu goxorik ekarri? Orretan, gerran ez da goxorik saltzen?...

KORONELA.—Ez, an ez da goxorik,

LORE.—Gudako ipui bat esan orretan, aitatxo. Amak gaur ez dit bat ere esan nai izan Jotarakoan.

ELISABETE.—Tira, Loretxo, ez zaiozu aitatxori gogaiteragin.

KORONELA.—Gogaiteragin ez, Elisabete. Zertan ariko gera atsegiñago?

LORE.—Ai, bai, bai, aita: Ipuia, ipuia. Illuna ala alaia, aitatxo?

KORONELA.—Ba... illuntxo da ba, illuntxo.

LORE.—Ortan ekatzu eskua, ama. Ola, izatea du nai duan besteko illuna.

KORONELA.—Entzun. Bein batean, baziran iru koronel.

LORE.—Orain zu bezela?

KORONELA.—Bai, orain ni bezela. Irurak uts bat egin zuten,

LORE.—Gaiztoak al ziran ba?

ELISABETE.—Ez, gaiztoak ez!

LORE.—Zuk ere ba al dakizu ipuia, amatxo?

ELISABETE.—(*Begiak xukatuz*). Ez; baña badakit gaiztoak ez zirana.

KORONELA.—Ez, ez ziran gaiztoak. Bakar-bakarrik agintari-iei uts-egin ziela; generalaen agindurik artzek egin zuten etsaian aurka ta. Olako uts-egiteak berriz general nagusiak ez ditu barkatu oi, ta...

LORE.—Gudalburu nagusia? nera laguna da. Cromwell generala ez da ba, aitatxo?

KORONELA.—Bai.

LORE.—Ataritik igarotzen danean, zaldi eder baten gañean joan oi da, gudari-talde aundiaren aurretik. Guziak diote bildur. Nik ez, nik ez diot bat ere. Nik, leiora irten, eta ola ola agur egiten diot sur-zapiaz; ta ark begiratu ta parre egiten dit.

KORONELA.—... Ixo! (*Adi-adi*).

ELISABETE.—Zer?

KORONELA.—Zer ez...

ELISABETE.—Koldobika! (*Burua soinburuan jarriaz*).

KORONELA.—Gudatean nagusiei egindako utsegiteak gogor zigorkatzen ditue. Olako errudunei badakizue zer egiten dieten...

LORE.—II?... Baña, amatxo, negarrik ez egin. Zergatik negar egiten dezu?

ELISABETE.—Ez da ezer... Olakoen etxeoak nituan go-goan...

LORE.—Ba! Ez negar egin, amatxo. Olako ipuiak ondo amaitu oi dira beti; ezta, aitatxo?

KORONELA.—Batzuetan

LORE.—Ba nik ondo amaitzea nai nuke! Oi, ez ditue ilko, ez!

KORONELA.—Ixo! Aizea edo... (*Danbor-otsa urrutirik urreratuaz*).



ELISABETE.—A! Ez, ez! Ez da aizea. Eurak dira! *{Jaiki}*.  
 LORE.—Gudariak! Nik ikusi nai ditut! *{Leiora dijoa}*. *{Kaitane sartu ta Lore'kin leiora}*.  
 KORONELA.—Elisabete! *{Besarkatuz}*.  
 ELISABETE.—O! Ez, ez zera joango! Koldobi maitea!  
 LORE.—Epaitegiko gudariak dira! *{Leiotik}*.  
 KORONELA.—Tira, utzi. Ta ez negar egin, umea oartuko da. Zerura arte, Elisabete. Otoitz eta biotz! *{Elisabete'n besoetatik eten eta badijoa. Elisabete lurrera ondo-ezik}*.  
 LORE.—*{Leiotik}*. Aitatxo ere oiekin dijoa. Ta erdian artzen dute. Aita, aita! Ta erdian daramate. Aita, aitatxo!  
 KAITANE.—*{Itzuli ta etxeoandrea lurrean ondoezik ikusita}*. Etxekoandrea! Oi, etxeoandrea!  
 LORE.—Ama, ama! Zer du amatxok? Ta aitak ezer jakin ez! ... *{Leiora biurtuta}*. Aita, aita! Amatxo geixorik! A, ez du entzuten! Banoa esatera; atzituko det oraindik! *{Berogarri bat gañean artuta badijoa, Kaitane oartzeko, Elisabete zaitzen ari da-ta. Eguna argituz. Geldiunea}*.  
 KAITANE.—Nere etxeoandre errukarria!

(ALDAKUNTZA)

*Epaitegi Negusiko gizategia. Cromwell maiburu; bere ingurukoak.*  
 CROMWELL.—*{Paper batzuk irakurri ondoren}*. Epaia ona da. Onegia, agian.  
 OFIZIALA.—Jauna, zigorra, erakusbidetzako bakarrik da-ta, ez dago irurai egotzi bearrik. Bat bakarra ilda ere, legea betetzen da; ta ba-da naikoa erakuspide.  
 CROMWELL.—Izendatu al dezute zein?  
 OFIZIALA.—Galdetu diegu iruretatik zein aurreraten dan, baña ez dute erantzun nai.  
 CROMWELL.—Egin zotz.  
 OFIZIALA.—Ona emen iru arri, gudaiburu jauna. Bi zuri ta bat gorria. Gorria artzen duana da ilbearra.  
 CROMWELL.—Datorrela ume bat, arriok banatu ditzan.

- OFIZIALA.—{*Irtzen eta bereala da Lore eskutik duala*}. Nexka txiki auxe zegoen or.
- CROMWELL.—Naikoa da bera.
- LORE.—Ezagutzen zaitut nik. Gudalburu nagusia zera zu.
- CROMWELL.—Bai, alaxe naiz; ta nondik ezagutzen nazu, ba?
- LORE.—Gure etxe-aurretik askotan ikusi zaitut igarotzen. Guziak zure bildur, olako arpegia jartzen dezu izan ere; baña ni ez... Ez al dezu oroitzen?... Ni, arako sur-zapiaz agur egiten nizun nexka ura naiz... Ez zerala oroitzen? Ola aztu nitzaz? Ni ez; ni zutzaz enaiz aztu.
- CROMWELL.—Nere illoba gogorazten dit: olakoxea zan txikitán. Bildur ematen omen det... bai, bai. Ark ez zidan bildurrik nere illobatxoak. Ark agintzen zidana egin oi nuan nik...
- LORE.—Maite-maite izango zenuen ba? Naita ni ere aita-txok. Ipui bat esateko, ta berealaxe esaten dit; eta musuan musuak ematen dizkit. Zuk ez al dakizu musu ematen?
- CROMWELL.—Bai, txiki... nik ere badakit... Orra; nitzaz oroizaitan. {*Musu ematen dio*}. Uraxe berbera dirudizu ta; arekin egiten nuan bezelaxe, zurekin ere egin nai det. Zuk agintzen didazuna egingo det, nai? Baña lenengo zuk egin bear dezu nere esana. Ona emen iru arri biribil: bi zuri ta bat gorria.
- LORE.—Bai polita poxpolin gorri au! {*Iru koronelak sartzen dira ateari atzez; jolasean jartzen da*}.
- CROMWELL.—Datozela aurrera! {*Sartzen dira iru koronelak gudariz inguraturik. Ormara begira ta eskuak atzera lotuta*}. Txiki; emaezu iru oiei arri bana. {*Cromwell atera*}.
- LORE.—Au jolasa! Aitatxo dirudi orrek... Politena aita-txorentzat {*Joan ta banatzen dizkie*}. Aita, aitotxa! Politen au zuretzat. Neronek ematen dizut generalaren ize-nean.
- KORONELA.—Alabatxo maitea! {*Arri gorria ikusita*}. O, Jau-na! {*Erortzen da belauniko ta negarrez besarkatzen du alaba*}.

- OFIZIALA.—Tira! ordua eldu Ja.
- KORONELA.—{*Jaiki ta malkoak igortiz*). Agindu.
- LORE.—Zer? Ez al zatoz, aitaxo? Zure billa nator ni. Gai-xorik dago amatxo... Goazen, goazen etxera.
- OFIZIALA.—Ume gaixoa! Bialdu egin bearko det... Tira, utzi zaiozu.
- LORE.—Ez, ez; ez det nai!
- KORONELA.—Nai ta naiezkoa da ordea, errukarria. Zoaz, zoaz...
- LORE.—Ba, gizonak; amatxo gaixorik da bai ta utzi egin bearko diozue aitaxori etxera joaten. Nik nai det.
- OFIZIALA.—Ezin utzi.
- LORE.—Ezin? Orain ikusiko (*Yauzi batean irten eta emen dator eskutik duela*). Or, oietxek dira. Ez diote aitaxori etxera joaten utzi nai, ta etxean ama gaixorik...
- CROMWELL.—Zer esan dezu?... Zure aita al da ori?
- LORE.—Bai, jauna. Nere aita, nere aitaxo maitea. Poxpolin politena zergatik eman diodala uste dezu ba? Aitaxori poxpolin gorria...
- CROMWELL.—Poxpolin gorria! {*Eskuak burura*). O! Auxen da alabearreko zoritxarra! Ta orain zer egin? Nola atzeratu?...
- LORE.—Zertan zaude or geldi? Esan ez dizut ba amatxo gaixorik gelditu dala? Utzi aitaxori etxera etortzen. Neuk agintzen det.
- CROMWELL.—Zer?
- LORE.—Zeuk esan zenidan nik agintzen dedana egingo dezula, ta orain, lenengo agindu dedanean, entzun ezpazenu baña geiago geldi?
- CROMWELL.—{*Pozik*). Egia! Ez dizut alperriak esan. Jaungoikoak argitu nau. Entzun egin nexka txiki onen esana. Nere izenean agintzen du. Nik itz eman diot. Kol-dobika Mayfair koronela barkatua dago. Utzi joaten. Azke da. (*Aita-alabak besarkatu*).

(Mark Twain'en ipui batetik artuta Josep M. Folch i Torres'ek katalaneraz idatzi zuanetik J. Markiegi'k euskeraldua).

[*Antzerti*, 1933, 1'go orrialdean).

## 18 IKAS MIKAS

### Umientzako antzerkia, andiak eginda)

*Irudi egilleak:*

URKO.—22 urte inguruko mutilla. *Itsua.*

GARO.—*Adin bardiñeko neskatilla.*

PERU.—*Gizon egiña. Torre zarreko jauntxoa.*

ORTI.—*Gizon egiña. Peru'ren areriotako jauntxoa.*

MARI.—*Atso igarrak, sorgin antzean.*

ZORI.—

GORRI.—

*Erri artean, ikusleen artean, esaera laburretan;*

BAT eta BI, sasoi oneko gizonezkoak.

MUTIL.—*Bildurti bat.*

*Iruditegia: Torre-baserri baten atadia, erritik kanpoan, mendian.*

*Baserri ingurutan oi diran tresna eta ikusgarriak.*

## I

### URKO eta geroago GARO

*[Etxe inguruan, arri baten jezarrita, geldi dago URKO. Txistu, pilarnonika ta beste zerbait jotzen. Bat batean ixiltzen da. Zur adi gelditu. Norbait datorren susmoa artu dabela igarriko da.*

*GARO agertzen da, ixil ixilka, baiña URKO konturatu dala oar tzean, geldi lotuten da, irritsu ta jos tari, zalantzan).*

URKO.—*{Bere artean}*. Aize zirrinta izan ete da, ba, aize bako gira onetan? Piztien bat?

Katua, bear ba da. Gure katu lapurra txorien baten zelatan. *{Katuari deika}*. Miz, miiz, miz... Mizitxu, mizitxu... *{Olgetan}*. Miau...! Miau...! Ez?

Gure txakur loti ori ez zan izango ba? *{Deika}*. Motx. motx, motx. Motx...! Nun zagoz? Ez olgetan ibili. Satorra ba ziña be! Ez ta? *{Etsiaz}*. Ba! Irudipen bat geiago argi bako bizitza onetan. *{Barriro soñua joten}*.

*{GARO, ainka puntetan, geldi geldi urreratzen da. URKO 'ren atze aldean gelditu ta lorea ipinten dautso mutur aurrean}*.

URKO.—*{Igarrita}*. Pentsatu bear neban. Betiko sorgiña! Betiko Garo!

GARO.—Atsegin? Gustatzen?. Eder ederra da.

URKO.—Ala dirudi. Eta jakiña, zuk esan ezkerero...

GARO.—Ez dozu artu nai? Azpaldikorik ederrena dalako zuretzat ekarri dot...

URKO.—Zital zara!

GARO.—Bai zera!

URKO.—Ikusi ezin dodala ba dakizulako ekarri dozu.

GARO.—Ez ukatu bene-benetako usaiña daukanik.

URKO.—Orrek min andiago dakart.

GARO.—Emon ala kendu?

URKO.—Ekarri. Lorea ezagutzen dodalako...

GARO.—Origaitik ba.

URKO.—Ederra dala igarten dodalako...

GARO.—Igarri ta jakin ez?

URKO.—Bere edertasun guztia ez ikusteak miña dakarkit.

GARO.—Aizu!

URKO.—Bai, betikoa. Ai zu... barru txiki ta kaskar luze, ez? Zegaitik dakarstazuz lorak?

GARO.—Dakizunez... zegaitik itaun ori? Igarri ez dodalakoan? Maite zaitudalako. Orixegaitik. Entzuteko garretan zegozen, ez?

URKO.—Zer esan dozu?

GARO.—Birritan esatean ez dauka grazirik.

URKO.—Txakur goseari aragi zatiak erakustea lez da ori.  
GARO.—Txakur ona zu.  
URKO.—Eta ainkak lotuta eta moxal estu batekin katean ipini.  
GARO.—Illetak joteko zagoz gaur.  
URKO.—Zure esanetan, noiz ez?  
GARO.—Ames pixkat egin bear zenduke. Bai, ames egin.  
URKO.—Urre bitsetan ames egin eta patrikarak utsik.  
GARO.—Bitartean ba dago zerbait.  
URKO.—Mundu baltzeko aingeruak! Edo ogi apurrak!  
GARO.—Gora edo bera zoaz. Bitartea esan dot.  
URKO.—Niretzat bitartea bardiña da beti. Illuna ta illuna, ta illuna... Obeto esanda, ezer ez, ezer ez, ezer ez...  
GARO.—Ta ni? Ni be ez?  
URKO.—Zu kenduta, jakiña.  
GARO.—Ez etsi, Urko. Oraindik zuk poz artu ziñei. Ames egin ziñei. Ba dakit zure nortasuna nai dozula. Ba dakit zerbait egin nai zendukela.  
URKO.—Zer egin lei itsu batek?  
GARO.—Bizitza dagon artean ez dago ezetzik.  
URKO.—Ogetak urte daukadaz.  
GARO.—Datorren illean ogetabi.  
URKO.—Oraindik ez dot argirik ikusi. Zer da argia? Esan, Zer da argia? Nun dago argia?  
GARO.—Ipuin bat esango dautzut.  
URKO.—Kendu zakidaz. Ez nago ipuiñetarako. Bizitza ez da ipuiña.  
GARO.—Ba dakigu. Baiña ipuiña bizitza da. Ez al da?  
URKO.—Bizitza egia da. Egi gordin gordiña,  
GARO.—Ez zaite itzaldtu. Jolastu gara? Bai, ez? Ixo! Ez itzik egin. Entzun, entzun eta ikusi be bai,  
URKO.—Ikusi? Fantasmak!  
GARO.—{*Aoa tapatuaz*} Txistik be ez! {*Ots andiak. Trumoi otsak*}.  
URKO.—Zer da gertaten dana? Zer da bat batean?  
GARO.—Ez bildurtu.  
URKO.—Lur ikara? Etxea dator goitik gera? Zer da?

GARO.—Ez ikaratu.

URKO.—Zer da, baiña? Torrearen arriak bera al datoz?

GARO.—Ixo! Ixo! Konturatzen? Baretu dira. Goazen aterpera. Ikusi orain bizitza zarreko ipuin bat. Komedia bat. Komedia garratz bat.

*{Egal baten itzalpean gelditzen dira}*

## II

### PERU

PERU.—*{Ezkuturik txakurren zaunkadak entzungo dira. Euren zaratara PERU dator. Agertu ta egaletara begira ibilliko da. batzutan bere artean izketan eta bestetan txakurrei agintzen}.*

PERU.—Iñor al dator nire bakea eteten? Zetan orrenbeste zaunkaka?

Ixo, dik!

Ixo, ixo Bat! Ez zaiteze orain arro eta bear danean korro.

Ixo, esan dot. Ez al dozue entzuten? Laga niri zerbait igarten edo entzuten.

*{Deika}* Eup! Zein dator?

Erantzunik ez! Datorrenak, dana dala, arma barik ba dator, Torrean eukiko dau aterpea.

Baiña lapurren bat ba da edo ta Oñaztar txarrien bat... Txakurrak keixu dagoz. Au da arritzekoa.

Ba neki aizearekin nastatuta dabillen espirituen bat dala, egal batik eta tarte batik ez neuke lagako ebagi eta zirratu barik. Aizetan dantzan dabizen espirituak be bildur dautse Ganboatar Peru'ri.

*{Barrero txakurrak zaunka}.*

Zer da, baiña, lurrean ikusten dozuena? Lurrean iñor

ez da agiri. Aizetan al dabil iñor?

*{Ezpatea atara ta aidean jo ta erabilliz}.*

Jo! Jo! Gibeletik! Olaxe! Artu pizti orreik! Artu!  
Zetan zatoze bakea eteten? Orra! Peru'k ez dau etsairik  
nai ez lurrean ez aidean. Orra! Artu! Blaust!

*{Une baten geldi egon eta txakurrak be ixilik dagozala oartuz}.*

Aizetan ebillen norbait, ez? Orra. Merezi zendun espi-  
ritu gaizto orrek. Ba dakizu edo ba dakizue orain Peru  
nor dan. Ikusten orain iñor ez dabillala?

*{Barriro txakurrak zaunka}*

Barriro? Ezin egona al daukazue gaur? Zer igarten  
dozue?

Zer ikusi?

Ixildu zaiteze. Ixil!

Iñor dator?

### III

#### *PERU eta ORTI*

ORTI.—*{Agertuz}*. Ni.

PERU.—Zein?

ORTI.—Ezagutzen ez?

PERU.—Orti? Nora zatoz? Oñaztar Orti? Geldi!

ORTI.—Orti bai. Esan dozun berbera. Bildurto ala itsutu?

Oñaztar Orti, bai.

PERU.—Zer nai dau Oñaztar batek Ganboatarren lurretan?

ORTI.—Asko ez. Nire izena garbitu.

PERU.—Ez daukat zetan garbitu arrano baitzen odolik.

ORTI.—Arrozkotzako, ni!

PERU.—Ta ollartzako, ni!

ORTI.—Gangil bako ollar!

PERU.—Astoaren pekorotz! Zeren billa zatoz?



ORTI.—Ba dakizu. Nire oonrea minduta daukazu. Ez dozu igarri ikusi nozunean?

PERU.—Traidore baten atsa sentidu dot zu ikusita batera. Obeto esanda, ikusi aurretik.

ORTI.—Barruko arrak eta bildurrak eragingo eutzun.

PERU.—Ez urreratu. Geldi!

ORTI.—Geldi egotekotan ez naz etorri.

PERU.—Nire lurretan ainka azurra sartzea be zitalkeria da zuretzat. Zer dakartzu?

ORTI.—Erriaren eskabide bat.

BAT.—(*Jente edo publikoaren artetik jeikiaz*) Erria! Nungo erria? Zure serbitsari bildurri eta gosetiena izango da!

BI.—(*Au be, era berean, beste egal batetik*).

Oñaztarrak ez dira erria, saldutako batzuk baiño!

BAT.—Ganboatarrak be ez! Ez! Noiz izan dira euren jaube?

PERU.—Erriak ogia nai dau eta baketan bizi.

ORTI.—Nik esan bear nebana esan dozu, arro orrek. Parka eskatu bearrean, zirikatzen?

PERU.—Zirikatzen ez. Zuritzen.

ORTI.—Nire ezpatea zorroztuta dakart, nire entzutea erri osoaren aurrean garbi lagateko asmotan,

PERU.—Peru'k ez dauka Oñaztar baten ezpatearen bildurrik, Nun daukazuz zeure jarraitzalleak, zeure jenteak?

ORTI.—Nire jenteak lo dagoz, ba dakielako nik, gizonik gizon, zure antzeko baten bildurrik ez daukadala.

PERU.—Amesak!

ORTI.—Ez zaitez koldarti. Ez igesik. Atara ezpata ori.

PERU.—Ez esan birritan.

ORTI.—Birritan eta lautan. Illunetan zu ilteko aukera euki dot. Baiña gizon lez naiago dot jokatu.

PERU.—Oñaztarrak gizon? Sekula ikasi al eben? Orretarako jaio al ziran?

ORTI.—Irain orrek, destain orrek zer esan gura dau?

PERU.—Al izan ba zendu, egingo zendula. Etzaitzela izan guzurti.

ORTI.—Nik ez dot nai Oñaztarren izenik zikintzerik.

PERU.—Aukerarik ez emotearren? Ba dozu, Artu. Oraintxe bertan. Nun dozuz testiguak?

BAT.—[*Erritarren artetik*]. Jo, jo, testigu barik!

BI.—[*Erriaren artetik*]. Erria naskatuta daukazu. Bein alkar il dagizuen ikusteko garretan gagoz.

ORTI.—Makurtzen dana izango da testigu,

PERU.—Testigu mutu izango zara, orrela dala.

ORTI.—Galtzen dabenak besteari lurra emon bearko dautsa.

PERU.—Ilda gero be Oñaztarrak ez dabe lurrik artuko ganboatarren sailletan.

ORTI.—Niretan gitxiago eukiko dozu. Asi gaitezen!

PERU.—Ori nai dot. Gertu?

ORTI.—Gertu!

[*Ezpataik ezpata burrukan asten dira. Lenengotan alkar zaintzen, alkar ikasten. Gero ta biziago*].

BAT.—Jo, jo gibeletik!

BI.—Sartu, sartu bizi! Biziki! Bildur barik!

BAT.—Orrelaxe, orrelaxe. Luzeago jo! Sakonago!

[*Ekiñaldi ondoren, PERU txirrist egiñaz lurrera jausten da. OTI'k, makurtuta daukalakoan, arrokerizko agiriak egiten dauz*].

ORTI.—Orra, diabruak emon dagitzuela antxe be merezi ez dozun bakea!

PERU.—[*Indarraldi batez biziki jarki ta ORTI eriotzez zaurituaz*].

Eta zu inpernuetan betiko erre eta kixkaldu!

[*Biak, eriotz zotiñetan, lurrean jausita, etzanda korapillotzen dira*].

#### IV

MARI, ta geroago ZORI eta GORRI.

Lurrean PERO eta ORTI

MARI.—[*Ujujuka agertzen da*]

zuen ots ikaragarri ta bildurtiekin Euskalerrri osoari ger-

*{Deika}* Anbotoko aitzak, zetan zagose geldi? Asi, asi taera au iragarten. Eten zuen indarrak! Ots! Ots, lurrari ikara eragin arte!

*{Trumoi ots zaratatsuak. Illuna dator, itzalak bakarrik ezagutzeko eran. Aretoan, jente artean, atze aldetik, garraxi ta ujuju luzeak entzuten dira. Pasilloan zear sorgin bat dator, dantza ta poz agerpenak egiten. ZORI da Ikusleak bere zarata ta dantzak kezkatuten dituan artean, beste bat agertuko da era berean, aretoaren beste egaletik. GORRI da.*

*Biak antzezlekura, eszenariora igoten dira).*

ZORI.—*{Ildakoen ingurutan, algaraka}*. Zugarramurdiko mendietan zuen odola mixkatuko dabe sorgin guztiak!

GORRI.—Mari Tellagorri ta Mari Gonagorri, biak, mozkortu egingo dira zuen odolagaz!

MARI.—Anbotoko zuloetan be Euskalerriaren bakea ospatuko da dantza ta santzoz!

*{Irurak batean sorgin dantza edo irri dantzaren bat egiten dabe. Amaitu aurrean, barrutik abots bat entzungo da, GARO'rena, deika}*.

GARO.—*{Barrutik}*. Betor argia! Betor eguna! Urten eguzkia! Zabal argia!

*{Entzun orduko, iru sorgiñak euren dantzetan eskutaten joango dira, PERU ta ORTI'ren gorputzak tengadaka eurekm eroanez. Argia dator. Txakurrak zaunka asiko dira}*.

## V

### GARO ta URKO

#### (Erritarren artean, MUTIL)

URKO.—Zer izan da? Ipuiña ala egia?

GARO.—Egi bako ipuiñik ba al dago?

URKO.—Zeiñek irabazi dau?

GARO.—Biak galdu.

URKO.—Esan egia. Zein dago odoletan? Esan. Odol usaiña artzen dot.

GARO.—Euron itsukeri, gorroto ta ikusi eziñekin Euskalerrria odoletan laga eben andikiena da. Eta euren indarpean, bildurpean, gure erria makartuta euki eben.

URKO.—Ori istoria da. Madarikatuten dot lengo istori makurra!

GARO.—Madarikatu ez! Sustraia billatu,ustelduak erre, badar txarrak ingurutatik kendu, garbi garbi zimaurtu, lur barritu ta eguzki tara ekarri bizi barritzen. Ori da bear dana. Argitara ekarri.

URKO.—Argia! Nik gizon izateko bear neuken argia.

GARO.—Argia! Sorgiñak-eta gorrotatzen ei eben argia. Andikiak erriarentzako eskutatu nai izan ebena.

URKO.—Nik ames egiten dodan argia!

GARO.—Argia ez da bakarrik ikusmenaren zoria, Urko. Ames egiten dabenak esperantza dauka, itxaropena dauka, eta or dago argia.

Gorotoetan makurtu barik, amesetan bizi. Misteriotan zabartu ta nastatu barik, amesetan poztu.

Ikasi ta ikasi, beti zerbait geiagon billa. Ori da argia.

Begiratu lorei. Usaintsu datoz.

Begiratu txoriei. Kantari dira.

Begiratu aurrean dozuzan umetxoei. Irribarrezka dira.

Ori da argia. Poza, amesa ta bizia.

Ta ori, Urko, ikusi barik be igarri ziñei.

URKO.—Garo, poztuten nozu.

GARO.—Ames eragin nai dautzut, Urko. Emen dagoazanak eragin nai dautsoen lez.

*(Erriari irainka).* Ez al da ala?

Baiña... Ixo. *(Tartean, ikuslien artean egongo dan MUTIL billatu ta berari zuzenduz).*

Zer egiten dau arek, an dagon arek, arek bai, bai, ortxe, ortxe dagon orrek? Ez dozue ikusten? Ortxe, zuen ondoan ikusi ez?

(MUTIL'eri *deika*).

O mutil tonto, jateko pronto! Zetan zagoz or illunean?

MUTIL.—(*Ikuslien artetik*). Bildurrez.

GARO.—Zeiñen bildurrez?

MUTIL.—Sorgiñen bildurrez?

GARO.—Sorgiñak nun dagoz?

MUTIL.—Or atzean.

GARO.—Emen atzean?

MUTIL.—Bai, atzeko illunpean.

GARO.—Nungo illunpean?

*[Tarteak arakatzen lez, deika]*. Urten, urten sorgiñak!

Nun dagoze? Urten!

*[Erriari]*. Ikusten? Argia dago toki guztietan, ez dago sorgiñik.

Maitasuna asi da loratzen, eta maitasuna dagon tokietan ez dago gorrotorik.

Nun dagoz, nun?

Urko! Ikusten zuk?

URKO.—Nik, itsua izanarren be, nire illunpean be, barruko argia ikusten dot, eta ames, eta ames, eta ames egin nai dot..., etorkizun barri baten, danok alkarri laguntzen biziko garean etorkizun alai baten.

Eta bizitzean pozez begiratu, kantari ta umorez:

URKO eta GARO.—(*Soñua jo ta kantuz*).

Urre, urra, urra bizi guztian,

ames egin daigun maitasunian.

Ikas, ikas, ikas al dan bestean,

bizi barrí baten alegiñean.

ERRITAR GUZTIAK.—

Ikas, ikas, ikas al dan bestean,

bizi barri baten alegiñean.

A. Zubikarai

## 19 ANDREGAIA NAI TA...

(Bakar-izketa)

ANTZEZTOKIA: *Ostatu etxeko gela nagusia. Urrutizkiña ta a.*

ANTZEZLARIA, *ogeitamabost urte inguruko giza-semea; ajolakabe xamarra. Bañan emakumien aurrean oso lotsatia; maitasun itzik sortzeko ausardirik ez duana. Zapia altxatzean, urrutizkiñez alai mintzatzen ari da.*

... bi alkondara bai..., zer...? —...— Ez, ez..., zuk nai dituzun erakuak... —...— bai..., bai, Karmele..., zera... [*Izketa jarraitzeko gaia sortu eziñik...*], zera..., igandean nun izan ziñaten...? —...—. Aitzkorri'n...? Alajaña, ibillaldi luzia egin zenuten...! —...—. Mendigoizale zera, beraz? —...—. Neri ere bai, oso gogokua zait mendiko ibillera, bañan aldapa gora auspua berotzen zait beriala; azkeneko ateeran Jaizkibel mendira egin nuan... —...—. Ibillaldi txikia...? Galde zaiozu Iturgoi'tar Imanol'i; au neraman aurretik eta mendi gora asi orduko, jakiña! berotu zitzaidan auspua ta berak botatzen zuan aizeakin Imanol'i burutik txapela eraman zion —...—. Algara egiten dezu...? —...—. Ai, Karmele! urtiak bizkarrian, urtiak, eta... zera... zer...? —...— bai al zuaz...? —...—. Bai, bi alkondara, zera... zuk nai dituzun erakuak... Agur... Agur, Karmele, agur... (*Urrutizkiña utziaz. Ezagutzen da Karmele'ganako bere maitasuna*).

Agur, bai... ta bi alkondara geiago...! Len, armaiua alkandorez bete-betia daukat eta orain bi geiago..., bañan zer egingo det! Aitzeki ori ez balitz Karmele'kin nola itz egin?

Au itxilluba...! Neskatz orrekin itzik egin nai baldin badet, bere dendatik zerbait erosteko aitzeki bidez egin bear... Eta... nere erruz dana, ni euli, txepel, kaxkar bat naizelako! Emakumeekin aurrez aurre itz egiteko ausardirik ez detalako! Gizon batzuek egunian berrogei andregai egingo lutzukete, ta nik... ogeitamabost urte bizkarrean eta andregai bat bakarrik ez biotzean; gar apurrik ez neskatz bati maitasun itzik egiteko... Ona nago ni, askok bezela, iru edo lau andregai batera izateko!

Eta arritzeko gauza da! ; ni, lagun artean, arkakusoa baño lotsagabeagoa naiz, eta neskatz baten aurrean jarri ezker... pot! mutil koxkorra aitaren aurrean «ziarrua» erretzen baño lotsatiagoa naiz. Gañera nere senidiak ez dira onen motelak izan; amaika senide izan gera: zortzi mutil eta iru neska. Jon anai gaztena ta ni, zarrena, ez beste guziak ezkondu ziran; Jon ere bidian dijoa... ez du praile sartzeko asmorik! ; oraingoa seigarren andregai omen du, alajaña! Nere zazpi anaiak inguru abetako neskatz zoratzalle yaioenetakoak izan dira, ta ni... Erramun gizarajoa! zarrena ta motelena! Andregai nai, neskatz begiz jua eduki ta eskaera nola egin jakin ez...! Au, jateko gogua ta jakia ere izan, eta, «tenedoriakin» edo «kutxariakin» artu ez jakiteagatik, goseak gelditzea baño lotsagarriagoa da. Lotsagarria, bai, oso lotsagarria; ba; an Karmele'ren aurrean jartzen naitzen, zer esan ez dakit, mututua gelditzen naiz.

Nere eulitasun txatxu au astintzeko asmoan gai onetzaz idatzia dagien liburu bat erosi det. (*Patrikatik liburu bat ateriaz*). Arretaz irakurri ere bai, eta berak dionez gizon barentzat zazpi emakume daude ta neskatzak gizonak noiz itzeingo dioten irrikitzen; kiñu bat naikua omen da neskatz zero zoratzeko, bañan kiñuakiko era au ez da nere gogogokua, gaztearoko gertaera batek ondoren mikatza utzi bai ziran. Ara: nik ogei urte nituanian, orain bezelaxe lotsatia nintzan emakumeekin, bañan bein kalean neskatz lirain eta pertxenta bati uste gabean kiñu egin nion nunbait, eta bai ordain ederra artu ere, paf!, ura masalekua eman zidan! Geroztik neskatzai kiñu egitea Lastur'ko zezenai adar

muturrean musu ematea baño bildurgarriago dela derizkiot.

(*Liburuari begiratu aldi bat eman ondoren*). Onek dionez ezkontza bear-bearrekua da gizonarentzat, eta dirua aurrea-tzearren ezkontzen ez diranai «ziarro» erretzailearena gertatzen omen zaie. «Ziarro» erretzaile purrukatu batek erretzean utzi ta ke-belar edo «tabakotan» ondatzen zuan dirua-rekin etxe eder bat egitea erabaki zuan, bañan andik laster etxiak su artuta, zearo erre ta kixkalia gelditu zan. «Ziarro» keetan juan bear zuan dirua; gero ere keetan juan zan. Bai, arrazoi du liburu onek mutilzar gelditzia zaputzkero aundia da, astakeri aundiagoa, ta au ixtilluba! lotsagatik gelditzia lotsagarrikeri aundienetakua...

(*Oldoztuaz*). Nik zer egin, ordea, neskatxen aurrean nere mingaña bixitu erazteko? Zergatik ote naiz onen lotsati ta itz motela? Emakumeekin onen txaldan eta lotsatia naizelako neri gertatu zaizkidan gauzak...! Nik eraman ditudan estutasunak! Bein. (*Errien izen abek antzezleriak nai dituan eran aldatu lezazke*). Lasarte'ko zaldi lasterketak ikusi bear nituala ta sartu naiz Donosti'n Tolosa'ko tximist-gurdi edo «tranbian». Exeri naiz lasa-lasa, bañan andik laxter sartzen da emakume lodi-lodi bat besoan aurra duala, ta nun exeriko? ta nere aldamenen...; exeri zanean toki gutxi artu bazuen ere, laxter egin zuan exeri-alkia beretzat bakarrik; bultza ta bultza «kalkomaniya» bezela peatu nindun ia kristalian. Lasarte'ra inguratu giñanian, altxatzen asi naiz, eta ura zoritzarra!, nere txaketaren muturra emakume lodi arrek azpian arrapatua zeukan eta ni, jakiña!, ezin altxa. Eldu gera Lasarte'ra, igaro ere bai, ta ni an zepuan arrapatutako txoria bezelaxe. Altxatzeko asmorik etzuala ikusirik, etsietsiz pixka bat altxatzeko esan naiean asi nintzaion emakumeari: «ia... mesedez... pix... pix... pix...» ta geio ezin esan! ..., itzik osatu ezin! ! Emakumeak magalean zeraman aurra, ordea, «pix, pix» itzak entzun zituanean, asi zan aurrai itz oiekin agintzen zaiotena egiten, eta an ziran ixtillubak!, za...rra, za...rra... nora egingo, ta xuxen-xuxen nere galtzetara; zearo bustia, blai-blai utzi nindun!

(*Liburua berriz miatuaz*). Emen, neskatxai zer ta nola



esan dotoreasko jartzendu... bañan... nik... nere lotsa..., nere... zera au neskaten aurrean nola zeatu... nola baztartu jakin nai. Ona batzuek (*irakurriaz*): «Zure irripar batek «loteriko» sari nagusiak baño pozago jartzen nau»; «Zure ezpañetarik «maite zaitut» entzuteagatik, illabete oso-oso logabe iraungo nuke»; «Zu lore ba'ziña, nik erle izan nai nuke». Ederki daude gero «lore» abek! Aldatzen jakin bear, ordea! Ta... ni... motela izan lan oietako... Au ixtilluba!

Emakumeak ezkontzeko zaleturik irrikitzen dauden ezpairik ez daukat; ori egi aundia da, nik Karmele'ri ezkontza-gai itz egiteko dedan bildurra bezin egi aundia. Karmele (*zaletasunarekin*), Karmele... neskatz gazte, elizkoi, lirain, ederra ta... aberstsa da. Neretzat emazte egoki-egikia litzake Karmele... a... i!... Zoriontsu izango nitzake bere ondoan, oso zoriontsu; bañan... nola aitortu Karmele'ri nere biotzeko illuntasuna bere begi diztikorrak argitu lezake-la? Ausardia dendan salduko balitz! ... Eta... ta berak zer iritzi ote du nintzaz? Nik bera zeretzat bezela berak nai ote nau beratzat?

Ona beste korapilioa! Au ixtilluba! ... Eta nai ta nai ez bion artean azkatu bear korapillo ori. Nola, ordea? Bere aurrean nere mingaña mututuko ez balitz, yaio asko esango niozke liburu onek jartzen dituan «lore» oietako batzuek; bañan... auxe komeria!, bere aurrean esan bear... Idazkiz ere egingo nioke eskaera, bañan aurrez-aurre bizi, egunero elkar ikusten gerala-ta, ez dago egoki idazkia bitartez artzia. Zer eaango luke? Erretore jaunak lagunduko zidan ederki, esan ere egin nion, bañan norberak arrapatutako amorraiak goxoago izaten dirala erantzun zidan. Eta agian nik amua noiz bota zai egongo da (*Karmele'gatik*) amorraí eder ari... Karmele'k igarriko zuan onuzkero nere bereganako maitasuna. Askotan mingaña esan ezin duana begiak agertzen bai dute...

Baliteke berak ere ni maitatzea, bañan emakumeak bere aurrean belaunikatuta ikusi nai omen dituzte gizonak ezkontz-eskaera egiterakoan, eta Karmele'k ere lege ori gorde naiko du. Alabaña neskatz batzuek así dira gizonai ezkontz-

eskaerak egiten. Neronek bat baño geiago artu ditut. Ostatu ontako alaba ere zearo txoratua daukat; ondo esateko, bera dago nitzaz zoratua, ta ez alaba bakarrik, ama ere bai. Gaxoak uste du ni bere alabarekin ezkonduko naizela. Neri, egia esan, ama-alaba oien ametsa txit onuragarri izan zait. Beroiek diote, ni etxekoa banitz bezela nukatela, ta nik etxekua banitz bezela, jakiña! , ez det ordaintzen ostatua. Karmele'kin ezkontzera nuala jakiten dutenean izango dira «komeirik».

*{Oldozten jarriaz}*. E? Zer esan det?... Karmele'kin ezkondu... zkondu... aixa esan det... oraindik itz erdi bat ere aitatu ez gai orretzaz, eta... *{Ixil une baten ondoren}*, au... erabaki bear da ba! ... bai orixe! Gerorako utzi gabe, beriala gañera... bai beriala... ze arraie! *{Urrutizkin aruntz juanaz}*. Deituko diot eta... *{Oldoztuaz}* bai... orixe esango diot, bai, bai orixe! *{Urrutizkiñez deituaz oso alai ta zirt edo zart egiteko gertu}*. Aizu, Karmele... zera... aizuz... ni naiz... *{Makaltzen dijoa}*. Zeta... deitu dizut... zera... zerako... *{Ezkontza-gai zerbait esan nai duala ezagutzen da, bañan ez da ausartzen esatera}*. Ba-dakizu ni bakarrik... *{Oso larri}*. Ez, ez... bai, bai, bakarrik nago... ta... neronek gertu bear nere gaitzak... eta nai nuke... zera... zuk (Ezin det, ezin det) *{Erneatua}* zera... nai nuke zuk alegia... lentxiago iru alkandora eskatu dizkitzut... e? ta orain... bi edo iru »korbata» bialtzia nai nuke... E? ... — ... zure gogoak bai... zuk nai dituzun erakuak... — ... E?... Bai, agur, agur... *{Urrutizkiña utzi ta ixil une baten ondoren}*.

Gizon euli, txantxulin, geldo, txatxu, memel bat naiz... ezkontza gai itzik sortu ezin nuan... Karmele'kin ezkontzeko diña ez naiz ni... mutilzar gelditu bearko det... au zoritxarra! au naigabea!... au!...

*{Une onetan gelako atean deitzen dute}*. E? Zer da? Nork deitzen du *{atea irikaz}* neretzat? Ondo dago. *{Atea itxiaz eskuan idazki-azal bat duala}*. Idazki bat... norena ote da? *{Irikiar, arritua}*. E! ! Karmele'ren aitarena! *{Biotz ikaratu}*. Au ikara! Zer ote du? *{Irakurriaz}*. «Badakit... nere alaba Karmele'ren ondoren zabilzala eta zure, maitasuna

agertzeko ausardirik ez dezula» (Au lotsa! ). Bañan nere alaba zutzaz zoraturik egon». *{Oso pozik: Au poza! Egia ote da?}*. «Bañan nere alaba zutzaz zoraturik egon eta zuk gai orretzaz itz egiteko ausartirik ez dezulako axo jartzen ari dala ikusirik (Au lotsa! ), nik, arren, eskatzen dizut Karmele'ren osasuna nai ba'dezu, beriala etortzeko nik zure ize-nean itzegiñik zuk eta Karmele'k detzuten ezkontza antolatu dezadan». *{Oso pozik}*. Bañan... egia ote det emen irada! Nuan, nuan beriala...

*Arozena'tar Andoni*

*[Antzerti, 1933, 19 gn. zenbakia, 11 orr.).*

## 20 SASI-ESKOLA

(Atal bateko eresi-irautsia)

[Agirian oian edo zugazti bat, eta bertan zazpi edo zortzi mututxu intxaurrakaz kastorka olgetan].

### LENENGO AGERRALDIA

TXOMIN, KALIS, ERRAMON, IÑASIO, KOIPETSU

TXOMIN.—Bi, bi atara dodaz.

KOIPETSU.—Eu az orain, Kalis.

ERRAMON.—Kutuna aparta (jo) ez dodanean! Ez dok urrun ibilli.

IÑASIO.—(*Jaurtita gero*). Kontxo, uts oin bere.

ERRAMON.—Koipetsu, barriz, suertesogoa da!

KOIPETSU.—Suertosoa bai! Nik jakin dakit eta... eztakianari putxi putxi eragiten dausat.

ERRAMON.—Nok ez daki, e? Nok ez daki? Gura dok zein geiago?

TXOMIN.—Tira ixillik, tira ixillik. Neu naz oin,

ERRAMON.—Kalis da; ez az i, Kalis baiño,

TXOMIN.—Neu naz,

ERRAMON.—Ezetz, Kalis da-ta, baaaa!

TXOMIN.—Jaurti daiala, ba.

ERRAMON.—Ia, Kalistxu. (*Kalis'ek intxaurra jaurti bei*).

ERRAMON.—Bi.

KOIPETSU.—Ez bi, ez bi, ez dau markea ondu-ta.

ERRAMON.—Baietz: orra.

KOIPETSU.—Ezetz: ona.

ERRAMON.—Bai.  
 KOIPETSU.—Ez.  
 ERRAMON.—Bai.  
 KOIPETSU.—Ez.  
 ERRAMON.—Bai.  
 KOIPETSU.—Ez.  
 TXOMIN.—Tira ixilik, tira ixilik; zozo-kumak legez egon  
 barik.  
 KOIPETSU.—Manu ta Kalis alkar artuta dagoz, ta Manu beti  
 dago dregak ataraten. Ez naz ibilliko ni.  
 ERRAMON.—Drogosoa az i...  
 KOIPETSU.—I geiago.  
 ERRAMON.—Ez.  
 KOIPETSU.—Bai.  
 ERRAMON.—Ez.  
 KOIPETSU.—Bai.  
 ERRAMON.—Ez.  
 KOIPETSU.—Bai.  
 TXOMIN.—Ixilik egoteko.  
 ERRAMON.—Koipetsuk galduten dabenean, a, iñok errua.  
 KOIPETSU.—Gero... Jo barik gero.  
 ERRAMON.—Jo ba, jo ba. (*Jagita diñoz berba onek*).  
 TXOMIN.—Gagozan bake bakean. Aiko Patxi non datorren.  
 Au bere ezta joan eskolara. *Anilloa dauka ta... zapatua*  
*da ta... Ze larri, baia!*  
 IÑASIO.—Tira, aurrera, Ze Patxi ta Patxi-ondo? Jezarri or,  
 Erramon.  
 ERRAMON.—{*Lengo tokian, iztarrak zabalik dabezala jeza-*  
*rrita*}. Ia, Kalistxu. {*Puskatxu baten biardue kastorka*}.

## BIGARREN AGERRALDIA

{*Lengoak eta Patxi*}

PATXI.—{*Arpegi mukerrez ta bere arterako*}. Onek emen  
 oindiokarren! Ezin artu izango dot zozo-abia.  
 TXOMIN.—Sasi-eskola, e, Patxi?

PATXI.—Zetara joango naz eskolara? Maisuak beien ganean miñagaz kurutze bat eragiteko? Enabil.

TXOMIN.—Ondo egiña.

PATXI.—Zuek bere eskolara barik, e?

TXOMIN.—Eguraldi ona da ta... Zapatua da gaur ta, biar...

PATXI.—Biar... Domekea, ta zer?

TXOMIN.—Astelenean maisua ezta gomuta izango.

PATXI.—Nireaz, bada, gomuta izango da.

KOIPETSU.—Txomin, eu az oin.

TXOMIN.—Banoa. Eztok, Patxi, ik jokatu nai?

PATXI.—Nik? Ezta... (*Jarri beite*). Zer egin dot nik eskolara ez joateaz! Ederrak emongo daustaz astelenean maisuak! Eta zegaitik? Euskeraz berba egin dodalako! Zer egingo dot bada? Barru-barrutik urteten daust eta... Zer galduten ete dau maisuak, guk euskeraz egiñaz —Beragaitik txarto esan eztaigun edo batek badaki zegaitik izango dan. Bestela, zegaitik izango da?

ERRAMON.—Koipetsu, i ez az; Kalis da.

KOIPETSU.—Nok esan dau?

ERRAMON.—Kalis dala. Ia, Kalistxu.

PATXI.—(Onetariko bat edo bati *anilloa*- emon al ba neuskeo! Baiña eskolatik kanpoan ez dabe artu nai izango, neuk bere eztot nai izaten da. Ganera maisua aurrean egon ezik, eztabela euskeraz egin esango leukee. Ai, Erramon, Erramon, ederra egin daustak. Neuk euskeraz egitearren, ak egin egin eustan egitekoa! *Un nido tengo!* erderaz esan eustan, *un nido más hermoso!* *¿De qué?* itandu neutsan nik; eta berak: —*De esos pájaros negros... cómo es pues? ¿cómo es pues?* Eta nik, kirten onek, «zozoak» esan neutsan kokolo bat egiñik. Eta berak orduan *tómate anillo* esan, eta *anilloa* emon eustan, Eta ni aaamen nori emon ez dakidala. «Zozoak, zozoak», artuko dok euk bere eurea. Abiagatik esan eustana, egia da; bada atzo jarraitu neutsan ondorik, eta «trapa» badakit non dagoan. Onek doazanean, Patxiren kolkora etorriko dira Erramonen zozoak, ikasi daian urrengorako zelan daben erderazko izena). [*Ogi-zatia sakeletik atarra ta jango dau*].

(Lengoak eurak)

ERRAMON.—Aspertu naz kastorragaz. Beste joko orain,

KOIPETSU.—Zetara olgako dogu, ba?

ERRAMON.—Eztakizue «Joan nintzan merkatura»? Onetara-  
xe olgako dogu. Uts egiten dabena intxaur bat emon  
izango dau. Patxik kantako dau olgetako kantea. Tira,  
PATXI. Edertoago daki onek! Eeene!

PATXI.—Eztot orain gura.

ERRAMON.—Tira, gizona. Au, barriz, sotillago ta tristeago  
dago, ez dakit zer baiño bere!

PATXI.—Tira, ba. (Bestela onek elitzakez sekularean joango  
emendik).

ERRAMON.—(Koipetsuri). Eu izango az txakurra, Koipetsu.  
I katua (beste bati). I tanboliña; i txilibitua; i kirkilla.

PATXI.—(Ordu betean bere ezтира orain joango).

*Eresia*

Joan nintzan merkatura,

erosi neban txakurtxua;

—Txakurtxuak: au, au, au.

Katutxuak: miau, miau, miau.

Txoritxuak: txorro-txiotxi.

Ai, ze gaba neukan nik,

(Manuk katuenta egin bearrean, egin bei txoriena).

MANU.—Ni enaz katua; ni txoria naz.

PATXI.—Ez az, katua baiño.

ERRAMON.—Eztot katua izan nai; ta kitu.

TXOMIN.—Ixilik egon, ba.

GUZTIAK.—(Eresten). Ai, ze gaba neukan nik!

ERRAMON.—Eztot emongo intxaurrik eta eztot emongo; ta  
enabil geiago.

KALIS.—Ni bere ez. (Jagi beitez guztiak).

TXOMIN.—Goazan orain abiatara.

GUZTIAK.—Ori, ori.

ERRAMON.—Abiak emen? Ba! Geutzat dagoz! Emen etxagok ezta... ezta... ezta... sutarrik bere.

Dan-dana daukat nik ondo ikusita. Aor erreka ondoan al dagoz.

TXOMIN.—Goazan, bada, erreka aldera. Ez ator, Patxi?

PATXI.—Ez. Aitak esan daust menditik beiak ekarteko, ta mendira joan bear dot.

TXOMIN.—Agur, ba; ba-goaz gu.

## LAUGARREN AGERRALDIA

*{Patxi bakarrik}*

PATXI.—Afa! Aorain bai! Erramon bere eurakaz joan da. Etorriko az i ostera bere; baia i etorri orduko, txoriak egaz egin izango dabe abiak itxita. Egaz! Egaz! Patxin kolkora baiño ez. Iñor ete da? Zaratea entzun dot. *{Jagi ta ondo begiratuta}*. Ez; artxo da. Nire ikarea! Taup-taup jabilt biotza. Etxagok ardurarik. Erramonek, bai; ak artuko jok ikarea, etorri ta abia utsik ikusi daianean. *{Begiratu bei alde guztietara}*. Iñor ezta agiri. Gora, Patxi. *{Zugatzera igon bei}*. Aaamen dago. Au bai polita! Kuna ta guzti dago: bat, bi iru, lau. Eeeune! ze ederrak! Amea nazalakoan dagoz aoa zabalik. Luma-arrautzatik urtenda, ia jantzita dagoz. Zozoak ete dira! Bai, luma baltza dauke-ta. Zozoakaz engaña nenduan Erramonek. Egia esan eustan, *anilloa* artu eragin eustanean. Iñoiz ezta auxe baiño beste egirik esan.

## BOSGARREN AGERRALDIA

*{Patxi ta Erramon}*

ERRAMON.—*{Atzerantz begira}*. An geratu dira kokoko arek. Tripa-alak daukadazala ta... Sinistuta dagoz. Bakarrik



- nago orain. *{Alde guztietara begiratu bei}*. Iñor ez dago niri begira, iñok ez nakus.
- PATXI.—*{Zugatzean}*. Koitaduok beti aoa zabalik: gose izango dira. Tira geldi. *{Ezpanakaz egin bei zozo-kumeai aoa zabalduzteko egiten yakena}*. Etxera goazanean, artoa emongo dautsuet.
- ERRAMON.—Onezkero andiak dagoz onek. Gaur atarako do-daz. Aitea ta amea eztira urrun izango.
- PATXI.—(Ene! Erramon da! Atrapa nau! ).
- ERRAMON.—*{Patxi zugatzean ikusieran, luzarotxu begoz ixillik}*. Zer darabilk or, Patxi?
- PATXI.—Nik?... Emen?... Egon... Aizea artu...
- ERRAMON.—Aizea artu. Besterik ez?
- PATXI.—Geure beiak or ete dabiltzan jakin gurarik. Ez dakit non dagozan da...
- ERRAMON!—Beiak, e? Beiak, e? Laster ikusiko dogu. Tira beera, beera.
- PATXI.—Zegaitik eta zetarako?
- ERRAMON.—Beera; esango dauat eta.
- PATXI.—Banoa. *{Kumak bestela baitakoan kolkoratu ta zugatzetik beeratu bei}*. Jatsi naz. Zer gura dok?
- ERRAMON.—Kolkokoan daukan zer ori, neuri emotea.
- PATXI.—Ez daukat besterik
- ERRAMON.—Bai, euk atara dozak nire zozo-kunak. *{Oratu ta belarria Patxi saietsean ipiñita}*. Txioka dagoz. Neureak dira.
- PATXI.—Bai, ta zer? Eure zozo-kunak yaukadazak, eta zer?
- ERRAMON.—Tira ona, neureak dira-ta,
- PATXI.—Euri emon! Zegaitik esan atzo ume ta guztiko abia eukala? Ez esan bear. Eztok gomuta zelan esan eustan euk ez ekiala zelan eben izena? E? Eztok gomuta zelan emon eustan *anilloa*
- ERRAMON.—Emoteko niri.
- PATXI.—Euri emon!
- ERRAMON.—Emoteko.
- PATXI.—Artu ba lenengo, *anilloa*.
- ERRAMON.—Eztot gura. *{Asarrez}*. Emoteko niri txorikunak.

PATXI.—Ez, ez da ez.

ERRAMON.—Ezetz? Ezetz?

PATXI.—Ezetz, ezetz da ezetz,

{*Erramonek Patxiri oratu beio ta alkar beera botatea egin beie*}.

## AZKENENGO AGERRALDIA

EURAK ETA AURRERAGOKO MUTILTXUAK

TXOMIN.—Ene! Euskaka diardue Patxik eta. Goazan bakeak egitera.

KOIPETSU.—Itxi geldi geldi, itxi geldi geldi. Ia, Patxi!

TXOMIN.—EZ, ez. Kelis: oratu Erramoni. (*Kalisek Erramani ta Txominek Patxiri oratu beioe*).

ERRAMON.—(*Amurruz*). Geu bakarrik gogazanean emon bear izango dozak.

PATXI.—Etorri billa, adurti ori.

TXOMIN.—Zegaitik asarratu zarie?

ERRAMON.—Neure zozo-kunak beronek ostu.

PATXI.—Ondo; *anilloa*, sarketa drogoso onek, sapokeriz emon eustalako.

KOIPETSU.—Beti *anilloa*. Berak daukaz gure asarre guztien erruak. Zeuek nai izan ezkeru, maisu erdaldun orrek ez dauku galerazoko euskeraz egitea. Mutil bati *anilloa* emoten dautsanean, errekaru jaurtigi daiala; ta beste bat emon ezkeru, a bere bai. Lenengotan guztiai ederrak emongo deuskuz sarteagaz, baiña gero maisuak eztau eukiko *anillo* geiago erosteko dirurik; eta euskeraz gura-aiña egingo dogu. Jaurtigiko dogu errekaru neuk daukadana?

GUZTIAK.—Bai, errekaru.

TXOMIN.—Patxi: atara *anillo* ori ta eu aurretik. Beste guztioak San Lorentzoz eliz-inguruan legez, kanta ta kanta joango gara, ta errekaru jaurti, ta ondora doala ikusten dogunean, kanta osteru be.

*Ereseia*

Aiko emen dago gure *anilloa*,  
doala oraintxe ibaira;  
aingirakume ta eskaillo ariñak  
bebiltz or bira ta bira,  
nok eztauz urrun jaurtiko;  
ta onelan gero euskera ederra  
bizi izango da betiko.

Aiko emen dago gure *anilloa*,  
doala oraintze ibaira;  
aingirakume ta eskaillo ariñak  
bebiltz or bira ta bira.  
Betiko, betiko, betiko!

*R. M. Azkue*

[*Euskalzale*, 1898, 212, 222 ta 243 orr.).

## 21 ZENBATEAN SAGARRAK?

IRUDIGILLEAG:

PATXI . . . . . baserritarra.  
JOXEPANTONI . . . . . emaztea.  
IÑIXIO . . . . . semea  
LUKAX . . . . . auzoko gizon bat.

*{Kale bazter batean gertatzen da}.*

PATXI.—*{Etxeko ate-kanpoan}*. Jaunak eta ala ere! Auxe dek mendi goitik bera etorri dan zaparraie! Zeru ta lañu guztiak erori bear ziela zirudian! Eta orain berri, oietzaz gañera, nola ote dauka gure bazkaie nere atxuek; arrautzek-e oindik olluek ipintzeko izango ditu! Eup!... *{Ots egiñez}*. Ez al dezute entzun? Iñixio...! Bana emen danak lumixarren antzera lo-zorrotan ari-tuk! Aretxabaleta'ko Joxepantoni...! etorri al aiz?

IÑIXIO.—Jesus, aite! Atiek ausi bear dizkigutzu!

PATXI.—Oindik-e berriketan euk jardun bear dek! Nun ziok ire ama?

IÑIXIO.—Auzokoa jun da, atzo il zuten txerrien odolki eiten laguntzera.

PATXI.—Eu ta bea odolki biurtu bear ziñusteke ta! Jun da, esaiok belaxe etortzeko!

JOXP.—Ba-zetorrek gure orruzalle; eta lotsik ez dio ematen orruzka jardutie, orrelako egur mordo pitiñe ekarri te geri!

PATXI.—Bai, bai; egurka motxa iruitzen zaio gure «Artukoluke'ko Markesai»; baño jakin nai ba'den eure anaie

ta ni geninduan, da ala ere biok ezin jasuen ibilli geninduan.

JOXP.—Zoritzarrien izan deilla, gizona; baña dana blai eindre zatoz!

PATXI.—Alaxe den; dana ur-utse ba'nitz bezelaxe netxion. Baña daukaten gosiekin, nere egonaldiari utzita, jateko zerbait ekarrien.

JOXP.—Baña, zer ematia nai dek? Al zeukeat ba, ezer ere?

IÑIXIO.—Jesus, aite! Zein busti dagon egurra!

PATXI.—Bai, ala ire amak eurik ez duela eiten esango dik!

JOXP.—Ia, iñazio, jun ta esaiok Maritxo'i aitei arrautze bi erretzeko, apaldu dezan, ta oie eiteko. Patxi, lepue eingo nuke gogoratu ere etzerala ein, nik esandako errege-sagar azi ura landatzeko,

PATXI.—Zertan jarduko nuen, ba, zure sagar oiek landatzen baizik orrenbeste denboran?

JOXP.—Egie? Ta nun ipiñi dezu?

PATXI.—Sagasti-beko txokor batian, oroitzen ba'zera zuri bein muxu eman nizun leku artantxe,

IÑIXIO.—Aite (*Dedarka*): etorri nai dezunian, apaie gertuta dezu ta!

JOXP.—Aizu, Patxi, ez dakizula zer etorri zeiten burura? Zuk gaur landatu dezun errege-sagar azi orrek, emendik zazpi edo zortzi urtera gutxinaz bi edo iru zakuda sagar emango ditula, ta an da emen orrelako sagar-aziak ipintzen ba'ditugu, emendik ogetabost edo egotamar urtera sagasti ederra izango degula.

PATXI.—Benetan: ederki atatzeitu gero kontuek gure atxuek!

JOXP.—Ta gañea, Patxi, ba al dakizu zer etorri zaiten burura? Ba, nik sagarrak bituko ditutela; zuk asto gañean azokara emango dituzula; ta Iñixio'k an salduko ditula. Eta, Iñixio, olako sagarrak gero iru erriel dozenie baño gutxion ezin salduko dituk.

PATXI.—Zer ari aiz, neska? Iru erriel dozenie! Xemeiko bana bakoitza eskatzie naikue den, lapurretan eitie nai ez ba'den.

- Joxp.—Baña, ba al dakizu nolako errege-sagarrak diran?
- PATXI.—Ba Madri'ko erregien sagarrak baldin ba'die ere, nik esan detana eskatzie naikue den.
- JOXP.—Ez eizu zure buru-gogorrakin erten, Patxi; entzun al diek, Iñixio? Iru erriel baño gutxiuen ez saltzie agintzeiat.
- PATXI.—Baño, zer iru erriel! Motel, ator ona: zenbatien salduko dituk sagarrak?
- IÑIXIO.—Zuk nai dezun ainbatien, aite.
- PATXI.—Ba, xemeiko bana.
- IÑIXIO.—Ondo dao, aite.
- JOXP.—Zer ondo dago? Etorri ai onea, Iñixio: zenbatien salduko dituk sagarrak?
- IÑIXIO.—Zuk nai dezun ainbatien, ama.
- JOXP.—Iruñe erriel dozenie.
- PATXI.—Iruñe erriel? Ara, nik esaten detanian saltzen ez ba'dituk, emango dizkiat atzeko alde ortan izugarriak. Zenbatien salduko dituk sagarrak?
- IÑIXIO.—Zuk esaten dezun salneurrian (prezixuen).
- PATXI.—Xemeika bana.
- IÑIXIO.—Ondo dago, aite.
- JOXP.—Zer dago ondo, gero? Ar zak {*plasta, plasta... jotzen du Iñixio*). Nik esandakue eiteko!
- PATXI.—Utziko al dion mutillei?
- IÑIXIO.—Ai, ama! Ai, aite! Ilko nau!
- LUKAX.—Jesus! Zertan ari zerate, adizkide! Zergatik asintzen dezute orrela zeuen semie?
- JOXP.—Ai, Jauna! Nere gizon au erotu egin da; gauza guztiak utsian saldu nai dizkit, etxie galduko dit, eta kalabazak aña diran sagar batzuek...
- PATXI.—Egie esan nai ba'den, intxaur aiñekuak ez ditun.
- JOXP.—Gezurra!
- PATXI.—Egie!
- LUKAX.—Tia! Juan zaite zu etxe barrure, gauzak bear diran bezela jarriko ditut nik eta.
- JOXP.—Bai, egin dezala orrek nai duena.

- LUKAX.—Aizak, Patxi: nolako sagarrak dira? Ogei gurdika baldin ba'die ere, neuk erosiko dizkiat; atera itzak.
- PATXI.—Baña ez dezu zuk oraindik dana ulertu! Sagarrak ez dauzkat etxien, sagastien baizik.
- LUKAX.—Ekarri itzak, ba; neuk erosiko dizkiat danak, sagarra orain dabillan salneurrian.
- IÑIXIO.—Iruñe erriel dozenie saldu nai ditu nere amak.
- LUKAX.—Garesti xamar dek.
- PATXI.—Nik esaten nuana!
- IÑIXIO.—Aitek, berriz, xemekuen sagar bakoitze.
- LUKAX.—Erakutsi eidazute, ba, nolakoak diran ikusteko.
- PATXI.—Baña, Jaungoikuen izenien! Oraindik gauzak nolatan dauden ez al dakizu? Gaur bertan landatu det sagar-azi bat eta nere emazteak zion, emendik zazpi edo zortzi urtera bi edo iru zakuka emango dizkigula; berak batu, ta nik ekarri, ta Iñixio'k berriz saltzeakoan iru erriel eskatu bear zitula. Ta nik ezetz, ta ark baietz; orra gure ixtilluek.
- LUKAX.—Polite izan dek orixe! Oraindik —esate bateako— sagarrak landatu gabe, ta mutil gixajuek zer emana izan dik!
- IÑIXIO.—Bai, ta ez txikiek, gañea, jauna.
- PATXI.—Ia, negarrik ez egin, Iñixio!: erriko mutil bikañena degu auxe. Orain esaiozu Maritxo'i ba-nuala apaltzea; ta lenbiziko saltzen diran sagar diruaz ao-soñu bat erosiko-yat.
- LUKAX.—Ondo dago! Orain, Patxi, jun zure emaztiarengana ta ondo elkartu biok.
- PATXI.—Agur, Lukax!
- LUKAX.—Nere Jesus maitie! Auek gauzek ikusi bear izaten dira bizi ontan! : oraindik sortu ez diran sagarrak, señar-emazteak alkar asarrerazotzen ikusi ditugu.

*Lope de Rueda-Nanazal'dar Jesu*

*{Antzerti, 1932, 7'en zenbakia, 5 orr.}*

## 22 LAU KANTARI TA XORI BAT

(Zati bakarra)

*Nortzuek zer:*

Beñat.—*Zurgin zaharra.*  
Ganix.—«*Dies Irxe*». 60 urte.  
Ganix.—«*Dies Irae*». 60 urte.  
Gaxuxa.—*Andre Serora zaharra.*  
Kattalin.—14 *urteko neskatxa pullita.*  
Berri-emailea.—*Gizon gazte hat.*

*Aintzin kanta*

(*Berri-emaileak, oialetatik kanpo, kantuz*):

Eskualerriko herriska baten  
Ur-errekaren egian  
Zurgin zahar bat bizi omen zen  
egun ta gauaz lanian.

Goizian goizik atzartua zen  
Gauerdian askotan xutik  
Merkesko ari bai zen lanian  
Ta beartuentzat urrik.

Etxe zahar bat zen, eta ari urbil  
Baratze xoragarria  
Baratze artarik biltzen zituen  
Bakea ta eltzekaria.

Eskualerriko herriska baten  
Ur-errekaren egian  
Zurgin zahar bat bizi omen zen  
Egun ta gauaz lanian.



Zurgin zaharra goizian goizik  
Lotzen zitzaikun lanari  
Ta aren barnea garbia bai zen  
Bizi omen zen... kantari.

*(Barnean adituki da kanta bat):*

Bera da! Beñat da!

*[Berri-emailea gordeko da, eta oialak idekiko).*

## I AGERRALDIA

*[Beñat bakarrik)*

*[Zurgintegi barnea. Beñat zurgiñaren lan-tokia. Buruz-buru ate aundi bat, goialdiak zabaltzen zaiozkala. Andik mendiak ageri. Ate aintzinetik heldu baita bideska. Ezkerreko aldean leio bat: errekarat ematen duena. Eskuin aldean ateska, baratzerat doana. Zurubil zakar txiki bat ere, Beñatek gain artan baitu bere ganbera. Zurgindegia barnean ageri bitez, onek eskatzen tresna ta puska zakar guziak.*

*Udazkeneko lehen egunak dira. Uso-sasoina. Argi astea. Barnea hilun. Ordu zakar batek joko ditu bortzak.*

*Beñat, kantari ateratuko bere ganberatik; ela, emeki emeki ateko leioak zabalduko ditu. Barnea beteko da goizeko argiz. Atetik behatuz, Beñatek erran kantatuko Pastualetan bezala):*

BENAT.—

Hilunaren igesia...  
Nausitzen ari argia  
Larrun mendi gibeletik  
Ageriko iduzkia.

*[Badoa bere txisparen billa, eta ate ondoan ematen. Berri-ze leiotik begira):*

Usotako ze denbora!

*(Elizako ezkilek joko dute goiz-oloitza).*

BENAT.—*(Erran-kantuz):*

Eguna eldu, gaua doa...  
Lauda dezagun Jainkoa.  
Zoin eder goizian goizik  
Ezkila oien mintzoa!

*[Kanpoan adituko dire xorien kantak].*

BENAT.—Ixo! Udaberrian bezala, xoriak kantari...!

*{Erreka aldeko leioa idekitzerat doala, erran-kantuz):*

Aberatsek ba lekite  
Goizaldia zoin eder den  
Ez lirake eguerdi arte

*{Leioa idekiz erranen, kantatu gabe):*

Agur ene erreka, ene errekaño  
Munduan ez da pullitagorik i baiño.  
Egun etzaiz ageri, neguan bezala,  
Oiuka, goibel, hillun, asarre, minbera...  
Menditik eldu aiz gaur jauzika, kantari  
Preskura ekartzerat gure etxe zahar oni,  
Sortzen ikusia nauk, iltzen ikusiko,  
Ez bai nauk i bezela munduan betiko...  
Baiñan ene ondotik elduko denari  
Neguan oiuka ta udan kantari  
Emaiok eskola ta beldur ta atsegin  
Etxe zahar untarik urrundu ez dedin.

*(Kanpoan adituko dire, oillarren goizeko kukurrukuak).*

BENAT.—*(Baratzeko atea zabalduaz):*

Jainkoak egun on, ene baratzea!  
Atzar adi, usain ta fruituz betea,  
Intzaren ukituz bustia bai zare  
Orain iduzkiak emanen kolore.

*(Eta nola, bere laneko tresna zaharrak alki gainean pulli-ki emanez, asiko da gure Beñat lanean kantuz).*

BENAT ETA KATTALIN

*{Kattalin atean ageriko, xoria eskuan duelarik}.*

BENAT.—*{Arrituta}.* Ori! Zer duzu zuk emen, tenore hontan?

KATTALIN.—Nauzu ikusi? Xoria.

BENAT.—Xoria? Nola zaizu etorri?

KATTALIN.—Ogerat, lo negoelarik.

BENAT.—Ori! Ta ze bear duzu emen?

KATTALIN.—Kaiola.

BENAT.—Bai, ezpaitut beste lanik. Errotuko nauzute zuek, denen artean. *{Gero gogoketan}.* Zaude. Ez ote nuen nik, zoko batean, kaiola zahar bat...

KATTALIN.—Berdin du, zaharra izanik ere.

BENAT.—Baiñan, ezpaitut nik zozokeietako astirik. Bon, beartua ez ba zare, jarri or eta egon, nik nere lanak pittat arindu arte.

*{Neskatxa geldituko da, xoria eskuan, leiotik begira. Eta gure zurgina, beti alai, lotuko berriz lanari}.*

BENAT.—*{Erran kantuz}:*

Oianeko egurrakin  
 Oge bat bear dut egin,  
 Oletako neskatxa bat  
 Senpere'n amatu dedin,  
 Ezkon berrien ogea  
 Bizitzaren berritzea  
 Jainkoak nahi, oge berri au  
 Nere eskutatik sortzea.

KATTALIN.—*{Oiuka}.* «Dies Ire» dator.

BENAT.—Dies Ire? Nun?

Gaixo «Dies Ire» herriko Xantria.  
 Elizan kantari pasatzen bizia,  
 Paisola besoan ta beltzez jantzia  
 Itxuran ageri du tripako gosia!

### III AGERRALDIA

#### DIES IRE, BENAT ETA KATTALIN

DIES IRE.—{*Atetik, «Lauda Sion» airean*):

Emen duzu Dies Ire.

BENAT.—Aren serbitzako gire.

DIES IRE.—Nun da nire kadira?

BENAT.—

Zangoa zuen okerra  
Arrimatzen aitu gera.  
Sar zaite sar, ta jarri  
Dies Ire jaun Xantria.

DIES IRE.—Dena soiñu ta gosia.

BENAT.—Gizon argi prestua.

DIES IRE.—{*«Dies irae dies illa» aireakin*):

Ni naiz erriko Xantria  
Argatik nauzute beltzez jantzia  
Dena soiñu ta gosia.  
Izena daudate emana Dies Ire  
Hilek ez naute izitzen  
Biziengatik negoke gosiak iltzen  
Hilek ematen bizitzen.

BENAT.—{*Dies Ire airearen segidan*):

Emen duzu kadira, zango berria emanik arrimatua.

DIES IRE.—Jarri gaitez emeki, kadira berri ontan ez bai nauzu oitua.

BENAT.—Lan...

{*«Dies Ire» jarriko da, Beñat-ek ekarri dion kadiran; zurgin-alki giblean. Aren gain eskuak emanik, organua balu bezela, eginen du soiñu-jo, alegia. Beñat-ek, xantriaren ondoan emana, pasako diozka orri-aldiak, muxika-liburua sudur aintzinean balu bezela. Bi abotsetan abestuko dute, organuari dagokion aireen bat. Artean Kattalin, xoria eskuetan duelarik, asiko da dantzari.*}

BENAT.—{*Astiko airean*}. Kadira ongi ba duzu, mutikoakin etxerat igorriko dautzut.

DIES IRE.—Aski zanuke lehenik erraitea zenbat zor dautzut.

BENAT.—Deus ez.

DIES IRE.—(Hilen mezako «Kirie» aireakin):

Gaixo zurgin zaharra

Gizon alegera nauzu.

DIES IRE.—

Tori. Naiz-ta gauza gutxi izaki

Nere esku tarik ar zazu.

*{Ematen dio zer bait. Elizako ezkilak adituko bai dire}.*

DIES IRE.—(Aintzineko airean). Ezkillak jotzen ari, meza  
bear kantatu eta ba noa.

BENAT.—Artuko duzu joan baiño lehen esne xorta bat bero  
beroa,

DIES IRE.—Berdin.

*{Dies Ire jarriko da zoko batean, mahain zahar baten gi-  
belean. Mahain artan eskuak emanik abestuko ditu bere ge-  
roko kantak}.*

#### IV AGERRALDIA

BENAT, DIES IRE, KATTALIN.

Gero, SANKRISTAUA eta ANDRE SERORA

BENAT.—(Kattalin-i). A! Orain zure txanda. Banoa kaiola-  
ren bila. Ona emen. Zaharra da, bainan antolatuko dugu  
nolabait.

*{Beñat asiko da, kaiola zakar au pixkat arrimatzen. Bi-  
tarteetan, Dios Ire ta Beñat lotuko dire kantuz. Bezperetako  
airean}:*

DIES IRE.—

Gose ta baru heldu ninduzun

Orain ase a noa

Gure Jainkoak ordain deitzula

Katillu esne beroa,

BENAT.—

Zure ezpainetarik egun ta gauaz

Gure otoitza doa;

Zure eskuetarik egazten zaiku  
Herriaren gogo.

DIES IRE.—

Gure elizan goizian goizik  
Kantari nagoela  
Jainkoa bera ogiz jantzirik  
Eltzen zait aditzera.

BENAT.—

Eta ni ere goizian goizik  
Lotzen bai naiz lanari  
Maillu soiñuakin egiten diot  
Otoitza Jainkoari.

*{Gero Kattalin-i, erranez):*

Emen duzu kaiola xoriarendako,  
Naiko aundi litake ba litz neretako  
Mundua izanik ere zabala ta aundia  
Huna nere sorleku ta bizi-tokia,

*(Kattalin-ek ematen du xoria kaiolan. Gero kantuz).*

KATTALIN.—

Ago emen gaixo xoria  
Niganat egaz etorria  
Egon adin nikin ol-ola  
Zurginak egina kaiola.

Gaixo xoria  
Zeruak jantzia  
Dena zare dantza, kantu  
Ta koloria.

Txi-ru-li-ru-li-ru-li, txi-ru-li-ru-li-ru-li.

Zu zare oianetako xantria.

*(Beñat-ek ere kantatuko du gero gauza bera-, neskatxa kaiola eskuan, dantzan ari delarik. Dies Ire-k lagunduko ditu organuan. Bat-batez, sartzen da Pettan sankristaua, giltze aundi batzu eskuti zintzillik. Zaharra, gohorra eta main-gua da).*

SANKRISTAUA.—

Zer ari zaitze hola, soiñu espantu?  
Goizik asiak zaitze dantza eta kantu...

BENAT.—Nola zare, Pettan, gure ankristaua?

SANKRISTAUA.—Zahar, gohor, itxu, oker ta maingua.

[*Dies Ire-ri begira*): *Qués quil jé sé couyon?* Ez da, Dies Ire? zautzen diat bai, *bon parésésé quil é...* {*Arengana joanda*):

Hola bizi bear aiz, goizeti kantari.

Eskuak pianuan, xi-ru-li xi-ru-li?

Nigandik bear uken artu exenplua.

{*Zurginari*): *Souassant an qué ché travail a l'égliss,* gaixua.

Jaun erretora eri ta xantria alfer,

Gai-xo gu-re e-li-za ni ez ba ne-go e-men.

BENAT.—

Etzaitezela xamur, elizako gizon,

Zato hunat, Pettan, jarri emen t'egon.

SANKRISTAUA.—Ari da beti kantuz?

BENAT.—Ez, ixilik zaizu.

SANKRISTAUA.—Gizon xoroagorik munduan ez duzu.

BENAT.—

Ez da xoroa Pettan. Da... muxikaria

Hargatik ametsetan pasatzen bizia.

SANKRISTAUA.—

Bai, zu ere, gaixoa, zare naiko xoro

Kantari artzen baituzu munduko gauza oro.

DIES IRE.—{*Eskuak organuan, gogoá bertze nonbaiten,* «*Santa Ageda*» *aireetan*):

Apez mutila ninduten

Latinez naute azia

Neskentzat apeza izaki

Ta apezendako mutila.

BENAT.—

Apez mutila zinduten

Latinez zaute azia

Neskentzat apeza izaki

Ta apezendako mutilla.

SANKRISTAUA.—

Atzo enderramendua nuen

Eta egun bataiua  
Ikaratu gabe segitzen dut  
Munduko mobimendua.

BENAT.—

Atzo enderramendua zuen  
Eta egun bataiua  
Ikaratu gabe segitzen duk  
Munduko mobimendua.

SANKRISTAU.—

Elizan ditut begirazeko  
Berrehun t'ogoi kadira.  
Ezautzen ditut... mendik artzainak  
Bere ardiak bezala.

BENAT.—

Ezautzen ditu mendiko artzainak  
Bere ardiak bezala.

*(Turuta batek joko du eskualdun aire bitxi bat. Aren neurrian sartuko da —erdi-ibil, erdi-dantza— andre Serora. Beltzez jantzirik, itxura bitxi ta arpegi samiña dakar. Ua ikusiz, izituak dire gure bi eliz-gizonak. Andre Serora ibilki delarik, turutak joko dio beti, lehengo soiñu bera. Aire horren segidan kantatuko ditu Serorak geroko bere bertsoak).*

ANDRE SERORA.—*(Arpegi idorrakin)*. Eliz-gizonak xurrutian eta kantuz?

SANKRISTAU.—Nor da hor?

BENAT.—Andre Serora.

SANKRISTAU.—Urdea! Ongi gaituk oraintxe.

ANDRE SERORA.—*{Dies Ire-gana joanda. Hau arritua dago. Belarrirat egiten dio kantu):*

Elizan bear eta, kanpoan ibilli  
Funtxa gabeko gizon tristia ta zirtzilli!

*(Gero Sankristaua-ri):*

Eskuan arnoa ta, gakoak zintzilik...  
Zoazi elizarat zuzen eta ixillik.

*{Andre Serora badoa, beti ibil-dantzan).*

BENAT.—*{Sankristaua-ri): Uy, uy...}*



SANKRISTAUUA.—Ba. Horrengatik izitu? Bon, gaki naiz. Tenoria etorri bai zaut.

BENAT.—Tenoria edo...

SANKRISTAUUA.—Ba! Emaztekieri beldur? Ez ni beti... Emazte-ki-a...? *Il fo fér for a lé fam, for.* Tenoria heldu bai zaut... artako gaki naiz. Ber-tze-la...? [*Atetik*): *A le fam? For il fo lé fé, for...!*

[*Badoa daraaraz, Andre Serorari beldur*).

DIES IRE.—[*Jaikia da, hilun eta gizonki. Bera eta Beñat, biak kantuz*):

Nere mixeria!

BENAT.—

Agur, jaun xantria.

DIES IRE.—

Elizan ere, mutxurdin zahar bat  
Da nere nausia.

BENAT.—

Etzaitela kexa, muxikarekin  
Ahantziko baituzu zure bihotz min.

DIES IRE.—

Ze pazientzia!

BENAT.—

Agur, jaun xantria,  
Hilunari bear zako gogo egin.

DIES IRE.—

Ze itxura neria!

BENAT.—

Agur, jaun xantria,  
Zoazela pulliki Jainkoakin...

[*Beñat gelditua da bakarrik, ixil eta irriparrez. Xorien kantalak aditzen ditu kanpoan. Asia da berriz lanean, kantari. Eta hola, emeki emeki, oialak jetxiko*).

*T. Monzon Olaso*

[*Euzko-Gogoa, 1956, Orrilla-Bagilla, 86 orr.*).

## 23 OTOITZA

*Irudigilleak:* Markox, Jokiñe (senar-emaztiak), Arantxa (alaba, 7-8 urte). Gela egoki bat; bertan Arantzazu'ko Ama'ren irudia; ta mai gañian lore sorta bat.

JOKIÑE.—{*Mai inguruan exerita buruaute aundiak dauzka;*  
*altxatuaz*}. Naigabez betetako bizitza auxen da...!

Gurasoen esana ez nuen egin, ta orain ekaitza nere gañian da; ezkondu ta bi urtean or nunbait izan giñan, baiña... baiñan andik laister gure izatea okertu, ozpindu zen. Au da lanbidea! Nik esandako guzia gaizki artzen du. Jaungoikuak alaba eman zigun, ta gure naigabeak onetxek arintzen ditu. Lan nekiak gogo onez eramateko Jesus onak aingeruak bialtzen ditu, nere zauri biziaren sendagaia orixen da. Arantxa maitea. Egizko maitetasuna jaun ta jabe dan etxia bai zorionsua! Egizko pakea ta elkartasuna bai ederra dela... Baiñan iturri garbi ori zikindu ezkeru, otza ta ituna bes-terik ez.

ARANTXA.—{*Alai sartuaz*}. Agur, amatxo; gaur ikastetxetik berandu irten gera ta bazkaltzeko gogua ere badaukat oraintxe. Muxu bat, ama. {*Muxu ematean, ama itzaltsu dagola igerri du*}. Itun zaude, amatxo; min al dezu? Neregatik zerbait?

JOK.—Ez, maitia, zuregatik ez; ona emen Arantzazu'ko Ama. Otoi dagigun biotzetik gure etxe ontara zoriona ekarri dezan. {*Arantxa belaunikatuaz*}.

ARAN.—«Gaizto asko omen dira, bazter oietan. Beti maiteko zaitut nik bene-benetan. Zurekin bizi beti, beti zu maite.

Nere ama kutuna beti izan zaite. Gaurtik, Ama, zuretzat nere bizitza, zuretzat nere biotza ta eriotza» {*Mai gaiñeko sorta artuaz*}. «Tori, zuretzat. Begira zenbat maite zaitudan,

Amatxo. Orain sorta bat. Beste bein, Ama, ekarriko dizkitzut geiago. Agur, Maria...». *{Loriak Amaren oiñetan utzi ta altxatzen da}*.

*{Markox ta linguak}*.

MAR.—*{Asarre antzean}*. Bazkaldu bear al degu ala ez?

JOK.—Bai, gizona; bazkaria zure zai dago.

MAR.—Ez dakit ba! *{Egunerokoa irakurtzen asten da, ta Jokiñek negarrari ezin eutsiz alde egin beza}*.

ARAN.—*{Aitari ikaraz begiraten dio surzapiakin arpegia estaliaz. Andik laister Markox'ek burua altxatuaz}*: MAR.—Negarrez al zaude, e? Zer Neri esan emen... Min al dezu? *{Arantxa'k buruakin ezetz dio}*.

MAR.—Orduan txorakeriak utzi ta jostatzerara emendik. *{Arantxan begiruneak aitaren biotza ukitzen du}*.

MAR.—*{Legun antzean}*. Zer dezu? Tira, esan, zer geratzen zaizun.

ARAN.—Zuk maite ez gaituzula ta...

MAR.—Zer esan dezu?

ARAN.—Bai, aita; gaur goizian gure txoriak umetxuei alai abestu ta maitetasun aundiz palakatzen zien, eta nik... aien ixira sortu zait, txorien ixira. *{Ixillaldia}*. *{Umearen itzak aita oso limurtu dute}*.

MAR.—Jokiñe! Jokiñe! Onera atoz. *{Bere alabatxua artuaz}*. Atoz zu ere; onez aurrera aitaren egizko maitea izango zera, txorien ixilik izango ez dezu, zure malkuak nik legortuko ditut *{besarkatuaz}*. *{Jokiñe inguratzen da, iruak elkartuaz}*.

JOK.—Gure biotzak batu dituzun Jauna, bai ona zerala. Gure otoitzak entzun dituzu. Eskerrak! Zoriona gure etxeratu dalako gu guzian Ama'ri otoi xamur bana:

Zeruan uxu, lurrean goxo  
beti betiko zerala Amatxo.

Zeru ta lurran

ta oso-osoa, guzti erruki zera Zu beti.

Egillea: *Enara*

«Argia»-ren Egutegia, 1935, 114 orr.).

## 24 SEME ITOA

(Bakar-izketa)

### I

Ire aurrera naiatork gaur ere. Baiña, ai! ez leen baizen umore biziko: igaz aspertua nator. Ez naiatork maite-kantak ots-egiten, eta bai sumindurik, neure barruko naigabea iri erakustera, iri arpegira botatera neure samintasun ezin-erohana, iri esatera. Leen bai, itsaso!, i goratzea naioan eder; gaur, ez! Leen argitsu neukan zero zabala, asarrezko laiño baltzez bete jatak buru-itzul batean.

Ez, itsaso! , igaz ez joat artu-emonik gura. Azpitik, doillar eta saltzaille, jokutzen dakik. Ire bizkar-gain ibillia nok txo nintzanetik; beti ire lagun zintzo, kutun. Ni neure ontzitxoan; i beti billosik, kresal bizi; ni, egia, zurezko oskol barruan, ire lepo-gain beti dantzari. Maitale bi gintzoazan, i urrezko printzez niri begiak lausotzen, eta ni lepoa iri samurkiro laztantzen. Gau ta egun maitale, txera ta esku-atse-ginka alkarri poza emoten.

Baiña maitale zuri-galdua aiz, azpi-jale, itz ustela. Ez noan olakorik uste; ez, itsaso gaizto! Erlabio antzera, uste gabean dakik biotza ziztatu ta odoltzen. Zer uste dok, zital orrek? Olan ondatu daroak uste ona? Nok emona dok olako azikera? Nabarmena alakoa!

Beraz, gaur-gero ez joat, zakar ori!, geiago kantarik, ez joat iretzat maitezko itzik, ez bertso gozorik. Oraintsu arte, Kantauri!, aundi, munduan bateko, ezin bikaiñagoa intzan niretzat, poetarik aundienak aspaldidanik abestu izan joenez. Iñoiz idatzi joazak i goratuz bertso sentikor gartsuak, baita labur doiñutsuak ere. Aurrerantzean ez dok izango, nik es-

keiñita, olako emoitzik. Ez, ez lok merezi iñork i goratzerik ez bertsotan ez itz-askatuz. Ez aiz nire gomutaren duin. Begitan artu aut, gorroto emoten dauskat. Madarikatua aiz!

## II

Eure zabal-sakonean gose aizala dirudik. Nire semea —eder, mariñel beargiña— euk irunsi dok. Gose ori, zabaldi galanta euretzat edukita ere, ur gazi artean daukakan tripa-zorri ori ezin beterik ago, itxura danez. Zertako ori? Zergaitik aukera dok nire seme laztana, eure asegarri? Ez al donak or, zabaldian, konta ezin ala piztitzar, mamu, arrain-mota, maskor eta bedar-lege?

Arri ta zur egiñik gaiagozak ire irunsi bearra ikusiz. Lur-zati aundiagoak eta lur-jente geiago bear ete dozak? Bizi garean borobil ontan, ez ete aiz eu lautik iru? Oindiño ez al aiz aundi, gizaseme, ondasun eta aginte geiagoren naiez ain suar ibilteko? Zergaitik, apetak joa? Lartxo ez ete? O ire orru, janbear eta nekeak!

Leenago atsegin jatan emen, iri begira, ordu luzeak emotea. Orain ez, nazka dakarstak orain. Alan be, iregana etorri nok eta ementxe naukat adi-adi, molle gaiñean, mokor onetan tente. I, ezer gerta ezpalitzok lez, or abil zabu-zabuka betiko antzera, mamu ezin-egona, ardurarik ezean. Zantar!, ezin aut eroan, min damostak, erdizkamu, atzerakuntza ta griñik-ez origaitik, Leen on-eritxia neuan, arridura, ederrespena, Baiña guzti a itzali zoan, goiz-izarraren diztira itzaltzen dan eran.

Alai bizi dira etxean senar-emazteak. Baita ni ere ire altzoan, goizetik gabera arrantzuan. Maiteminduak pozik pagopean alkar mosukatzen; nik ere bardin gozo ta ezti somatzen ire bizkarraren ikutua, ainbat eta ainbat urtetan, neure semearekin batean: albako kanpai-otsa entzunaz, iregana gentozan geure potin txiki dantzarian. Eta egun osoan, ire orru, intziri gorde ta txipli-txapla eztiak ezpiritu barruna

gozaten euskuen. Orduan, ez, ire noiztik-beinko murruta gaiztoak ere ez jakuzan gogaikarri: aita-semeen arteko bai-  
ezta ta matrakalak zirudien,

### III

Gaur ez da bardintsu. Argi dago! Semea iruntsi eustanetik gordin orrek, izu-ikaraz naukak. Ez nok ausartzen ire bizkar-gain ibiltzen: bein maltzur jokatzeko dauanak, bigarrenez ere jokatu leikelakoan naiagok. Gose nok —ire antzera bear bada?—, baiña ez naz gauza ire basoetara jasteko, eta ementxe nago iri begira, adi-adi; ez gero i mires-ten, i madarikatu nairik baiño. Erruki akik, or jaukak familia, emaztea ta seme-alabak; gosez eurak ere, ireganako gorrotoz gaiñera, onaiño urreratzeko adore barik. O itsaso! , itsaso! Leen eder, orain iguingarri! Erruki adi; sar egik guban leen bezela uste onaren su eskertsua.

Tximiñoitan zan gure arazoa, ba-dakik. Potin oskol batean genbiltzozan aspertu bage. Ez gintzazan orreek ontzi aundiak legez, ur ta urrun, ire sabeleko frutu oparoa osorik arrapa naiean. Gu apalagoak gozak, ire adiskide ta lagun. Lurra landuz eskuratzen joek janaria baserritarrak; orobat guk ere, iri bakartadean lagun egiñik, eure zerbait geuretzat jaso. Jakin egik: ur-masa ikaragarria azanagaitik, Jainkoak geure zerbitzurako ipiñitekoa aiz gero! Jakin egik, bai!

Egia autortzeko, i ez aiz zekena euskal erriarentzat; ire barrutitik joagu jatekoa askok eta askok. Baiña zintzur-zuloak aunditzen atazanean, ikara sartzen dok azur-gunetaraño. Sarri dituguk ikusi untzi-pilloak oskol irudi ire bizkar-gain dantzari, baiña iñoizka ire errai irakiñetan pulunpaka mustegin eta ondoratzen ere. Olan maiz ipiñi dituk euskal familiak naigabe bizitan. Zergaitik ori? Errazoi bakoa dirudik sarri eure jokabide zoroaz. Sumindua ago, itxura baten, lurrak esitzen aualako; naiz-ta bits zurizkazko meta ikaragarriak arkaitzen kontra ta ondartzat zabaletara bialdu, eziña jak aurrera egitea. Origaitik edo, ire orru-purrustadak?

#### IV

Nire oiuk gora doaz, neure semearen eriotza negartuz. Latza dok nire aoko otsa, garraxia, ire biotza ikaratu nairik galgi-azoa. Ain neban maite! Ona etortean uste neban, nire kezkek entzunaz, ire barrua bigundu egingo zala, baiña ikusten dodanez, bardin jarraitzen dok goibel, lanbrotsu, mal-karra baizen latz. Negar-arpulu lodiak datorkidaz matrail-beera. Eta iri zer? Gaba lez its biurtu jatak arimea, baiña iri zer? Nik, alan be, uste joat nire semeak aditzen ditula nik orain egotzitako ai-otsak.

Ik egindako ezbear izugarriaren ostean, itsasotik, nasa ertzetik zear, buru-makur ta biotz-erre, etxera nintzoanean, amak itandu eustan: «Eta semea?». Ni triste ikusirik, zerbaiten susmoa eukan. Ez nekian zer esan, ez neukan itzik aoan. Azken baten bota naioan: «Itsasoak iruntsi dau!». Oso-osorik laru jarri jakon arpegia, samintasunezko garraxi itzala emonik; atzera egin joan ekatxa eltzean itargia sasi-malkoz arpegia ostenduta agiri oi danez. Eskutik oratu ta alboko aurkian jezarri-azo neban. Zoratua lez egoan gaixoa. Bion zati zan semea! Orduetan ere negar-malkoz galdostuta eukazan begiak. Ezin etsi! Gaixoa! Anai-arreben begiak bardin, negar-uiol ziran, euren biotz leartuak asazkatu ta usturik. Arrezkero, gurean, etxakik iñork poza zer danik.

Errian lagun asko zituan arek, gure seme maiteak. Orain ez da gaixoa, ez da bizi, illen erreñuko dok, euren erruz... A billatzen joek lagunak igandez, baiña a, leen alaikor ebillena, orain ez dok agertzen zumardian, ez kalean, ez ondartzan. «Maite genduan! », diñoē neskatxak; eta mutillak, gazte lagunak: «Gure gidari zan! ». Eta orain ez da, ez da gure aldrako. Lagun maitea! Igande arratsaldetako poza! Ez, ez dabe geiago gazte areek euren lagun jatorra.

#### V

Ai, itsaso! Esango ete joat, zelan izan zan gauzea? Gogor jatak, baiña beioa ta jakin begie ire bizkar dabilztanak,

irekin kontuz ibilli daitezcan irekiko artu-emon arriskutsuetan. Goiz ta arratsalde, gu ire landara joan oi gaituk jateko billa. Etzan zaarra, ba dakik, gure seme Txomin; ogeitairu urte doi-doi. Ni, ondo dakik, aspaldiko urteetan ikusi nok, Kantauri!, eure ur-gaiñez, ementxe leor-ertz inguruan, leorretik geiegi urrindu bage; beti leial eta zintzo, eure kutun, nik uste. Eta Txomin ere, neure seme laztana, eskola pizkat ikasi ondoren, bederatzi urtegaz asi zan neugaz lanean, amu ta sare kontuan. Mordoa gintzoazan etxean, eta jakiña! Atsegin jakon kresal arteko lana; bai, deiera lez eban ire altzoko bizibidea!

Ut alperreko berbak. Ez jautsat ezer kendu ez ipiñi gura, artobero usaiña nazkagarri jatak eta. Amairu urte egin joazan neugaz, irekin adiskide min. Egin ete doka egundo azpi-jokoren bat azala urraturik? Etxuat uste. Ik, beraz, zerk jota egin dok egin dokana? Zergaitik irunsi daustak semea? Neure seme maite, leial ta zintzoa?

Eguen arratsaldean, bazkalduta gero, nasa barrutik atera genduan geure potintxoia ta jo genduan arkaitz osteko ur-ezpondara, betiko lekura. Naiz-ta bildurti, ta uxarka ta betuxuak izan, beti ez baiña, geienez beintzat, naiko jausi oi dituk gure eskuetan. Ortxe, arkaitz zilbor-zorrotz orren ondoan genbiltzan a ta biok egatxibitan. Auxe izan dok, badakik, gure eguneroko eginkizuna egatxibiak, tximiñoiak artu. Eta onako baten, gu konturatu barik, ik bialdutako olatu mando bat gain etorri jakun, zirimol izugarriaz naste. Zinglea izanik gure potiña, laster murgildu zan urpean, gu biok be beragaz batera, urpez urpe, urriñera eroanaz.

Zorigaitz itzala, ba dakik! Txomin gaixoak, ire sabel zakarretik urten-naiez uger egiterakoan, alboko arkatz-puntea jo eban buruaz, konorte bage geraturik... Zurrunbilloak eraginda joan nintzakoan, laguntza eskintzera; baiña orduko, ni ara orduko, «Aita, aita! » esanik urperatu jatan gaixoa. Ez neban ezer egin al izan! Ni igeri ta a urpera... Eziñaren garratza! Lertu-bearrez naukan biotza. Iru, lau, amar bider dei egin neutson arren, semeak ez eban urrean nire deadar-otsik entzuten. Konorte barik, illa ziur asko, ezponda



barruan... Ibilli nintzoan, bada-ezpadan, billa, baiña alpe-  
rrik. Etsita, «Agur, seme, seme maite! », esan neutsan. On-  
doren: «Agur, baita, iri txibi-potin zar! ». Biak ondatu ja-  
tazan osin baltz artako zurrunbilloan. Ire zintur gosetiaren  
asegarri biak. Nik gero, austua, uger jo naioan, ba-dakik,  
mollera.

Txomin gaixoa! Ene seme leial! Aren gomutaz, ez joat  
aurrerantzean ire bizkar ibilli gura, arrisku ta oztopoz in-  
guratua. Esaera zaarrak diño: «Bat dagi-anak...». Alan be,  
erruki adi nitaz eta nire sendikoakaz. Geure itsasoa aiz,  
Kantauri! Ez gagizak zurtz itxi ogi-bidean. Ez adi gurekin  
biotz-gogor izan. Iñoiz, damaturik, iregana biurtu ba'gagiz,  
ar gagizak txeraz. Ez bedi gure ortzia izar bage aurki!

Aita nok seme urpean itoarena!

*Igotz*

## 25 AZERIAREN ZORIA

Antzezleriak: *Zerri-ama, bcorra ta auntza, azeriari ziria sartzen.*

*Iztunak kontatzen du nola gertatu ziran gauzak.*

IZTUNA.—Ba omen zan ba, nunbaiten... Nun ote zan...? Naparroa'ko mendi goietako basoren batean, noski... Beste asko bezela, azeri bat bizi onen zan... Bizi ba-zan, ezpazan, gure kontua alako goiz batean asi zan... Azeri jauna, bere kabian lo lo zegoen, bere ezur-aragiak atsedenerari ematen. Egun argiak begietan jo zuanean, orra! *{Arrausi luzea entzun bedi...}*.

Esnatu da gure azeria, ta aoa kanabete zabalduaz, arrausi luzea egin du Ondoren, bere burua pilosopo aizez bete ta esan du:

AZERIA.—Arrausi onek, zalantzarik gabe auxe esaten dit: gaur zorioneko izango naizela.

IZTUNA.—Nagiak astindu zituanean, kabitik atera zan alai. Basoa txori kantaz soiñu bizitan zegoen. Bereala janari billa joan zan bascan barrena. Etzuan bide luzerik egin bearrik izan. Aren sudurren usnarra, urruti iristen bai zan. An du begien aurrean, koipez betetako maskuri bat, puxika bat. Gure pilosopoak berriro itzegin zion bere buruari, esanaz:

AZERIA.—Nere goizeko arrausi arek zoriona zekarkidala, uste izan diat, baiña koipe pillo au artzen ba-det, egun guzirako tokoloa egingo zaidak nere urdaillean... Noan aurrera, ta gauza oberik arkituko al diagu!

IZTUNA.—Esan bezela, an dijoa tipi-tapa, tipi-tapa basoan aurrera. Ta alako batean, orra nun jartzen zaizkion begien aurrean, zerri-ama ta onen zazpi-zortzi bat zerriku-

me guri-guriak. Aoa txistuz bete zitzaion, bazkari aren aurrean, eta luzatu gabe zerri-amari diotsa:

AZERIA.—Egun on, zerri-ama! Ume ederrak dituzu nere gosea asetzeko. Jaiki naizenetik, orrelakotxe zerbaiten amesetan nenbilen, eta nere zorionerako Jaunak nere bidetan ipiñi zaitu, iñolaz ere.

IZTUNA.—Urde zorigabea, bere umeen azkena ikusi ta zerbait asmatu bearrean arkitu zan.

ZERRIA.—Egun on, azeri jauna. Nere umeak zuretzat onen aukeran etortzeak, poz aundia ematen dit; baiña kontura zaitez, eztitut garbitzera eraman eta dauden bezela, zikin eta narras, eztaude iñork jateko. Zaude pixka batean, eta or bertan degun potzura eramango ditut garbi-garbi egin ditzadan. Orrela askoz obeto sartuko dira zure esteetan.

AZERIA.—Ongi da. Guazen osin ortara, ta lenbailen nere gosaria egiteko pozetan nago.

IZTUNA.—Potzu ertzera eldu ziranekeo, azeria zerrikumeak banan-banan garbitzen asi zan. Bitartean, zerri-ama etzegoen lo. Joaten zaio atzetik azeriari, ta bultz egiten dio muturrez eta an dijoa gure azeri gosea putzu ondora. (*Azeria uretara erortzen entzun bedi*),

Ene, ba! Gure zerri-amak bere ume-taldea artu ta igesari eman zion, azeria putzuan itotzeko zorian utzita... Andik atera zanerako, zerriak urruti ziran azeriaren agiñetatik. Au, ao bete ortzekin an gelditu zan bere gosea ase eziñik. Uretan blai eginda, berekiko onela esan zuan:

AZERIA.—Merezia artu diat. Nork egin nau ni zerrikumeen garbitzaille? Berriketarik gabe ito ba'nitu, besterik nian gaurko gosaria! Baiña, tira... oraindik egun luzea zeukeat aurretik eta urrengoan erneago ibilliko nauk. Noan aurrera!

IZTUNA.—Azeriak bere gosea ixiltzearren, eman zion kantatzeari:

AZERIA.—(*Kantari*). Labiru, labiru len. labiru, labiru, len. Labiru, labirulena, labiru, labiru, len.

IZTUNA.—Orrela kontuak, bideak gora, bideak bera, gure azeri jauna begiak zorroztuaz, an dijoa bere mokaua nun arkituko. Bat-batean, egitxo batean egundoko mauka agertzen zaio. (*Beor irrintziak entzun bitez*).

Entzun al dituzue? An ditu aurrean, beoar-ama ta onen bear-kume ederrak. Azeriak eztu aukera au galdu nai, ta bereala deadar egiten dio beorrari:

AZERIA.—Neretzat zerate!

BEORRA.—Zer egin bear diguzu?

AZERIA.—Jan egin bear zaituztet.

BEORRA.—Ni jan? A ze nolako mokaua, nere aragi zar elkor au!

AZERIA.—Ortan arrazoi dezu. Beorkumeak jango ditut, zu pakean utzita.

BEORRA.—Ori besterik da; baiña jaten asi baiño lenago, nere umeak iltzen ez ikusteko norabait aldegin nai nuke. Eta aurrez, enen ankan sartu zaidan arantza bat aterako ba' zenit ortzekin...

AZERIA.—Ori laster egingo degu.

IZTUNA.—Beorrek jaso zuan bere anka, azeriak ikus zezaion arantza, ta onen muturra parean ikusi zuanean, egundoko ostikadaz ortzak ausi ta zentzu gabe utzi zuan lurrean. Aren antxintxikada umeak aurrean artuta! (*Anka zala-parta igesi entzungo da*).

Azeria, bere senara etorri zanean, bakarrik arkitu zuan ber burua; mutur mindua miiz gozatuaz, esan zuan berekiko:

AZERIA.—Nork sartu nau, izan ere, ni mediku lanetan? Ederra eman zidak beor gezurti orrek! Obe nian, ba, lenengo arkitu dedan koipe-maskuria ustu ba'nu...! Enauk bereala, barriz, kopletan ibilliko. Arrapatzen dedanari ortzak sartu ta kito!

IZTUNA.—Onela gauzak, eman zion berriro bideari. Luzatu gabe, an zuan eskura auntz zar maltzurra. Bereala eldu zion.

AZERIA.—Nerea aut!

AUNTZA.—Zer egin bear didazu?

AZERIA.—Jan, ezur eta aragi. Gose luzea bai diat.

AUNTZA.—Ni jan? Ba-zegok goxoagorik errota ortan. Or zeuzkeat nik nere antxume samur-samurrak... Nai ba'dek ekarriko dizkiat bertara.

AZERIA.—Ongi zegok; baiña azkar ibilli.

IZTUNA.—Auntzak antxumeak ekari? Ortarakotxe zegoen!

Joan da esan dio errotariari nor daukan atarian, eta onek artu du ixil-ixillik bere txispa zarra... Leio batetik begiztatu du pizti zarra ta... (*Tiroa entzungo da*).

An utzi zuan lurean muturrez bera gure azeri saioa. Auntzak eta antxumeak, dantzan egin zuten aren gaiñean, eta errotariak, Erri-Etxera araman piztia ta saria jaso zuan. Gero emazteari eraman zion, ta etxe artako guziak bapo apaldu zuten gau aretan.

Ta ala ba'zan, kalabazan, orra guzia esan. Ipui guziena bezela.

*Etxaniz'tar Nemesio*  
{*Lur berri-billa* liburua, 1967, 186 orr.).

## AURKIBIDEA

<b>Aurkeztu</b> .....	5
1.—Noe'ren ontzia. (Simon Arratibel) .....	9
2.—Berezi. (Charasson - A. M. Labaien) .....	13
3.—Neskamearen marmarrak. (Luzear) .....	20
4.—Santa Clara'ren egunean. (A. Zubikarai) .....	22
5.—Patxiko ta Martintxo. (Antzerti) .....	28
6.—Betelen mendiko artzaia. (Sabiaga) .....	32
7.—Arros-arteko Arantzak. (Ikas-zak) .....	36
8.—Anton berakatz. (Kirikiño) .....	43
9.—Aita-semeak. (R. M. Azkue) .....	50
10.—«Laño» ta «Izar». (Lizardi) .....	53
11.—Tosta gañean. (A. Zubikarai) .....	59
12.—Zigorra. (Agirrezabal'dar Alberta) .....	67
13.—Naitasunez erein! (G. Muxika-Amonarriz) ...	72
14.—Eskola igesi. (Argia) .....	80
15.—Ijitoak eta ni. (A. Zubikarai) .....	83
16.—Goimaitasuna (Kardaberaztarrak) .....	91
17.—Poxpolin gorria. (Mark Twain - J. Markiegi) ...	108
18.—Ikas-mikas. (A. Zubikarai) .....	117
19.—Andragaia nai ta... (Arozena'tar Andoni) .....	127
20.—Sasi-eskola. (R. M. Azkue) .....	133
21.—Zenbatean sagarrak? (Lope de Rueda - Nanazal) .....	141
22.—Lau kantari ta xori bat. (T. Monzon).....	145
23.—Otoitza. (Enara) .....	155
24.—Seme itoa. (Igotz) .....	157
25.—Azeriaren zoria. (Nemesio Etxaniz) .....	163

